DIAGNOSTIKOA

# ARETXABALETA ETA ESKORIATZA

## NERABEEKIN ASIALDIAREN INGURUKO IKERKETA ETA PARTAIDETZA PROZESUA

**2019ko Urtarrila**



# Proiektuaren lidergoa

Aretxabaletako Udala

eskoriatzako udala

# Proiektuan partaidetza

KURTZEBARRI BHI

arizmendi ikastola

# Proiektuaren dinamizazio teknikoa

FARAPI KOOP.

# AURKIBIDEA

1. SARRERA ..... 6

2. DOKUMENTUAREN EGITURA ..... 7

3. LAN PROZEDURA ..... 8

3.1. PRINTZIPIO GIDARIAK ..... 8

3.2. DIAGNOSTIKOA EGITEKO ERABILITAKO METODOLOGIA ..... 9

3.3. NERABEEKIN EGINDAKO SAIOETAKO IBILBIDE METODOLOGIKOA ..... 11

4. KOKAPEN TEORIKOA ..... 14

4.1. NERABEZAROA ..... 14

4.2. AISIALDIA ..... 17

5. HURBILPEN OROKORRA: NOLAKOAK DIRA EGUNGO NERABEAK? ..... 18

5.1. NERABEEN INTERESAK ETA AISIALDIAREKIKO OHITURAK ETA JARDUERAK ..... 18

5.1.1. Aisialdi Arautua ..... 18

5.1.2. Gazteleku eta Gazteguneak: aisialdi arautu eta ez arautuaren arteko mugan ..... 20

5.1.3. Aisialdi ez arautua ..... 21

5.1.5. Lonjak eta gazte-lokalak ..... 23

5.1.4. Internet eta sare sozialen erabilera ..... 23

5.2. GENERO HARREMANAK ETA SEXUALITATEA ..... 25

5.3. DROGEN ERABILERA ..... 28

5.5. NERABEAK ETA BERAIEN INGURUNEA ..... 30

5.1. Familia harremanak ..... 30

5.2. Eskolarekiko harremana ..... 32

5.3. Komunitatearekiko harremanak ..... 36

5.4. Gizartearekiko harremana ..... 37

6. ARETXABALETA ETA ESKORIATZAN SAKONDUZ: NOLA BIZI DUTE NERABETASUNA ETA AISIALDIA? ..... 39

6.1. NERABEZAROA IGAROTZE PROZESU MODUAN ..... 39

6.1.1. Igarotzearen hiru faseak: haustura, tartea eta sarbidea ..... 40

6.1.2. Igarotze fasearen mugarriak ..... 41

DBHn sarrera ..... 42
Gozamena eta lagunak ..... 42
Izaera eta nortasunean aldaketa ..... 43
Espazio-denbora berrien konkista ..... 44
Ni izateko, nik erabaki, nik egin ..... 45
Ardurak hartzea ..... 47
Kontzientzia piztea ..... 48
Mugen pertzepzioa eta kudeaketa ..... 48
6.2. AISIALDIRAKO DENBORAK ETA ESPAZIOAK ..... 50
6.2.1. Aste barruko aisialdia ..... 51
Ardurak edo halabeharrez egin beharreko ekintzak ..... 51
Jarduera arautuak edo eskolaz kanpoko ekintzak ..... 52
Denbora libreko eta aisialdi ez arautuko ekintzak ..... 52
6.2.2. Asteburuko aisialdia ..... 53
Zer egiten dute eta zer nahiko lukete egin? ..... 54
Haien kasara egoteko espazio propioak ..... 55
Kirola eta jolasa ..... 57
Herritik ateratzea ..... 58
Gaua eta jaiak ..... 58
6.3. HARREMANAK ..... 60
6.3.1. Lagun taldeak ..... 60
6.3.2. Gurasoak ..... 62
6.3.3. Helduen mundua ..... 64
6.4. SUSTANTZIEN KONTSUMOA ETA AISIALDIA ..... 67
7. GAZTELEKUAK ..... 71
7.1. ABIAPUNTUA: ZER DIRA GAZTELEKUAK? ..... 71
7.2. ARETXABALETA ETA ESKORIATZAKO GAZTELEKUEN EGUNEROKOTASUNEKO JARDUNA 72
7.3. ERABILTZAILEAK ETA HAUEN MOTIBAZIOAK ..... 73
7.4. HARREMANAK ..... 74
7.5. ESPAZIOAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ..... 75
8. PARTAIDETZA ETA INSTITUZIOEKIN HARREMANA ..... 76

8.1. PARTAIDETZA SOZIALERAKO AUKERA ETA MUGAK ..... 76

8.2. UDALAREKIKO PERTZEPZIOA ..... 78

8.3. NERABEAK HERRIKO ALKATEAK BALIRA ..... 79

9. ONDORIOAK ..... 83

10. BIBLIOGRAFIA ..... 86

# 1. SARRERA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako gazteria sailek urteetako ibilbidea daramate gazte politikak era iraunkorrean garatzen, eta martxan jarritako egitasmoak herrietako nerabeen portzentaje altu batengana iristen dira. Sailetik eskainitako zerbitzuak **aisialdirako aukerak ematetik haratago, ikuspegi hezitzailea ere integratzen dute,** bereziki Gaztelekua eta honen inguruko dinamikaren baitan.

2018-2019 epealdian, urrats bat gehiago eman da: nerabeak beraien aisialdiaren inguruan hausnartu eta eraldaketa proposamenak egin ditzaten partaidetza prozesu bat jarri da martxan. Horrela, nerabeak ez dira gazteria politiken hartzaile soilak kontsideratzen, baizik eta eragile aktibo aisialdiaren inguruan eta erakunde publikoekin harremanetan. Gazteria teknikariaren esanetan:

> *"Ez dot nahi antolatu udalan una karta de servicios, hor ez dago ez hiritartasun aktiborik, ez kontzientziarik, ez parte hartze kulturarik, ez ikasketa prozesurik. Nahi dot eurak inplikatzia komunitatean parte direlako."*

Prozesu hau aurrera eramateko, berdintasun sailak Farapi aholkularitzari egin zion prozesua diseinatu eta garatzeko enkargua. Izan ere, Farapin urteetako esperientzia dugu nerabeak subjektu moduan kontsideratuz, beraien behar eta gogokoetatik abiatutako eraldaketa prozesuak aktibatzen. Horrela, 2018ko irailetik aurrera, Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeekin aisialdiaren inguruan lanketa prozesu hau abiatzearen erronka ilusionagarriari ekin zitzaion.

Prozesuaren helburu nagusia ondorengoa izan zen:

> *Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeentzat aberasgarria eta interesgarria izango den aisialdi eredu bat lantzea, nerabeak eta hauen beharrak erdigunean jarriko dituen partaidetzazko prozesu bati esker.*

Eta horretarako, bi lanketa fase planteatu ziren:

- Ikerketa fasea: gazteen errealitateari hurbilpena, beraien beharrak eta interesak ezagutu aisialdiaren inguruan, eta partaidetza aktiborako gakoak identifikatu.
- Partaidetza fasea: gazteekin aisialdi eredu osasuntsu eta aberasgarri baten inguruko gogoeta partekatua egin eta udala eta nerabeen arteko elkarlan sistema diseinatu.

Dokumentu honetan **lehendabiziko fasearen emaitzak jasotzen dira: alegia, nerabeak eta beraien inguruko eragileekin egindako elkarrizketa eta saioetatik ateratako ondorioak, gaur egungo nerabetasunaren eta aisialdiaren marko orokorrago baten baitan kokatuta.** Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeen inguruko ezagutza jasota eta lehendabiziko kontaktu hau eginez, errazagoa zaigu partaidetza prozesuaren zutabeak jartzea eta herriko errealitatera aplikatutako prozesu bat diseinatzea.

**Dokumentu hau beraz, tresna eta emaitza da aldi berean**: Nerabetasuna ulertu eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeen ahotsetik beraien aisialdiaren inguruko pertzepzioak eta bizipenak ezagutu nahi dituenarentzat baliagarria da; eta partaidetza prozesurako eta gazte politikak diseinatzeko orduan kontuan hartzeko elementu interesgarriak ere jasotzen dira bertan.

# 2. DOKUMENTUAREN EGITURA

Dokumentu honen helburua Aretxabaleta eta Eskoriatzako **nerabeen aisialdi errealitatearen hurbilpena egitea da, haiekin egindako hausnarketa partekatu prozesua oinarritzat** hartuz. Hala ere, gaia bere testuinguruan kokatzeko, lanketa teoriko eta bibliografikoa ere egin da, eta honi espazio ere bat dedikatu zaio diagnostikoaren lehen atalean. Ondorengo lerroetan dokumentuaren logikoa ulertzeko baliagarria izango den txostenaren egitura azaltzen da.

Lehendabizi, **diagnostiko hau egiteko erabilitako lan prozedura azaltzen da**: printzipio gidari batzuetatik abiatuz, lanketa orokorrera pasatuz, eta amaieran, nerabeekin konkretuki lana nola gauzatu dugun azaltzeraino.

Bigarrenez, **kokapen teorikoa egiten da, ikerketa honen ardatza izan diren bi kontzeptu nagusien azalpenak jasoz: nerabezaroa eta aisialdia**, hain zuzen ere. Ondoren, egungo nerabeen eta aisialdiaren inguruko hurbilpen orokorra jasotzeko, **EAEko nerabeetan oinarritutako hainbat datu estatistiko baliatu dira.** Atal honen bidez, hurrengo atalean jasoko den Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeen errealitateari lotutako atal kualitatiboagoa testuinguruan kokatzea ahalbidetu da. Honako atal nagusiak lantzen dira bertan: Interesak eta aisialdiarekiko ohitura eta jarduerak, genero harremanak eta sexualitatea, drogen erabilera, eta nerabeak eta beraien ingurunea.

**Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeen errealitatearen hurbilpena dator ondoren**, nerabeekin gauzatutako saioetan ateratako datu kualitatiboetan oinarritzen dena. Saio hauetan, nerabe hauen aisialdiaren barruan kokatzen diren gai ezberdinak identifikatzen joan gara, eta modu horretan, atala hau ere gai horiek ardatz hartuta egituratu dugu:

- **Nerabezaroa igarotze prozesu moduan**: atal honetan nerabezaroan ematen diren eta nerabeak eurak identifikatu dituzten gertaera garrantzitsuak biltzen dira, nolabait, adinean aurrera egitearekin lotzen dituztenak.
- **Aisialdirako denborak eta espazioak**: atal honetan nerabe hauek beren aisialdian burutzen dituzten ekintza nagusiak jasotzen dira, ekintza motaren eta burutzen diren denbora (aste barruko aisialdia edo asteburukoa) eta espazioaren arabera.
- **Harremanak**: atal honetan nerabeen arteko lagun-taldeen, gurasoen eta helduen munduarekiko dauden harremanen inguruan hitz egiten da.
- **Sustantzien kontsumoa**: ikertutako nerabeen praktikak eta hausnarketak biltzen dira, drogen kontsumoaren inguruan.
- **Gaztelekuak**: Aretxabaleta eta Eskoriatzako espazioen inguruan hitz egiten da, bertako hezitzaileen, nerabe edo erabiltzaileen eta gazteria teknikariaren perspektibatik.
- **Partaidetza eta instituzioekin harremana**: partaidetza sozialerako dituzten aukera zein mugen, eta udala zein alkatearekiko figurarekiko harremanaren inguruan.

Dokumentuaren amaieran, **ondorio nagusien atal** bat ere jasotzen da. Atal honetan diagnostikoan jasotako eduki nagusietatik ondorio nagusi moduan identifikatu ditugunak barnebildu ditugu. Diagnostiko honen helburua bi herrietako nerabeen ezaugarriak ezagutzeaz gain, partaidetza prozesurako gakoak identifikatzea denez, ondorioak ikuspegi honetatik landu dira.

# 3. LAN PROZEDURA

Atal honetan, ikerketa fase hau aurrera eramateko baliatu den lan prozeduraren nondik norakoak azaltzen dira. Batetik, lan prozedura osoaren oinarrian egon diren zenbait printzipio gidari zerrendatzen eta azaltzen dira, eta bestetik, prozesua burutzeko ze metodologia eta ze dinamika konkretu baliatu diren.

## 3.1. PRINTZIPIO GIDARIAK

Ikerketa lan hau aurrera eramateko baliatu dugun lan prozesuak eta metodologiek, printzipio gidari nagusi batzuek finkatzen dituzten ildoak jarraitu eta errespetatu dituzte. Printzipio gidari hauek, batetik, partaidetzazkoa den alderdi bat duen prozesu orok kontuan izan beharrekoak dira, eta bestetik, planteatu dugun ikerketa markoak oinarri izan dituenak.

Ikerketa prozesuak, nolabait, partaidetzazkoa izan den alderdi bat izan duenez, partaidetza prozesuek kontuan hartu beharreko zenbait printzipio jarraitu dira (izan ere, informazioa eskuratzeko hainbat eztabaida saio egin dira nerabeekin, “partaidetza saioak” izan ez diren arren, partaidetza prozesuen printzipio batzuk jarraitu dituztenak).

**Partaidetzazko alderdiak (eta hein handi batean, ikerketaren markoak ere), nerabeak izan dituzte erdigunean. Nerabeak protagonista izatea bilatu da, eta ikertzaileokin batera, eurak ere euren aisialdi denbora ikertzen jartzea, euren behar eta interes konkretuak zein diren identifikatuz.** Modu honetan, ikertzaile eta ikertuaren arteko botere harremanak deusezteko saiakera egin da, harreman horizontalak bilatuz (“subjektu-objektu” beharrean, “subjektu-subjektu” izateko). Nerabeak erdigunean egongo direla bermatzeko, hainbat printzipio izan dira kontuan:

- **Aniztasuna eta ezberdintasunarekiko errespetua:** nerabeen artean aniztasuna dago jatorriaren, generoaren, status edo klase sozialaren, zein kultura, erlijio eta bizimoduaren arabera. Saiakera berezia egin da ikertutako nerabeak ere ahalik eta anitzenak izateko, eta aldi berean, burututako saioetan ezberdintasunarekiko errespetua bermatzeko.
- **Elkarlanerako giro atsegina sortu:** giro hau sortu eta taldearen kohesioa sustatze aldera, hitz egiteko zein hausnartzeko aukera berdintasuna bermatzeko saiakera berezia ere egin da saioetan. Baita motibazioa eta inplikazioa sustatzekoak ere. Guzti honi begira, ahalik eta praktikoenak izan diren saio dinamiko, malgu eta ludikoak baliatu dira.
- **Nerabeen testuingurua eta bere eragina:** ikerketan zehar, kontuan izan dugu nerabeak ere testuinguru jakin bati lotuak bizi direla (bere ezaugarri propioak dituena). Testuinguru honek ikuspegi jakin bat eraikitzera daramatza, eta errealitatearekiko beren irakurketak horren arabera eraikiko dituzte.

Bestetik, **ikerketan zehar prozesuari berari ere garrantzia** eman zaio, eta horren erakusle, beste zenbait printzipio ere egon dira burututako lanaren oinarrian:

- Batetik, burutu dugun prozesuak **ikasteko ere balio izatea** bilatu da, nerabeei beren aisialdiaren inguruan eta subjektu politiko gisara hausnartzen hastera lagunduz.
- Nerabeek **elkarrekin hausnartu eta eraikitzeko espazioak** sortzea ere ahalbidetu da.

- **Nerabeek beraien kultura propioa dutela sinesten dugu**, beraien errealitatea bizi, ulertu eta komunikatzeko era espezifikoekin. Horregatik kolektibo honek dituen mundu-ikuskerak eta bereizgarritasunak ulertu, baloratu eta burututako saioak hauen araberakoak izan zitezen saiatu gara.

Bestetik, ikerketa markoari dagokionean, **aisialdia bere osotasunean hartu da ikergai**. Izan ere, aisialdiaren edo nerabeen denbora librearen barruan, jarduera aniztasun handia aurkitzen dugu, izaera oso desberdinekoak (aisialdi arautua, asteburuetako planak, lagunarteko denbora, sare sozialen bidezko komunikazioa…). Beharrezkoa ikusi dugu aisialdian edo denbora libre horretan, bere osotasunean pentsatzea, eta nerabeak ere horrela egitera bideratzea. Izan ere, ikuspegi honen bitartez lortuko dugu haiek egiten dutenaren inguruko ikuspegi kritikoa izatea eta etorkizunera begira, esku-hartze plangintza eraginkorrak planteatzea.

Azkenik, **nerabeekin partaidetzaren kultura sustatzeko lehen urratsak jarri dira**, haiekin subjektu politiko izaera landuz. Haien aisialdiaren inguruko hausnarketarekin batera, eraldatzeko proposamenak egiteko markoa eman diegu, erakunde publikoekin interlokuziorako aukerak planteatuz. Partaidetza prozesuan ikuspegi honetatik jarraituko dugu lanean, baina ikerketa fasean lehendabiziko zutabeak jarri ditugu.

## 3.2. DIAGNOSTIKOA EGITEKO ERABILITAKO METODOLOGIA

Diagnostiko hau burutzeko orduan informazioa jasotzeko hiru bide desberdin erabili dira:

Alde batetik, **gaiaren inguruko bibliografiaren kontsulta** egin da, Aretxabaleta eta Eskoriatzako testuingurutik harago egun nerabezaroaren inguruan eta nerabeen egoerari buruzko argitalpenek diotena jasoz. Honekin, gaiaren inguruko ikuspegi orokor bat lortu dugu, nerabetasunaren gaia kokatzeko eta landa lanaren bitartez jaso ezin genuena ezagutzeko.

Aipatu beharrekoa da diagnostiko honetan aztergai diren nerabeen adin-tartean – hau da, 12 eta 16 urte bitarte – bakarrik zentratzen diren iturri estatistiko eta ikerketak topatzeko izan ditugun zailtasunak, batez ere gaia ikuspegi kuantitatibo batetik aztertzeari dagokionez. Argitalpen eta datu askok gazteago zein helduago diren nerabeak sartzen baitituzte kategoria estatistiko berdinetan. Aurrerago azaltzen den bezala egoera hau nerabezaroari berezkoa zaion indefinizio edo lausotasunak eratorria da, gai honen inguruan burutzen diren ikerketetan ere islatzen baita.

Posible izan denean, muga hauek gainditu eta gai ezberdinak aztertzeko iturri egokiak topatu ditugu, baina beste kasu batzuetan hemen aztergai diren adin taldeetatik kanpo dagoen populazioaren datuak hartu behar izan ditugu aintzat. Azkenik, 17 eta 18 urteko nerabeen datuak ere kontutan eduki dira adin tarte honetan kokatzen diren gazteak diagnostiko honetan aztertzen diren nerabeen gertuko etorkizuna zein izan daitekeen irudikatzen laguntzen dutelako. Hortaz, aztertzen diren gai askoren inguruan adin tarte honi dagozkion datuak ere ematen dira.

Bigarrenez, **Eskoriatza eta Aretxabaletako 12-16 urte bitarteko nerabeekin 11 eztabaida talde burutu dira**. Guztira, 112 ikaslek parte hartu dute eta talde bakoitzean 5 eta 12 kide bitarte egon dira. Talde eztabaidak ikastetxeen bidez antolatu dira (5 talde Kurtzebarri BHI-n eta 6

talde Arizmendi BHI-n) eta nerabeak adinaren arabera ere banatu dira. Horrela, 12-14 urte bitarteko nerabeek konposatutako 6 talde egon dira eta 14-16 urte dutenek 5 taldetan hartu dute parte. Azkenik, generoaren araberako bereizketa bat egin da ere, mutilez osatutako 3 talde, neskez bakarrik osatutako 4 talde eta 4 talde misto egon direlarik. Mutilen kasuan DBHko 2. Zikloko talde bat ez zen atera, ez zelako diagnostikoan parte hartu nahi zuten adina nerabe. Azkenik, taldeen osaketa ikastetxeen esku gelditu bazen ere aniztasunaren ikuspegitik (klase sozial, jatorri, ikasle profil, gustuak, harremantzeko era…) hainbat irizpide betetzeko eskatu zitzaien. Dokumentuan zehar, ez dugu bereizketarik egin ikastetxe bateko eta besteko ikasleen artean, bereizketa horrek informazio esanguratsua ematen ez digulako, eta nerabeen anonimatua gordetzen dela hobeto ziurtatzeko.

Hurrengo taulak informazio guzti hau laburbiltzen du:

| Aldagaia | Kategoria | Eztabaida talde kopurua | Guztira |
|---|---|---|---|
| Ikastetxea | Kurtzebarri BHI | 5 | 11 |
| | Arizmendi BHI | 6 | |
| Adina / ikasketa maila | DBH 1-2 | 6 | |
| | DBH 3-4 | 5 | |
| Generoa | Mutilak | 3 | |
| | Neskak | 4 | |
| | Mistoa | 4 | |
| Aniztasuna | *(klase sozial, jatorri, ikasle profil, gustuak, harremantzeko era…)* | | |

Taula 1. Nerabeekin egindako eztabaida taldeen ezaugarriak
2019ko urtarrileko datuak.
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Azkenik, **Aretxabaleta eta Eskoriatzan aisialdi eremuan nerabeekin lan egiten duten hezitzaile, teknikari eta bestelako profesionalekin hiru elkarrizketa burutu** dira. Elkarrizketa hauetan hurrengo pertsonek hartu dute parte:

- Eskoriatza eta Aretxabaletako udaletxeetako Gazteria teknikaria.
- Eskoriatza eta Aretxabaletako Gaztelekuetako koordinatzailea eta bi begirale.
- Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio saileko bi kale hezitzaile.
- Uda Kirol elkartea: koordinatzailea eta entrenatzaile bat.

Nerabeekin zuzenean lan egiten duten hezitzaile eta entrenatzaileen bidez, Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeen ezaugarrien inguruan gehiago sakondu ahal izan da, nerabe hauek gertutik ezagutzen dituztelako. Gaztelekuetako hezitzaileekin, batez ere nerabeek espazio hauetan egiten duten erabileraren inguruan hitz egin da: nola baloratzen dituzten, zer egiten

duten bertan… Kale hezitzaileekin bi herrietako beste nerabe mota batzuen inguruko informazioa eskuratu ahal izan da: batez ere, Gaztelekuetara hurbiltzen ez direnak edo bazterkeria egoeretatik hurbilago egon daitezkeenak. Entrenatzaileek ere nerabeen ezagutza handia dute, bi herrietako nerabe hauek kirolzaleak izaki, entrenatzaileekin pasatzen duten denbora handia delako.

Azkenik, eta bereziki gazteria teknikariarekin egindako elkarrizketan, Eskoriatza eta Aretxabaletako gazteria politiken helburuak eta lan-ildoak ezagutu ahal izan ditugu, proiektu hau kokatzen den markoa hobeto ezagutzeko.

## 3.3. NERABEEKIN EGINDAKO SAIOETAKO IBILBIDE METODOLOGIKOA

Nerabeekin egin diren saio hauen egitura edo ibilbide metodologikoari dagokionez, **gai ezberdinak lantzeko dinamika jakin batzuk diseinatu ziren, saioaren muina izan zirenak**. Horrez gain, nerabeen aisialdia ikertzeko interesgarritzat jo ditugun beste gai batzuk, modu zeharkakoan landu edo galdetu dira, dinamika hauetan bertan, eztabaida ezberdinak planteatzeko aukerak emanez.

Esan beharra dago, landa lanean zehar, saioen egiturak hasieran diseinatutakotik aldaketa (edo hobe esanda, egokitzapen) batzuk jasan dituela. Saio hauek Kurtzebarri BHI ikastetxearekin abiatu genituen lehenik, eta lehen saioetan ohartu ginen, oro har, zaila zela eztabaida formatu bidez informazioa jasotzea: nerabeak izanik, mugimendua eskatzen zuten. Planteatu genituen dinamiketan gogotsu lan egiten zutela ikusi genuen, eta beraz, dinamika bat gehiago txertatzea erabaki genuen saioen egituran. Behin saioak Kurtzebarrin burututa, Arizmendin burutu genituen ondoren.

Hona hemen saioen egitura eta beren muina izan ziren dinamiken nondik norakoak:

**0. Aurkezpenak**

Saio guztien hasieran, nerabeei saio horretan zer egingo genuen eta parte hartzera doazen proiektua zertan den azaldu genuen. Behin hau eginda, taldeko kide bakoitzak bere burua aurkeztu beharko zien gainerakoei eta saioko dinamizatzaileei (dinamizatzaileok ere geure burua aurkeztu genuen), honako galdera hauek erantzunaz:

- Nor zara? Nondik zatoz? Ze adin duzu?
- Zer da zuretzat (12, 13, 14, 15 edo 16) urte edukitzea?

Modu honetan, elkar aurkezteaz gain, nerabetasunaren inguruan pentsatzen jarri ginen, lehen dinamikarekin hasteko kontestuan jarriz.

**1. Dinamika: Pasarte erritua**

Lehen dinamika honetan, koloretako orriak banatu ziren eta bertan, ***ume izateari utzi eta nerabe sentitzen hasi diren momentu, esperientzia edo bizipen bat*** irudikatzeko eskatu zitzaien, bakoitzak berea. Batzuek marrazki bidez irudikatu zuten, eta beste batzuek, berriz, idatziz. Ariketa honi esker, informazio esanguratsua jaso ahal izan genuen, nerabetasunaren eraikuntza prozesu (edo transformazio, igarotze) horretan dauden mugarri nagusien inguruan.

Horrez gain, irudikatu zutena beste taldeei aurkeztu eta azaltzeko ere eskatu genien: *zer da irudikatu duzuena? Zer egiten duzue bertan? Nola zaudete? Nola sentitu zineten momentu*

*horretan? Zergatik?*... Halako galderen bidez, irudikatu zuten horretan sakontzea eta eztabaida edo hausnarketa ezberdinak abiaraztea lortu zen.

## 2. Dinamika: Zer egiten duzu zure aisialdian eta zer egin nahiko zenuke?

Hurrengo dinamikarako Aretxabaleta eta Eskoriatzako mapa batzuk baliatu genituen, handian, bertan lan egin ahal izateko. Horrez gain, bakoitzari kolore berdeko post-it bat eta kolore laranjako beste bat banatu zitzaien: post-it berdean, pertsona bakoitzak Aretxabaletan edo Eskoriatzan, beren aisialdian egitea gustatzen zaion zerbait idatzi behar zuen, eta post-it laranjan, berriz, Aretxabaletan edo Eskoriatzan, beren aisialdian egitea gustatuko litzaiokeen (baina egun, egin ezin duen) zerbait. Nahi izanez gero, bakoitzetik gauza bat baino gehiago idazteko aukera ere eman zitzaien.

Behin hori idatzita, post-it horiek mapetan kokatu behar zituzten, aisialdian gustura egin izan ohi dituzten ekintza horiek non egiten dituzten ikusteko, eta aldi berean, egitea gustatuko litzaizkieken horiek non egin nahiko lituzketen ikusteko (batzuetan, hau argi ez bazuten, ekintza horiek kanpoan egiten dituztela irudikatzeko post-itak mapatik kanpo kokatu zituzten).

Modu honetan, Aretxabaleta zein Eskoriatzako nerabeek beren aisialdian bi herrietako ze espaziotan mugitzen diren ikusi ahal izan genuen. Modu honetan, analisi ezberdinak egin ahal izan ditugu espazioaren erabileraren inguruan hainbat aldagairen arabera: adina, generoa, zaletasun ezberdinak…

Irudia 1: Nerabeekin burututako saioetako bat
2018ko iraila-urria
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

### 3. Dinamika: Atzo arratsaldean

Dinamika hau landa lana hastean saioen egiturara txertatzea erabaki genuen, nerabeen egunerokotasunaren inguruko informazio gehiago jaso ahal izateko. Horretarako, bakoitzari fitxa bat banatu genion eta bertan, ***atzo arratsaldean, ikastetxetik atera ondoren zer egin zuten azaltzeko*** eskatu genien. Fitxa horretan, hiru galdera hauek erantzun behar zituzten:

- *Zer egin zenuen atzo arratsaldean (ekintzak zerrendatu)?*
- *Non egin zenuen?*
- *Norekin egin zenuen?*

Bete ostean, fitxan jaso zutena besteei azaltzeko eta horrez gain, zerrendatu zituzten ekintzetatik gustukoen zutena hautatzeko ere eskatu zitzaien, hautaketa hori ahoz arrazoituaz.

Modu honetan, beren aisialdi denboran modu ohikoan egiten dituzten ekintzak zeintzuk diren ikusi ahal izan genuen, ze espazio eta konpainiatan egiten dituzten ikusteaz gain. Informazio guzti honek ere hainbat analisi egiteko aukera eman digu: aisialdi arautu eta ez-arautuaren (edo denbora librearen) arteko oreka, aisialdi denboran mantentzen dituzten konpainia eta harremanak…

### 4. Dinamika: Zure herriko alkatea izango bazina?

Azken dinamika honetan, nerabeen herritartasun eta subjektu politiko izaera landu nahi izan zen, oro har ohitu gabe dauden rol honetan koka daitezen bultzatuz eta herriari dagozkion erabakietan eurak ere, nerabeek ere zeresana badutela erakutsaraziaz.

Horretarako, galdera jakin bat planteatu zitzaien: ***zure herriko alkatea izango bazina, zer egingo zenuke*** *(Aretxabaleta edo Eskoriatzako nerabeen aisialdia hobetzeko)?* Orri batean, galdera honen erantzuna idazten zuten, ondoren orria tolestu eta hurrengoari pasatuz, honek ere bere erantzuna jarraian (baina aurrekoak idatzi duena ikusi gabe) idazteko. Esan beharra dago, oro har gehien kostatu zitzaien dinamika izan bazen ere, nerabe batzuek gauza ugari eta interesgarriak idatzi zituztela, eta oro har, galdera bera ere gustuz hartu zutela.

# 4. KOKAPEN TEORIKOA

Dokumentu honen **kontzeptu zentralak nerabetasuna eta aisialdia** dira, bi zutabe hauen inguruan eraikitzen baita egindako lanketa guztia. Horregatik, bi hitz hauek aurretiaz definitzea eta argiki azaltzea nola ulertzen ditugun ezinbestekoa izango da, dokumentua bera ulertu eta barneratzeko.

Atal honetan **bi kontzeptu hauen hurbilpen teorikoa** egin dugu. Ikuspegi holistiko batetik egin dugu, soziologia, antropologia eta psikologiatik landu diren teorizazioetan oinarritu dira. Helburua ez da izan hausnarketa sakonetan sartzea, baizik eta gaien hurbilpen ulergarri bat egitea, ondoren azalduko diren edukiak kokatzeko baliagarria izango dena.

## 4.1. NERABEZAROA

Soziologikoki **nerabezaroa bizitzako aro berri bat dela esan daiteke hein handi batean, XX. mendearen hasieran lehen aldiz izendatu eta mende horren azken hamarkadetan zabaldu eta hedatu zena**, alegia. Ordu-arte umeen eta helduen munduak oso modu argian bereizten zituen lanaren munduarekiko mugak lausotzen hasi eta biztanleriaren parte bat erdibidean gelditu zen momentuan kokatu daiteke nerabezaroaren jatorri soziologikoa. Ordutik, geroz eta interes gehiago piztu du gizartearengan nerabe eta gazteen errealitatea ezagutzeak, hauek izango baitira etorkizuneko helduak.

Nerabezaroa **trantsizio fase bat den neurrian, haurtzaro eta heldutasunaren arteko bidai** bat alegia, zaila da ere bere iraupena zehaztea. Gizarteak ezartzen dituen sailkapen jakinetatik at eta anbiguotasunean murgilduta gelditzen denez, berezkoa du izaera lausoa, kaotikoa eta desordenatua, momentu askotan gizarteko egitura jakina zalantzan jarri edo honi aurka egiten diona.

**Munduko Osasunaren Erakundeak (MOE) garatutako definizioaren arabera, nerabezaroa 10 eta 19 urte bitarte zabaltzen den denboraldia** da eta gaztaroa 15 eta 24 urte bitartean kokatzen dena. Dena den, nerabezaroaren barne azpifase ezberdinak bereizi daitezke. Jarraian eta adibide moduan gai hau landu duten bi autorek egin dituzten definizio edo klasifikazioak azaltzen dira (Serapio, 2006):

- Horrocks (1984) autorearen arabera hiru azpi fase egongo lirateke nerabezaroaren baitan: nerabezaro goiztiarra (11-13 urte), nerabezaro erdia (14-16 urte) eta nerabezaro berantiarra (14-20 urte).
- Neisten (1991) eta Brañas (1997) autoreek aldiz hurrengo bereizketa egiten dute: nerabezaro goiztiarra (10-14 urte), nerabezaro erdia (15-17 urte) eta nerabezaro berantiarra (18-21 urte).

Orain eman diren hiru definizioek diagnostiko honetan burutuko den lanarekin lotutako hiru kontu garrantzitsu jartzen dituzte auzian. Lehenengoa jada aipatu da eta nerabezaroari **berezkoa zaion zehaztugabetasunari dagokio, bai adinaren aldetik, zein pertsona bakoitzak nerabezaroaren fase ezberdinetan zehar igarotzeko duen erritmoari dagokionez ere**. Honek,

adin tarte berdinean kokatzen diren nerabeekin lan egitean esperientzia eta, batez ere, bizipenetan elkarren arteko aniztasun handia izango duten pertsonekin lanean ari garela kontutan izatearen beharra. Dena den, heldutasunerako bidean edo nolabaiteko trantsizio horretan aurrerago kokatuta dauden eta oraindik ere fase goiztiar batean dauden nerabeak topatu arren, badaude analisian erakusten den bezala adin-tarte bakoitzari propioak zaizkion hainbat ezaugarri.

Zentzu honetan, Arnold Van Gennep antropologoak 1960an sortu zuen "igarotze erritua" kontzeptua baliagarria izan daiteke nerabezaroak barnebiltzen dituen azpi-fase ezberdinen arteko mugak zeintzuk diren nolabait ulertu edo kokatu ahal izateko. Bere esanetan, igarotze erituak lirateke "edozein leku, egoera edo estatu, posizio sozial eta adinaren araberako aldaketak laguntzen dituzten erritu guztiak". Igarotze erritu hauek, 3 fase nagusi izango lituzkete: 1) haustura edo urruntze fasea, 2) tarteko fasea edo muga egoera, "liminaltasuna" deitua, eta 3) sarbide fasea.

Nerabeak ikertzen ditugunean ezin dugu ahaztu **"igarotze momentu" batean murgildurik daudela, haur izatetik urrundu eta gazte edo heldu izatera igarotzeko prozesuan murgildurik** daudela alegia. Igarotze erituen 3 fase horiek bizitzen ari dira, honek dakarren guztiarekin. Autore askok (tartean, David Lagunas Arias edo Sanchez Marciano), igarotze erritu hauek egungo testuinguru modernoetan ere ematen direla defendatzen dute, bi erritu mota bereiziz: formalak eta informalak. Formalak lirateke "sozial kulturalki definitutako giza talde batek onartu, bere egin eta beharrezko bezala inposatzen dituenak estatus jakin batera iritsi nahi dutenei". Informalak, berriz, "azpi-talde, koadrila edo elkarte jakinei dagozkienak lirateke". Ez dute erritu idatzi edo ahoz transmititutako bat jarraitzen, baina ekintza zentral bat dute (Sanchez Marciano, 1983).

Bigarren gai garrantzitsu bat nerabezaroa aldaketa biologikoez harago doan prozesu bat dela ulertzea da eta **pertsonaren baitan geratzen diren aldaketa psikologiko eta sozial garrantzitsuak ere barnebiltzen dituela**. Azken hauek nerabeekin lan egitean kontutan eduki behar dira eta haien jarrera zein interesak zeintzuk izan daitezkeen inguruko gako batzuk ere ematen dute. Hurrengo taulan nerabezaroari lotutako hainbat bizipen eta sentipen jasotzen dira, adin tarte ezberdinetan bakoitzak duen adierazpena zein den zehaztuz (Iglesias, 2013):

| | 12-14 urte | 15-17 urte | 18-21 urte |
|---|---|---|---|
| Dependentzia / Independentzia | - Gurasoekiko mesfidantza eta interes gutxiago<br>- Hutsune emozionala eta umore aldaketak | - Gurasoekin gatazka gehiago | - Helduen munduan geroz eta integrazio gehiago. "Gurasoengana buelta". |
| Nortasunaren garapena | - Intimitate gehiagoren beharra.<br>- Bulkadak kontrolatzeko zailtasunak.<br>- Autoritateari | - Enpatia gehiago.<br>- Jarrera arriskutsuetarako joera. Ahalguztiduntasun eta hilezkortasun sentipenak. | - Konpromiso handiagoa.<br>- Kontzientzia arrazional eta errealistago bat.<br>- Balore sexual,moral eta erlijiosoen zehazte bat. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | desafioak. | | |
| Berdinen taldearekin harremana | - Oso emozionalak diren harremanak.<br>- Lehenengo harreman sexo-afektiboak | - Integrazio maila handia, bizia.<br>- Lagunen modak eta baloreak jarraitzeko joera.<br>- Taldeetan sartzeko joera. Partaide sentitzeko eta horrela aintzatestua izateko beharra. | - Lagunen baloreek garrantzia galtzen dute eta binakako edo harreman pertsonalen garrantziak gora egiten du, talde harremanen ordez. |
| Norberaren gorputzarekiko kezka | - Norberaren irudia, gorputza eta erakargarritasunarekiko ziurtasun eza.<br>- Sexualitatearekiko interesa pizten da eta gero egiten du. | - Gorputzaren onarpen maila pixka bat handiagoa.<br>- Kanpo irudiarekiko kezka. Norberaren irudia nortasunaren adierazle bezala. | - Kezkak desagertzen dira eta onarpena dago. |

Taula 2: Nerabezaroaren azpi fase ezberdinetan ematen diren aldaketa psikologiko eta sozialak
Iturria: Iglesias Diz, J.L. (2013) Desarrollo del adolescente: aspectos físicos, psicológicos y sociales. Pediatria Integral, nº 17, Vol.2, 88-93 pp.
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

## 4.2. AISIALDIA

Aisialdia, laburki esateko, **lanik edo zereginik gabeko denbora tartea** litzateke, nahi den eran bete daitekeena. Aisialdiko denborari lotuta zenbait nozio aurki ditzakegu: hala nola, deskantsua, askatasuna, gozamena edo plazerra eta lagunartekotasuna. Jarduera solteak baino gehiago, eta **nerabezaro garaiari lotuta, aisialdiko denbora eta ekintzak bizipen garrantzitsuekin lotzen dira, hau da, bizi beharreko esperientziak**. Modu honetan, aisialdiak oso adiera konplexua bezain ikertzeko interesgarria hartzen du. Egun, aisialdiaz eta denbora libreaz gozatu ahal izateari halako garrantzia ematen zaio, **non pertsona ororen oinarrizko giza eskubide bezala kontsideratua** den. Modu honetan, Nazio Batuen Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean (1948) jasoa dago.

Zenbait autoreren esanetan, **aisialdia edo denbora librea dira nerabeek beren subjektibitatea garatzeko eta libreki espresatzeko duten denbora-tarte bakarra, eguneroko ikasketa eta ardura edo betebeharretatik at** (Berrio Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:7). Izan ere, beren zaletasunak, desioak eta balioak eraiki eta espresatzeko aukera ematen dieten uneak dira, eta baita subjektu gisara beste subjektu batzuekin harremantzeko eta sareak eraikitzeko aukera ematen diotenak ere. Harremantze honek beren identitate eraiketa horretan berebiziko garrantzia izango du. Honi lotuta, lagunartekotasuna, esperimentazioa eta emozioa nerabezaro garaian lehenesten diren beste hiru elementu lirateke, aisialdiko denbora, espazio eta ekintzak zeharkatzen dituztenak, autonomia beharrarekin lotuta.

Bestetik, **nerabeentzat aisialdiak baditu hiru elementu nagusi edo funtsezko: erabaki autonomoak, ekintza bera izatea helburua eta lagunartean ondo pasatzea.** Modu honetan, aisialdi guneak direnek bete beharreko elementuen artean, nerabeek eurak hautatutako guneak izatea, helduen mundutik aparte kokatutako espazio eta denborak izatea, errutinarekin hausten dutenak izatea, euren esperientzia kolektiboa garatzeko aukera emango dutenak, ondo pasatzearen sentimenduari lotuak, zein erabakimena eta protagonismoa sentitzekoak.

Hala ere, aurrerago aipatu diren autoreek, egun joera berri bat antzematen dela azaltzen dute: nolabait, **denbora libre hau gero eta gehiago okupatzeko, ekintzaz betetzeko joera** dagoela. Ez du hainbeste axola ekintza ze motatakoa den: kirola, musika, artea, literatura… Honi jarraiki, denbora hau “ahalik eta gehien aprobetxatu” behar dela eta hori ez egitea, denbora hau “alferrik galtzea dela” dioten ideia batzuk antzeman daitezke egun. Badirudi helduen munduko agenda beteak nerabeen mundura ere hedatu ditugula. Eta honek aldaketa garrantzitsu bat dakar nerabeek beraien beraien aisialdaren inguruan duten ikuspegian.

# 5. HURBILPEN OROKORRA: NOLAKOAK DIRA EGUNGO NERABEAK?

Atal honen helburua **nerabeen egungo errealitatea ezagutzea eta aisialdia nola bizi duten ulertzea izango da, era orokor batean**. Azken finean, Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeak testuinguru sozial zabalago baten baitan kokatzen dira, eta hori ondo ezagutzea ezinbestekoa da haien esperientzia eta iritzi espezifikoak ulertzeko.

Testuinguru orokor hau lortzeaz aparte, nerabeekin egindako saioetan landu ezin izan ditugun gaien inguruko informazio osatuagoa jaso dugu atal honen bitartez. Azken finean, nerabe talde bakoitzarekin saio bakarra egin dugu eta aisialdiaren inguruan gai asko daudenez, ezin izan dugu guztietan sakondu; gainera, gure diagnostikoaren metodologia kualitatiboa eta parte-hartzailea izan da, eta honek nerabeen bizipenetan eta pertzepzioetan jartzen duenez arreta, datu kuantitatiboak ez dira era sistematizatuan jasotzen. Hutsune hau atal honen bitartez bete dugu.

Ezagutza honetara hurbiltzeko, **EAEko nerabeen inguruko datu estatistikoak jaso ditugu**: haien aisialdi ohiturak eta interesak, drogen erabilera, haien arteko eta ingurunearekin duten harremanak… Horretarako, oinarri bibliografiko fidagarrietan oinarritu gara eta gure diagnostikoaren helburuekin bat egiten duten edukiak sailkatu eta hauetan sakondu dugu.

Ondorengo lau atalak landuko dira: Nerabeen interesak eta aisialdiarekiko ohiturak eta jarduerak, genero harremanak eta sexualitatea, drogen erabilera eta nerabeak eta beraien ingurumena.

## 5.1. NERABEEN INTERESAK ETA AISIALDIAREKIKO OHITURAK ETA JARDUERAK

Gazte eta nerabeen aisialdia aztertzerako orduan bi aisialdi mota edo eremu bereiztea komeni da. Alde batetik, **gazteek aisialdi arautu edo antolatuaren baitan egiten dituzten ekintzak, zeinak adineko pertsona batek edo gehiagok zuzenduta edo gainbegiratuta egoten dira eta gurasoentzako eremu "seguruak" direnak** (kirol talde eta elkarteen baitan egiten diren ekintzak, musika eta dantza eskolak, antzerki taldeak, tailerrak, udalekuak, etab.).

Bestetik, **aisialdi ez arautuaren baitan** kokatzen diren jarduera eta espazioak ere badaude, gazteek **bakarrik sortu, antolatu eta kudeatzen dituztenak, normalean bere balore eta interesen arabera eta helduen esku hartzerik gabe edo esku hartze hori oso murriztua izanik.** Hau litzateke kalean, gazte lonja edo lokaletan, gazteek erabiltzen dituzten sare sozial eta komunikabide propioetan eta orokorrean gazteek bere denbora librean egiten dituzten ekintza eta jardueretan ematen den kasua. Jarraian Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren gazte eta nerabeek bi eremu hauetan burutzen dituzten ekintza nagusiak eta parte hartze mota aztertuko dira.

### 5.1.1. Aisialdi Arautua

Aisialdi arautu edo antolatuari dagokionez, Gazteen Euskal Behatokiak aldizka jasotzen dituen datuek 2016an Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren **15 eta 19 urte bitarteko gazteen erdiak**

**baino gehiago kirol-praktika erregular bat egiten zuela** (%54,5) – astean hirutan baino gehiagotan – eta %58,6ak jarduera artistikoren batean "amateur" moduan aritu zela azken urtean erakusten zuten. Joera hau gainera gaztaroan zehar ere mantentzen da, 15 eta 29 urte bitarte dutenen arteko %49ak kirol-jarduera erregular bat egin eta %55ak jarduera artistikoren batean parte hartzen duelarik (Euskadiko Gazteak, Gazteen Euskal Behatokiak , 2016). Nerabeen artean ohikoenak diren jarduera artistikoak argazkigintza (%28), idazketa (%26) eta margolaritza edo marrazketa (%21) dira, musika-tresna bat jotzea (%15), bideoak ateratzea (%14) eta dantza edo balleta egitea (%13) ere nahiko ohikoak direlarik (Euskadiko Gazteak, Gazteen Euskal Behatokiak , 2016).

Datu hauek Health Behaviour in School Children (HBSC)1 inkestak 2014an jaso zituen datuekin alderatuz gero, emaitzak antzekoak direla ikusi daiteke. Kirol jarduerei dagokionez, inkesta honen emaitzek EAEn bizi diren 15-16 urteko %45,6ak gutxienez astean behin kirol jarduera antolatu bat egiten duela erakusten dute, gehiengoa astean bitan edo gehiagotan aritzen delarik jarduera honetan (%42). Gainera, estatu mailan gertatzen denaren alderantziz, gure lurraldean adinak gora egin ahala gazteek kirol jardueretan duten inplikazioak gora egiten du, 17 eta 18 urte bitarte dutenen artean erdiak (%50,5) kirol jarduera erregular bat astean behin gutxienez egiten duelarik eta %46,1ak astean bitan edo gehiagotan.

Jarduera artistikoei dagokienez, 15 eta 16 urte bitarte duten gazteen %37,6ak eta 17 eta 18 urte dutenen hamar gazteetatik hiruk (%33) astean behin edo gehiagotan egiten dute musika edo antzerkiarekin zerikusia duen ekintzaren bat. Kopuru hauek Gazteen Euskal Behatokiak aipatzen dituenaren azpitik daudela ikusi daiteke, baina horrek arrazoi metodologikoetan du bere jatorria: alde batetik, Euskadiko Gazteak ikerketak azken 12 hilabetetan burutu diren jarduerak jasotzen ditu, Health Behaviour in School Children (HBSC) inkestak aldiz, astero burutzen direnak bakarrik. Bestalde, Gazteen Euskal Behatokiak jarduera artistiko gehiago kontsideratzen ditu bere baitan (argazkilaritza, joskintza, ikus-entzunezkoak, margotzea edo marraztea, etab.)eta HBSC inkestak musika edo antzerkiarekin zerikusia duten jarduerak bakarrik ditu kontuan. Hortaz, bi arrazoi hauek esplikatzen dute bi ikerketen hauen emaitzen arteko aldea.

Emaitza hauek genero ikuspegi batetik aztertzen direnean, Health Behaviour in School Children (HBSC) ikerketaren emaitzek honako hau erakusten dute. **Kirol jardueretan emakume eta gizonen arteko arraila nabarmena da, nesken %36,3ak bakarrik egiten duelarik kirol jarduera antolatu bat astean behin edo gehiagotan, mutilen %57,7arekin alderatuta**, diferentzia 21,4 puntuko izanda, alegia. **Jarduera artistikoei dagokionez ez da neska eta mutilen arteko ezberdintasun handirik sumatzen**, alderik nabarmenena jarduera artistiko indibidualetan astean bitan baino gehiagotan aritzen den mutil (%13,6) eta neska (%9,6) kopuruaren artean aurkitzen dugularik.

Egoera honek agerian uzten du ikerketa askok argiki deskribatutako joera (Diez Mintegui, C, 2002): neskek 12 urte inguruekin kirol praktikak alde batera uzten dituztela mutilek baino portzentaje askoz altuagoan. Izan ere, mutilen sozializazioa konpetentzia eta arrakastarako

[1] Health *Behaviour in School Children* (HBSC) inkesta 1985an hasi zen egiten nazioarte mailan eta ordutik lau urtero jazotzen ditu 11 eta 18 urte bitarte duten nerabeen inguruko informazioa ikastetxeetan. Honek, nerabeen bizitza estiloak, ingurunea eta joerak ezagutzea ahalbidetzen du, herrialde eta zonalde ezberdinen arteko konparaketak posible eginez. Dena den, tamalez, aisialdia eta denbora librearen inguruko informazioa 15 urtetik gorakoen artean soilik jasotzen da 2014 urtean egindako inkestan. Beraz, ez dago 11 eta 14 urte bitarte duten gazteen inguruko daturik.

joerekin askoz lotuago egon da, eta nesken kasuan, adina batetik aurrera kirol praktikei uko egitea joera normaltzat kontsideratzen da, kontuan hartu gabe osasun fisiko eta psikologikoan horrek izan ditzakeen ondorioak.

Azkenik, gogoan izan behar da ere haurrek eta nerabeek aisialdiko baliabideetara duten sarbidea bere jatorriko familien baliabide ekonomikoekin lotura handia dutela eta generoarekin batera aldagai honek garrantzi handia duela nerabeen artean eremu honetan ematen diren desberdintasunak azaltzeko orduan. Gai honen inguruan ordea ez dago Euskadi mailan datu espezifikorik – HBSC inkestan EAEn hartutako lagina txikiegia da datuak adierazle honekiko bereizi ahal izateko – Estatu mailan jasotakoak erabili behar direlarik. Datu hauek **nerabeen artean arraila egon daitekeela haurren eta nerabeen sarbidean eta aisialdi-aukeretan jatorriko familiaren ondasun mailaren arabera**: maila sozioekonomiko altuko familietan bizi direnen artean % 57,5ak egiten du kirol jarduera edo ekintza artistiko antolatu bat, maila sozioekonomiko baxua dutenen artean kopurua nabarmen murrizten delarik (% 40,1). Dudarik gabe gai hau aztertzea interes handikoa litzateke gure lurraldean eta desberdintasunak egon ez gero esku-hartze publiko bat eskatuko lukeen gai bat da.

Haurtzaro eta nerabezaroan aukeren berdintasuna gauzatzea, genero ikuspegitik zein maila sozioekonomikoari dagokionez, ezin bestekoa da bizitzan zehar izango diren aukera berdintasuna bermatzeko. Gainera, hainbat ikerketek erakusten duten bezala etorkizunean beste esku-hartze mota batzuk (gizarteratze mailan, hezkuntza arloan, drogen menpekotasuna, biolentzia eta delinkuentzia, etab.) egitea saihestu dezake haurtzaro eta nerabezaroan inbertsio politika sendo bat izatea, zeinak aisialdi jarduerak ere barne bildu beha ditu.

### 5.1.2. Gazteleku eta Gazteguneak: aisialdi arautu eta ez arautuaren arteko mugan

Aisialdi arautu eta ez arautuaren baitan kokatzen diren Gaztegune eta Gaztelekuen erabilerari dagokionez, ez daukagu 12-16 adin tartean kokatzen den datu esanguratsurik, eta beraz, Gazteen Euskal Behatokiak **15 eta 19 urte bitarteko** gazteen inguruan aurkezten dituen datuei helduko diegu. Hauen arabera, **gazteen ehuneko batek bakarrik erabiltzen ditu egitura edo zerbitzu publiko hauek astean hirutan baino gehiagotan eta %4ak gutxienez astean behin joaten dira** (Euskadiko Gazteak, 2016). Datu hauen arabera gazte eta nerabeei zuzendutako zerbitzu hauen eragina eta presentzia nahi baino txikiagoa dela gazte eta nerabeen aisialdian ikusi daiteke. Gainera, antzematen da sarbidean desberdintasunak daudela, bai generoari dagokionez – mutilen %5ak eta nesken %4ak dira ohiko erabiltzaileak – baina batez ere kultur jatorri ezberdin batetik datozen gazteen parte hartzean. Kasu honetan Euskadin jaio diren gazteen presentziak (%4) atzerritik datozenena (%1) laukoizten du (Euskadiko Gazteak, 2016).

Interesgarria da ere aisialdiarekin zerikusia duten elkarteekiko Euskadiko gazteek duten harremana ezagutzea. Oro har, 15 eta 19 urte bitarteko gazteek nagusiagoak diren beste gazteek baino presentzia handiagoa dute kirol-elkarte kide (%33) eta gazte elkarte edo aisialdiko taldeetako kide bezala (%10,6). Elkarte kultural eta artistikoetan aldiz bere presentzia beste gazteena baino txikiagoa da (%11,4). Hala nola, parte-hartze hau nahiko baxua dela ikusten da orokorrean, hamar gazteetatik batek bakarrik izanda elkarte kultural edo aisialdi talde batekin bazkide harreman bat. Kirol-elkarteen kasua berezia da berez, adin tarte honetan txapelketetan parte hartu ahal izateko elkarte baten baitan egin behar baitira kirol jarduera gehienak horrek gazteen parte hartze berezi bat ekartzen ez duelarik (Euskadiko Gazteen Panoramika, Gazteen adierazleak 2017. Gazteen Euskal Behatokia).

### 5.1.3. Aisialdi ez arautua

Aisialdi ez arautuaren inguruan ematen diren dinamikei dagokionez, hiru eremu aztertuko dira. Lehenik eta behin, gazteek bere denbora librean egiten dituzten ekintzarik ohikoenak. Bigarrenez, gazteek modu autonomo batean kudeatzen dituzten espazioetan ematen diren dinamikak aztertuko dira: lonjak eta lokalak, alegia. Hirugarrenez, sare sozialen erabilera eta hauek gazteen aisialdi ereduan duten garrantzia aztertuko da.

Gazteen Euskal Behatokiak eskaintzen dituen datuen arabera 15 eta 19 bitarte duten gazteek egiten dituzten ekintza ohikoenak – astean hiru alditan edo gehiagotan – musika entzun (%93), kalean egon (%71) pelikulak, serieak eta telebista ikusi (%69) eta Youtube edo Vimeon bideoak ikustea (%65) dira. Kalean egoteari dagokionez, denbora libre gehiago izan ahala, gora egiten du kalean egunero daudenen ehunekoak. Azkenik, nerabeek ikus-entzunezko produktuak kontsumitzen diharduten denborari dagokionez, Health Behaviour in School Children (HBSC) ikerketak **11 eta 12 urte bitarte duten gazteek batez besteko 1,6 ordu (σ = 1,4) ematen dituztela egunean telebista, serieak, pelikulak edo Youtube eta Vimeo-n bideoak ikusten, adinak gora egin ahala denbora hau handiagotzen delarik** – 15 eta 18 urte duten gazteek 2,4 ordu (σ = 1,5) eskaintzen diote jarduera honi egunean – eta emakumeen artean gizonezkoengan baino pixka bat murriztuagoa izanda, aldea txikia bada ere. Beste aldagai batzuk kontutan hartuta, gazteak hiri batean edo herri txiki batean bizi diren eta zer nolako maila sozioekonomikoa duten adibidez, emaitzak oso antzekoak dira ere bai, batzuen eta besteen artean 0,2-0,3 puntuko aldea besterik ez egonda. Hiru ekintza hauen ostean 15 eta 19 urte bitarteko gazteek egiten dituzten ekintza ohikoenak kirola egin (%55), bideojokoetan jolastu (%30), lonjan egon (%17) eta tabernetara joatea (%16) dira.

Azkenik, zein maiztasunarekin ibiltzen dira gazte eta nerabeak bere lagunekin astean zehar eta zer nolako ordutegia egiten duten ezagutzea ere intereseko informazioa dugu. Health Behaviour in School Children (HBSC) inkestaren datuek **Euskadin bizi diren 11 eta 18 urte bitarteko nerabeen erdiak baino gehiago astean behin gutxienez ikusten dituela bere lagunak eskolatik kanpo adierazten dute. Lagunekin egoteko joera handiena 13 eta 14 urte bitarte duten nerabeen artean ematen da**: heren bat astean hirutan elkartzen da bere lagunekin eskolatik kanpo astean zehar (%32,5) eta hamarretatik bik astean lau edo bost alditan egiten dute hau (%20). Ohitura hau 15 eta 18 urte bitarte duten gazteen artean ere mantentzen da eta 13 urtetatik aurrera agertzen dela esan daiteke: 11 eta 12 urte dutenen artean alegia, heren bat ez da inoiz edo ia inoiz bere lagunekin gelditzen astean zehar (%33,4) eta hamarretatik bi astean behin edo gutxiagotan egiten dute hau (%20).

Genero desberdintasunari dagokionez, nahiz eta neska eta mutilen artean ez den 14 urte bete arte desberdintasunik antzematen, **15 urtetik gora bere lagunekin inoiz edo ia inoiz gelditzen ez den nesken kopurua mutilena baino nabarmen altuagoa dela erakusten dute datuek**. Zehazki, 15 eta 16 urte bitarte duten mutilen %6,7k eta nesken %15,2k ez dira bere lagunekin inoiz edo ia inoiz elkartzen eta 17 eta 18 urte dutenen artean %3,6k eta %11,9k gauza bera diote, hurrenez hurren. Datu hauek kezkagarriak dira eta ikasketen presioa eta auto-exijentzia, neskekiko kontrol jarrera handiagoak, zaintza lanetan eta ardura familiarretan inplikazio handiago bat edota berdin taldearekiko bazterketa egoerak, emakumeen artean gizonen artean baino ohikoagoak direla nerabezaroan zehar adierazi dezakete, posibleak diren beste egoera batzuen artean.

Bestalde, maila sozioekonomikoak ere eragin nabarmena duela nerabeek astean zehar bere lagunekin pasatzen duten denboran erakusten dute datuek: **maila sozioekonomiko baxu batean kokatzen den lau nerabeetatik bat ez da inoiz edo ia inoiz elkartzen bere lagunekin**

**eskolatik kanpo (%24,6), baina maila sozioekonomiko ertain eta altuan kokatzen diren nerabeen %14,2k eta %11,1k bakarrik adierazten du hori**. Kasu honetan ere datuek agerian uzten dute jatorrizko familiaren maila sozioekonomikoak zein puntutaraino baldintzatzen duen nerabeek aisialdia eta jolasarekiko dituzten eskubideen bermatzea ala urratzea.

Azkenik, bere lagunekin ateratzerakoan nerabeek etxera bueltatzeko duten ordutegia aztertuko da, bereziki beranduen etxeratzen diren egunetan betetzen dituztenak. Nahiz eta hauek ez izan orokorrean dituzten ohituren adierazle, bai dira haientzat oso bereziak diren egunetan (jaiak, urtebetetzeak etab.) bere kabuz egoteko eskuratzen dituzten espazio eta denboren adierazle eta hortaz bere biografietan oso une esanguratsuei lotuta egoten diren momentuak. Health Behaviour in School Children (HBSC) inkestaren datuen arabera **gauerdian edo beranduago etxera bueltatzea salbuespen egoera handia da 11 eta 12 urte duten nerabeen artean** – %2,9k bakarrik adierazi dute hori – baina azkar hedatzen den ohitura da hau eta **13 eta 14 urte duten lau gazteetatik bat baino gehiago iritsi da bere etxera ordu horretan edo beranduago inoiz (%26,1). 15 eta 16 urte dutenen artean ohitura zabaldua dela** esan dezakegu eta adin tarte honetan kokatzen diren gazteen ia erdia (%48,4) iritsi da etxera gauerdia baino beranduago. Azkenik, 17 eta 18 urte dituztenen artean ohitura hau guztiz normala da eta hamar gazteetatik zazpi dute ordutegi hau beranduen etxeratzen diren egunetan (%72). Gainera, aipatzekoa da 13 eta 14 urte duten %7,5k, 15 eta 16 urte dutenen %14,2k eta 17 eta 18 urte duten %55,4k goizeko hiruretan edo beranduago etxeratzen direla. Datu hauen arabera ondorioztatu daitekeena da nerabezaroan zehar gauaren konkista progresibo bat burutzen dutela gazteek. Nahiz eta joera 17 eta 18 urte bitartean orokortzen den, 15 eta 16 urte duten pertsonen artean ere gauean lagunekin ibiltzeko ohitura oso hedatuta dago eta beraz gai honen inguruan adin talde honekin ere lanketa propio bat egin beharko litzateke.

Genero desberdintasunei dagokionez, **orokorrean mutilen etxeratzeko ordua beranduago izaten da, neskekiko ordu bete edo pare bat orduko diferentzia egonda**. Ezberdintasun hauek batez ere 13 eta 14 urte duten neska eta mutilen artean – mutilen %12 etxeratzen da gauerdian, nesken artean %3,4 bakarrik – eta 15 eta 16 urte duten neska eta mutilen artean – nesken %22,8 bueltatzen da etxera gauerdian eta mutilen %23,7 ordu-batetan edo ordu-bietan etxeratzen da –. **Desberdintasun hauek ordea desagertu egiten dira adinak gora egin ahala eta 17 eta 18 urte duten gazteen artean neskak dira beranduen etxeratzen direnak**. Azkenik, hirietan edo herri txikietan bizi diren gazteen arteko konparazioa eginez gero, orokorrean, herri txikietan bizi diren nerabeak goizago etxeratzen direla erakusten dute datuek, nahiz eta beranduen etxeratzen diren pertsonen artean (goizeko 5etan, 6tan edo 7tan, adibidez) herri txikietan bizi direnak gehiago dira – hirietan bizi diren nerabeen %2,6 etxeratzen dira goizeko sei edo zazpietan, herri txikietan bizi diren nerabeen %6,5 alderatuta–. Egoera hau bi faktore motek eragiten dute seguru asko. Alde batetik, herrietako gau aisialdi eskaintza murriztuagoa izateak eta herri txikien eta beste hiri eta herri handiagoen arteko komunikazio zailtasunek herrietako jendea gauean gutxiago ateratzea eragiten du. Bestalde, herrietan egoten diren lokalen irekierarekiko arau malguagoak, jendearen arteko harreman estuagoak eta orokorrean kontrol polizial txikiagoak azaldu dezake gazteak beranduago etxeratzea toki hauetan. Dena den, emaitza hauen irakurketa landa eremu batean bizitzea gazteentzako babes zein arrisku faktore bilakatu daitekeela da gauez ateratzeari dagokionean.

### 5.1.5. Lonjak eta gazte-lokalak

Lonja eta gazte-lokalei dagokienez, **egun 15 eta 19 urte bitarte duten gazteen %28k lokal bat dutela adierazten dute datuek**. Gainera, adin tarte honetan kokatzen den %22k momentu honetan ez baina lehenago bai izan da horrelako espazio baten kide (Euskadiko Gazteak, 2016). Datu hauek bi gauza uzten dituzte agerian: lehenik eta behin, lonja edo lokal bat eskuratzeko batez besteko adina 17,5 urtekoa dela, eta bestetik lokal bat izatearen esperientzia oso zabalduta dagoela. Dena den, antzematen da lurralde historikoen arabera alde handiak daudela ere kopuru hauetan; izan ere, Bizkaian ohikoagoa da lonja edo lokal bateko kide izatea gainerako lurraldeetan baino.

Gazte-lokal bat eskuratzen duten gazteen profilari dagokionez, 20 urtetik behera duten eta gizonak direnen artean dago lokal bat izateko ohituraren zabalkunderik handiena. Zehazki, 15 eta 19 urte bitarteko ehun gazteetatik 28 mutil dira **lonja edo gazte-lokal batetako kide, emakumeen artean kopuru hau erdia baino gutxiago izanik** (12) (Euskadiko gazteak, 2016). Lokal edo lonja bateko kide izateko batez besteko adinari dagokionean ez da bi sexuen arteko ezberdintasunik antzematen, bai ordea lokal bat izateko arrazoi edo motibazioen artean. **Neskek eta gazteagoek kalean ez egoteko bide bezala baliatzen dute lokala** neurri handi batean: nesken % 87k arrazoi hori babesten du, mutilen % 68arekin konparatuta eta 15-19 urte bitarteko populazioaren % 81ak ere aipatzen du. **Helduen kontroletik kanpo adiskideekin egoteko toki bat edukitzeko beharrarekin lotutako arrazoiak gazteen % 50k aipatzen ditu eta %47k nahi duten guztietan joan ahal izateko toki bat edukitzea aipatzen dute.** Fenomenoa azaltzeko askotan aipatzen den ostalaritzaren garestitzeak erantzunen %19a baino ez ditu barnebiltzen (Corcuera, Bilbao eta Longo, 2013).

Azkenik, lonja edo lokal bat duten gazteek espazio hau zein maiztasunarekin erabiltzen duten jakitea ere interesgarria da. Jasotako azken datuen arabera, gazte-lokal bat duten hamar gaztetatik hiruk (% 29) egunero edo ia egunero joaten dira lokalera, %23k astean hiru edo lau egunetan joaten dira eta %35 astean behin edo bitan. Beraz, lonja edo lokal bat duten %87k astean behin, gutxienez, erabiltzen dute espazio hau.

### 5.1.4. Internet eta sare sozialen erabilera

Sare sozialen erabilerari dagokionez, hauek toki garrantzitsu bat hartzen dutela gazteen aisialdian gauza jakina da. *Euskadiko Gazteak 2016* txostenak jasotzen duenaren arabera, **15 eta 19 urte bitarte duten Euskadiko gazteen %97k ia egunero erabiltzen dute sare sozial bat edo gehiago** eta batez beste egunero 3 sare sozial ezberdin erabiltzen dituzte. Maizago erabiltzen dituztenak Whatsapp, Instagram, Snapchat eta Youtube dira, neska eta mutilen artean ezberdintasun batzuk egonda. Neskek gehiago erabiltzen dituzte *Instagram (%69)* eta *Snapchat* (%56) mutilek baino – *%56 Instagram* eta %35 *Snapchat* – eta mutilek aldiz neskak baino gehiago aritzen dira *Youtube*-n. Zehazki, mutilen %51k eta nesken %41k erabiltzen du sare sozial hau egunero 15-19 adin tartean kokatzen direnen artean. Datu hauek gai honen inguruan burutu diren hainbat ikerketek adierazi duten ondorioetako bat babesten dutela dirudi: **neskek eta mutilek, adina gora-behera, giza-sareen erabilera bereiztua egiten dutela; neskek adierazpenerako erabiliz eta mutilek erabilera argi eta garbi instrumentalagoa eginez** (Estébanez eta Vázquez, 2013). Zentzu honetan, emakumeek hein handiago batean erabiltzen dituzte pertsonen arteko harremanak sustatu eta zabaltzeko balio duten sare sozialak eta maizago partekatzen dituzte haietan bere egoera pertsonalak eta barne pentsamenduak mutilekin alderatuta. Ikerketa honek eta beste batzuek ere frogatzen duten moduan gainera, haien burua mutilek baino gehiago erakusten duten heinean, adiskidetasun eskari gehiago,

ezezagunen eskari gehiago eta eskaintza sexual gehiago ere jasotzen dituzte. Horrela, neskek mutilek baino jazarpen arrisku handiagoa eta zaurigarritasun handiagoa bizi dituzte gizarte-sareetan.

## 5.2. GENERO HARREMANAK ETA SEXUALITATEA

Aisialdiaren eremuan aipatu dira neska eta mutilen artean identifikatu daitezken desberdintasun egoera batzuk, hauek nerabeen artean genero desberdinkeria egun indarrean dagoela eta bizi-bizi dirauela erakusten dutenak. Atal honetan, zehazki, sexualitatea eta genero harremanen eremuan nerabeek bizi duten egoeraz arituko gara.

Ikuspegi kualitatibo batean oinarritzen den "Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: jóvenes y relaciones de género en el País Vasco" ikerketak (Emakunde, 2016) agerian uzten du, zentzu askotan, ez dela Euskadiko nerabe eta gazteen arteko genero harremanetan aldaketa handirik egon azken hamarkadetan, gutxienez populazioaren gehiengoa kontutan hartzen badugu. Horrela, ikerketa honek hurrengo joerak identifikatzen ditu genero estereotipoen eta genero harremanetan gazteen artean:

- Emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko praktika eta diskurtso teorikoaren arteko aldentze nabarmen bat dago. **Gazteek onartu eta antzematen dute gizon eta emakume izateko ereduen aniztasun bat dagoela gizartean, baina hori ez da orokorrean bere praktika eta harremanetan islatzen.** Genero estereotipoak eta gizon zein emakume izateko eredu bitar eta erredukzionisten inguruan egituratzen dira beraien arteko harremanak.
- **Emakume eta gizon izatearekin lotzen dituzten ezaugarriak estereotipoetan oinarritzen dira.** Horrela, gizonen kasuan indarra eta aktibitate fisikoa, sexualitate aktibo bat izatea edo adierazpen emozionalen errepresioa dira maskulinitate hegemonikoaren ezaugarri nagusiak. Emakumeen kasuan, aldiz, beldurra eta honek dakarren pasibotasuna, zein gorputza eta norberaren irudiarekiko garrantzia – batez ere, gizonekiko erakargarritasuna ardatz izanik – izango lirateke genero desberdintasuna mantentzen duten ezaugarriak.
- Hirugarrenez, genero bereizketa sakon batek ere badirauela erakusten du ikerketa honek, neska eta mutil askok bere sexu berdineko pertsonek osatutako taldeetan bakarrik harremantzen direlarik eta ekintza edo **egoera berezietarako bakarrik elkartzen dira beste sexuko pertsonekin. Jaiak eta gaua dira espazio hauetako bat.**
- Bikote harremanei dagokienez, bai **gizon zein emakumeen artean antzematen da bere bikote kidea kontrolatzeko joera nahiko zabaldua dela**, bai egiten dituen gauzen inguruan, zein bere irudi edo espresio estetikoari dagokionez (janzkera, depilazioa, makillajea, etab.)
- Genero desberdintasunak egun duen indarrari dagokionez, gazteen gehiengoak genero berdintasuna handia dela uste du eta berdintasun egoera batean daudela antzematen dute bere bizitzako arlo gehienetan. Dena den, agerikoa da posizio teoriko hau bizi dituzten hainbat egoerekin kontraesan zuzenean sartzen dela, adibidez, bikote harremanetan bizi izandako kontrol egoerak, neskek jasaten duten hipersexualizazioan edo amatasunari ematen zaion garrantziari dagokionez, adibidez.

Orain aipatu diren ideia hauek, Euskadiko Gazteak 2016 txostenaren datuekin kontrastatzean badira koherentzia topatzen dugu bi iturrien artean. Adibidez, genero berdintasuna eremu askotan jada lortutzat ematen duten helburu bat izan daitekeela Euskadiko gazteentzat adierazten dute hurrengo datuek: 15 eta 19 urte bitarte duten gizonen %21k eta emakumeen %32k uste du emakume izateak desabantaila bat suposatzen duela lan bat bilatzeko momentuan. Emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, adin-tarte honetan kokatzen diren

**emakumeen %44k beldurra pasatzen du gauez bere herri edo hiritik bakarrik ibiltzean, gizonen kasuan %5k bakarrik egoera hau bizi dutelarik**.

Emakumeen aurkako indarkeria mota desberdinak identifikatzeko orduan agerikoa da adierazpen esplizituek antzemate maila altua dutela gazteen artean – 15-19 urte bitarteko gazteen %97ak uste du harreman sexual bat izatera behartuta izatea oso gertaera larria dela eta %89ak etxetik irtetea debekatzea ere maila honetan kokatzen du – baina biolentziarik modu sotilenak, aldiz, identifikatzen askoz zailagoak zaizkie. Horrela, 15-19 urte dituzten gazteen %64ak bakarrik uste du oso eraso larria dela emakume bati bere erabakiak hartzen uztea eta portzentajea are baxuagoa da irain bat jasatearen larritasunari dagokionez (%53). Begi-bistakoa da beraz, egun ere **emakumeenganako indarkeriak modu esplizitu bat duenean identifikatzen erraza dela gazteentzat, baina ezkutuko adierazpen bat denean gertakari hauek txikiagotu egiten dira eta tolerantzia maila altua dagoela gazteen artean jarrera haiekiko**. Datu hauek garrantzi handia dute indarkeria matxistan oinarritzen diren harremanak eraso txikien aurrean emakumearen aldetik tolerantzia maila altu bat dagoenean aurrera jarraitzeko aukera topatzen dutelako, erasoak geroz eta maizago eta modu bortitzago batean gauzatzen direlarik.

Dena den, hasieran aipatu den ikerketaren emaitzek genero harremanetan jarraipen joera batzuk erakusten dituzten aldi berean, **haustura puntuak ere badaudela agerian uzten dute, batez ere, genero estereotipoetatik kanpo bere nortasuna eta adierazpen bideak eraikitzen dituzten gazteengan. Horrelako hausturak irudikatzen dituzten gazteengan erreferente ideologikoak edukitzea, bere familian independentzia eta askatasunaren erakusle diren emakumeak edukitzea edota pentsamendu hegemonikotik kanpo kokatzen diren testuinguru eta espazioetan harremantzeko aukera edukitzea dira genero harreman eta estereotipoetatik aldendu eta genero identitate eta harreman propio batzuk sortzea ahalbidetzen** dituzten aldagai nagusiak. Feminismoarekin eta ideologia honen transmisioarekin lotutako espazioetan parte hartzeak oso paper garrantzitsua jokatzen du emakumeen ahalduntze eta aldaketa prozesuetan, adibidez (Esteban Galarza et al., 2016).

Zentzu honetan, genero identitate ez normatibo eta orientazio sexual ez heterosexuala duten pertsonekiko gazteen jarrerak zeintzuk diren ezagutzea ere interesezkoa da, bi aldagai hauek baitira genero harreman eta roletan esanahi tradizionaletatik aldentzen diren bi jarrera paradigmatiko. Gai honen inguruan, azken datuek Euskadin bizi diren eta 15 eta 19 urte bitarte duten gazteen %16ak badituela dudak homosexualitatea gaixotasun bat ote den ala ez baieztapenaren inguruan, %82k argi eduki arren ez daudela esaldi horrekin batere ados. Emaitza hauek erakusten dute homosexualitatearen onarpena nahiko zabaldua dagoela gazteen artean, nahiz eta txikia ez den kopurua, hamar gaztetatik bik alegia, ez dute homosexualitatea jokabide natural bat bezala ikusten bere osotasunean. Bestalde, adin horretako gazte gehienak sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde agertzen dira (%92 ), baita sexu aldaketaren aldekoak ere bai (%88). Datu hauek ikuspegi baikor bat izateko oinarri bat ematen duten arren, beste datu batzuek ere teoria eta praktikaren artean sexu jarrera eta identitate aniztasunaren eremuan ere teoria eta praktikaren arteko alde handia egon daitekeela adierazten dute.

Gazteen sexualitatearen inguruan 2013an burututako ikerketa baten emaitzek adierazten duten moduan, **15 eta 22 urte bitarte duten gazteen artean %2,8k bakarrik definitzen du bere burua homosexual bezala eta %1,8k bisexual bezala. Aldi berean, %1,4k bere orientazio sexuala oraindik ere definitu gabe dagoela adierazten dute**. Kopuru hauek gizarte orokorrean topatzen ditugunak baino txikiagoak dira, %9-10 artean izan ohi dira eta gaur egun helduei zuzendutako inkesten arabera. Dena den, kontutan eduki behar da desira homosexualaren

orientazioa deskubritu, onartu eta publikoki adierazteko prozesua nerabezaroaren bukaeran amaitu daitekeela. Hortaz, ikertutako pertsonen adinak kontuan hartuta, baiezta daiteke etorkizunean beren burua homosexual gisa hartuko duten pertsona asko oraindik ere bere sexu-desiraren orientazioa integratzen ari direla adin honetan (Gómez, J.; Ortiz, M.J.; Eceiza A., 2013).

Sexualitatearen bizipena eta sexu harremanei dagokionez, **ikerketa honen arabera asmo erotikoa duten lehenengo musu eta laztanak 13 urte inguruan gertatzen direla** (13,3 urterekin mutilak, 13,66 urterekin neskak), koitotik hurbil dauden lehenengo sexu-intimitateen batez besteko adina 15 urte inguruan kokatzen dela eta koito-esperientziak izatekoa, aldiz, 16 urte inguruan. Datuek sexu-jarduerarako maila ezberdinetara sartzeko adina urtebete inguru aurreratu dela 2005etik hona egungo nerabeen biografian erakusten dute. Datu hauei dagokienez ez da emakume eta gizonen arteko diferentzia esanguratsurik topatu (Gómez, J.; Ortiz, M.J.; Eceiza A., 2013).

## 5.3. DROGEN ERABILERA

Drogen erabilerari dagokionez, Health Behaviour in School Children (HBSC) ikerketak 2014an EAEn eman zituen emaitzen arabera, **edaten hasteko batez besteko adina Euskadiko gazteen artean 13,6 urteetan kokatzen da (σ = 1,2) emakume eta gizonen artean ezberdintasunik antzematen ez delarik.** Gainera, jasotako datuen arabera alkohola edaten asteko adina geroz eta goiztiarragoa dela dirudi. Horrela, inkesta egiteko momentuan 17-18 urte zituztenek 14 urterekin probatu zuten alkohola lehen aldiz, 15-16 urte bitartean zutenek aldiz 13,1 urtetan kokatzen zutelarik alkohola lehenengo aldiz probatzeko adina.

Kontsumoaren maiztasunari dagokionez, 13-14 adin tartean kokatzen den %72ak hiru aldiz baino gutxiagotan edan du alkohola bere bizitzan eta sustantzia hau sarritan – 30 aldiz baino gehiago bere bizitzan zehar – kontsumitzen duen nerabe kopurua nahiko txikia da (%5) adin tarte honetan. Kasu honetan bai antzeman ditzakegu ezberdintasun nabarmenak neska eta mutilen artean, lehenengo kasuan %1,7ak bakarrik edan baitu alkohola 30 aldiz baino gehiago bere bizitzan, mutilen artean kopuru hau hirukoitza izanik (%8,2). Honek, argi uzten du **mutilak edaten hasten direnean sarriago egiten dutela neskek baino**. Hala ere, egoera hau guztiz aldatzen da gaztetxoek 15-16 urte betetzerakoan, ordurako lau gazteetatik batek alkohola 30 aldiz baino gehiagotan probatu duela bere bizitzan adierazten duelarik (25,5%) eta neska eta mutilen arteko desberdintasunak desagertuz ere; 17 eta 18 urte dutenen artean aldiz, alkoholaren nolabaiteko kontsumoaren normalizazio bat topatzen dugu, %56ak azken 30 egunetan behin edo bitan edan duelarik (35,7%) eta %20,3ak hiru edo bost alditan.

Gaztetxoek edaten duten maiztasuna ezagutzez gain alkoholaren gehiegizko kontsumo bat egiten duten ala ez argitzea garrantzitsua da. Ikerketa honen emaitzen arabera **mozkortzeak progresibotasun bat hartzen du nerabezaroan aurrera egin ahala**: horrela, 13 eta 14 urte dituztenen artean %11 mozkortu da noizbait bere bizitzan – batzuk, behin baino gehiagotan –, 15 eta 16 urte dutenen artean kopurua %36 da eta azkenik 17-18 adin tartean kokatzen den hamar gazteetatik zazpi mozkortu dira noizbait bere bizitzan zehar (%71), %23a egoera horretan hamar aldiz baino gehiago egon delarik. Dena den, datu hauek azken 30 egunetan egin duten kontsumora mugatzen baditugu dezente jaisten dira kopuruak eta honek ere agerian uzten du seguru asko gehiegizko kontsumoa jaiei eta horrelako salbuespen egoerei lotuta egon daitekeela kasu askotan. Horrela, 13 eta 14 urte dituztenen artean %1,4 bakarrik mozkortu da azken hilabetean, 15 eta 16 urte dutenen %14 egon da egoera horretan – behin, %9; bi edo hirutan, %3; 4-10 aldiz, %1,6 – eta berriro ere 17 eta 18 urte dituztenen artean egoera nabarmen hedatzen eta normalizatzen da, hamar gazteetatik hiru azken hilabetean behin edo gehiagotan mozkortu direlarik (%34,4).

Cannabis-a eta tabakoaren kontsumoari dagokionez, kontsumitzaileen kopurua alkoholaren kasuan baino askoz baxuagoa da orokorrean, nahiz eta bi sustantzia hauek ere nahiko hedatuta dauden gazteen artean, batez ere 15 urte baino gehiago dutenen artean. Gainera, aipatzekoa da tabakoak eta cannabis-ak nerabeen artean duten presentzia oso berdintsua dela aurreko hamarkadetan antzematen zen joerarekin haustura nabarmena suposatzen duelarik. Alde batetik, tabakoaren kontsumoa murriztu egin da eta egun, 13 eta 14 urteko %5ak, 15 eta 16 dutenen %18,2ak eta 17-18 adin tartean kokatzen diren %26,5ak erre dute behin baino gehiagotan azken hilabetean. Bestalde, **cannabis-aren kontsumoa geroz eta gehiago zabaldu da eta egun, tabakoaren antzeko kontsumo maila bat dagoela sumatzen da nerabeen artean**, gutxienez ohiko kontsumo bat egiten duten pertsonen artean. Datuek adierazten duten arabera, 15 eta 16 urte bitarte duten %15ak eta 17 eta 18 urte duten %25ak erre du cannabis-a azken 30 egunetan behin baino gehiagotan. Cannabis-a lehenengo aldiz probatzeko adinaren

batez bestekoari dagokionez, datuek gazteek 15 urte inguru dutenean probatzen dutela sustantzia hau lehenengo aldiz adierazten dute ($\sigma = 1,3$).

## 5.5. NERABEAK ETA BERAIEN INGURUNEA

Gazteen ingurunea nolakoa den eta horrekiko zer nolako harremanak mantentzen dituzten gazteek ezagutzea garrantzitsua da, oro har, gizabanakoaren eta bere ingurunearen arteko harremanak baitira garapen pertsonalerako eta ongizaterako oinarri nagusia. Horrela, atal honetan gazteek bere familiarekin, eskolarekin eta komunitatearekin mantentzen dituzten harremanak eta hauen ezaugarriak aztertuko ditugu.

Horretarako, bi iturri erabiliko ditugu nagusiki. Alde batetik, "Bienestar y desarrollo positivo adolescente desde una perspectiva de género: un estudio cualitativo" (Oliva et al., 2017) ikerketa, non 14 eta 17 urte bitarteko 48 nerabeekin egindako 8 talde eztabaiden bidez nerabeentzako familia arloan, eskola mailan eta bizi diren komunitatearen baitan bere zoriontasun eta ongizaterako garrantzitsuak diren ezaugarriak identifikatzen diren. Bigarrenez, datu horiek gure testuinguruan nola gauzatzen edo gorpuzten diren ezagutzeko Health Behaviour in School Children (HBSC) inkestan gai ezberdin hauen inguruan ematen diren datuak baliatuko ditugu Euskadi mailan gazte eta nerabeek bizi dituzten inguruneak bere garapenerako zer nolako onura eta kalteak izan ditzaketen ezagutzeko.

### 5.1. Familia harremanak

Gazte eta nerabeei bere familia idealak izan beharko lituzkeen ezaugarrien inguruan galdetzen zaienean honako hauek dira maizago aipatzen dituzten ezaugarriak (Oliva et al., 2017):

- Guraso eta seme alaben arteko komunikazio irekia dago
- Guraso eta seme alaben arteko harreman on eta atsegin bat ematen da
- Gurasoen sostengua eskuratu dezakete nerabeek behar ez gero
- Gurasoen gainbegiratze eta kontrol funtzioak betetzen dituzte gurasoek
- Maitasuna eta estimua adierazten dute gurasoek nerabeekiko
- Bere seme-alaba den nerabea onartzen dute gurasoek eta bere nortasun eta beharrei egokitzen dira
- Seme alabekiko kontrol eta gainbegiratze funtzioa, autonomia eta askatasuna ematearenarekin orekatuta dago gurasoek nerabearekin mantentzen duten harremanean
- Batasun familiarra dago

Aipatu beharrekoa da familia ereduez hitz egitean, familia nuklearraren ereduan (ama, aita eta seme-alabak) oinarritzen den azterketa egiten dela ikerketa gehienetan, eta nahiz eta gero eta ikerketa espezifiko gehiago egin beste familia eredu batzuen inguruan (homoparentalak, ama bakarrak, aiton-amonekin bizi direnak…), ez dugu aurkitu nerabetasunarekin gurutzatzen direnik. "Ama" eta "aita" terminoek errealitatearen parte bat ezkutatzen dutela kontziente izanda ere, termino hauek baliatuta hurbilduko gara nerabeek familiaren inguruan duten ikuspegiari.

Nerabeek bere familia harremanetan adierazten dituzten behar hauek zein neurritan asebetetzen diren gure testuinguruan aztertzerakoan, komunikazioaren erraztasunari

dagokionez egoera nahiko positibo batean bizi direla Euskadiko nerabeen gehienak erakusten dute datuek. Horrela, **adin-tarte guztietan hamar nerabeetatik zazpik gutxienez adierazten dute erraza edo oso erraza suertatzen zaiela bere amarekin benetan kezkatzen dieten gaien inguruan hitz egitea**. Erraztasun hau gainera handiagoa da adinak gora egin ahala: 17 eta 18 urte bitarte duten nerabeen %77k bere gurasoekin kezkatzen dizkieten gaiak hitz egitea erraza (%54,4) edo oso erraza (%22,6) egiten zaiela adierazten dute, 13 eta 14 urtekoen %70,2 eta 15 eta 16 urtekoen %72 alderatuta. Dena den, datu hauek nahiko baikorrak badira ere ez da ahaztu behar modu trinko batean eta adin-tarte guztietan, badagoela bere amarekin kezkatzen dizkieten gaien inguruan hitz egiteko zailtasunak dituzten nerabeak. Zehazki, adin-tartearen arabera hamar gazteetatik bik edo hiruk adierazten dute egoera honetan daudela – 11 eta 12 urte (%25,6); 13 eta 14 urte (%29,8); 15 eta 16 urte (%27,9) eta 17 eta 18 urte (%23,1) –. Galdera hau aitarekiko duten komunikazio erraztasuna aintzat hartuta erantzutea eskatzen denean, nerabeen gehiengoa oraindik ere komunikazio erraz edo oso erraz baten baitan kokatzen den arren, hamar puntu inguru hazten da komunikazio zailtasunak dituztela adierazten duten nerabe kopurua. Emaitza hauek oraindik ere familien baitan nolabaiteko genero espezializazio bat dagoela ama eta aiten artean nerabeekiko harremanak kudeatzeko orduan adierazten du, nahiz eta joera hau nabarmen gutxitu den azken urteotan eta egun ez diren lehen bezain ezberdintasun handiak sumatzen nerabeek amarekiko eta aitarekiko dituzten harremanetan.

Dena den, gurasoengandik jasotako maitasun adierazpenen inguruan galdetzen zaienean nerabeei oraindik ere agerikoak dira gizonezkoek eta emakumezkoek bere seme-alabekiko duten harremanean ematen diren ezberdintasunak. Horrela, gehienezko eta gutxienezko baloreetan kokatzen diren adin-tarteak kontutan hartuta, nerabeen %89,4 eta %76 bere ama haiekiko ia bete maitekorra dela adierazten dute, %78,1k eta %53,8k tartean bakarrik adierazten dutelarik gauza bere haien aitarekiko. Horrela, maitasun eta estimu adierazpenetan oraindik ere gizonek emakumeek baino askoz gutxiagotan ematen dietela bere seme-alabei horrelako tratua antzematen da. Dena de, esan beharrekoa da guraso biak nerabea triste sentitzen denean hura hobeto sentiarazteko duten gaitasunean ez dela hain alde handia antzematen, nahiz eta kasu honetan ere amek, aitekin alderatuta gaitasun handiagoa erakusten duten oraindik ere. Zehazki, gehienezko eta gutxienezko baloreetan kokatzen diren adin-tarteak kontutan hartuta, nerabeen %86,7 eta %62,6 artean esaten dute bere amak hobeto sentiarazten diela triste sentitzen direnean, bere aitarekiko hau adierazten duten nerabeen %79,9 eta %56,1-arekin alderatuta. Azkenik, **adinak gora egin ahala maitasun adierazpena eta nerabeak kontsolatzeko gurasoek duten gaitasunak behera egiten duela erakusten dute datuek, bai amaren zein aitaren kasuan ere**.

Azkenik, gurasoek bete beharreko kontrol eta gainbegiratze funtzioei dagokienez, amek aitek baino eginkizun handiagoa hartzen dutela bere gain eremu honetan ere erakusten dute datuek, batez ere 15 urtetatik aurrera. Amak dira hemen ere presenteago daudenak eta bere seme-alabek dituzten lagunen inguruan, bere denbora librean egiten dutenaz edota eskolatik kanpo egiten dituzten ekintzen inguruan ezagutza maila handiagoa dutenak. Ezagutza maila nahiko altua izanda eremu guzti hauetan, **nabarmena da, adibidez 13 eta 14 urte dutenen artean %28,5k adieraztea bere gurasoek gutxi edo ezer gutxi dakitela gauez ateratzen direnean egiten dutenaren inguruan** eta %22,7k gauez ateratzerakoan etxera bueltatzen direnean inoiz edo ia inoiz ez dutela bere amarekin hitz egiten egin dutenaren inguruan.

Diruaren kudeaketari dagokionez, interesgarria da ikustea 14 urtetik aurrera gai honen inguruan gurasoek duten ezagutza mailak behera egiten duela nabarmen eta ordutik aurrera gazteen herenak bere gurasoek gutxi edo ezer gutxi dakitela bere diruarekin egiten dutenaren

inguruan adierazten dute (%34,1). Azkenik, esanguratsua da **nerabeei modu zabal batean bere denbora librean egiten dutenaz bere gurasoek duten ezagutza maila zein den adieraztea eskatzen zaienean %30-40 inguru gutxi edo ezer gutxi dakitela adierazten dutela**. Kopuru hau adin txikiagoa dutenen artean gutxitzen bada ere, datuek 13 eta 14 urte bitarte dutenen %33,8k bere gurasoek gutxi (%26,4) edo ezer gutxi (%7,4) dakitela bere denbora librean egiten dutenaren inguruan adierazten dute. Nabarmentzekoa da alde handia dagoela adin honetan eta 11-12 urte dituztenean adierazten duten pertzepzioaren artean, non %21,9k bakarrik adierazten dute hori.

## 5.2. Eskolarekiko harremana

Nerabeei zer nolako eskola irudikatzen duten bere ikasketak burutu eta elkarbizitzarako toki ideal bezala galdetzen zaienean, honako erantzunak jasotzen dira (Oliva et al., 2017):

Ikasle arduratsuak dituen eskola bat, errespetuz jokatzen dutenak eskolako arau, zein baliabideekiko.

- Edukiak ondo azaltzen dituzten irakasleak.
- Ordutegi murriztua duen eskola bat. Nerabeek ikastetxean pasatzen dituzten orduez gain etxeko-lanak egin beharrak beste ekintza batzuk egiteko edo bere lagunekin egoteko denborarik gabe uzten dietela adierazten dute.
- Etxeko-lan gutxiago bidaltzen dituen eskola bat.
- Ikasleen artean gertatzen diren gatazketan bitartekaritza eta hizketan oinarritutako konponbideak bultzatu edo lortzeko gai diren irakasleak. Hau da, irakasteaz gain irakasleak beste gatazken konponbide baketsuak bideratzeko gaitasuna izan behar dute eta horretarako trebatu behar zaie ere bai.
- Jazarpen edo eraso bat salatzeko orduan ikasleen segurtasuna bermatzen duen eskola bat.
- Ikasleen artean gauzatzen diren jazarpen egoerak edo erasoak identifikatzeko gai diren eta horien prebentzio eta kudeaketan inplikatzen diren irakasleak.
- Ikasleen eta irakasleen arteko komunikazio ireki bat ematea ahalbidetzen duen eskola bat. Hau da, ikasleria eta irakasleriaren arteko komunikazioa bermatzen duten bide eta espazio egonkorrak sortzea, non nerabeek bere ezinegon, iritzi eta emozioak adierazi ditzaketen eta helduek aktiboki entzuten dieten bere hitzari erreparatuz eta horren aurrean neurri zehatzak hartuz.
- Enpatia duten irakasleak; bere ikasleen tokian jartzen direnak.

Lehenik eta behin nabarmentzekoa da nerabeentzat eskolaren baitan garrantzitsuak diren **dimentsio askok ez dutela ikasgai, eduki edo ezagutzarekin lotura zuzenik, baizik eta norberaren eta taldearen espresioari – entzunak izan eta bere hitza esan – zein harremanen kudeaketari egiten diete erreferentzia**. Honek, nerabeek ez dutela eskolatik ezagutza besterik behar, eta ez dutela hori bakarrik espero ere, argi eta garbi erakusten du. Dena den, askotan egunerokotasunaren baitan galtzen diren hezkuntzaren beste dimentsio guzti hauek lantzearen zailtasunak ezagunak dira ere. Denbora falta, irakasleen formazio eza, ikasleen ohitura falta, guztiak dira ikastetxeetan elkarbizitza eta garapen pertsonala bultzatzeko orduan

oztopo. Jarraian, Euskadin bizi diren nerabeek haien eskola eta institutuekiko duten harremana eta bertan bizi dituzten esperientzia eta egoerei hurbiltzen saiatuko gara.

Lehenik eta behin, nerabeei eskola edo institutua gustuko duten galdetzen zaienean, orokorrean, ez zaiela gehiegi gustatzen erakusten dute datuek. Gainera, haurtzaroaren amaieran eta nerabezaroa hasten denean bizi dituzten egoerak guztiz kontrajarriak direla erakusten dute datuek: 11 eta 12 urte dituzten hamar ikasleetatik zortzik (%81,5) eskola asko gustatzen zaiela (%39,9) edo pixka bat gustatzen zaiela esaten dute (%41,6), 13 eta 14 urte duten nerabeen artean kopuru hauek askoz baxuagoak izanik, %53,6, %12 eta %41,6 hurrenez urren. Gainera joera hau nerabezaro osoan zehar mantentzen dela adierazten dute datuek eta eskola gustuko ez duten nerabeen kopuruak gora egiten du, nahiz eta gutxi, adinak gora egin ahala.

Honek, argi eta garbi erakusten du **lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzara igarobidean ematen diren hainbat aldaketek (metodologia, eskola giroa, etab.) nerabeen erdia institututik eta hezkuntza sistematik aldenduta sentiarazten** dituela, kanporatzen ez baditu ere. Gai hauetatik, ondorengo hausnarketak eratorri daiteke: nerabeek horren beste ordu pasatzen dituzten hezkuntza erakunde eta sistemaren berformulazio bat abiatzeko beharra, ez baitirudi hauetako askoren behar eta interesei egokitzen denik. Bestetik, eta txosten honen helburuarekiko are interesgarriagoa dena, nerabeekin egindako edozein esku-hartzek kontutan eduki beharko luke eskolak nerabeen bizitzetan paper zentral bat izan arren, nerabe askorentzako ez dela motibazio iturri garrantzitsu bat.

Ikastetxeetan ematen diren harremanak aztertu baino lehen, etxeko-lanek eta orokorrean edukien aldetik nerabeei exijitzen zaien maila edo lan karga nola bizi duten jakitea interesgarria da, batez ere horrek bere biziko garrantzia izan dezakeelako gazteek eskola eta hezkuntzaren inguruan duten bizipenean. Aldagai hau aztertzerakoan, **13 urte baino gehiago duten lau nerabeetatik batek gutxienez gaizki bizi duela eskolak exijitzen zaion lan karga** erakusten dute datuek. Gainera, esanguratsua da hau horrela bizi duen nerabe kopurua adin altuagokoen eta txikiagokoen artean antzekoa izatea, 13 eta 14 urteko nerabeen %26,9k eskolako lanak asko kezkatzen diola adieraziz 17 eta 18 urte bitartekoen artean dagoen kopurua baino sei puntu gutxiago bakarrik (%32,9). Guztira, etxeko lanak eta eskolako lan kargak gaizki bizi dituztenak eta pixka bat kezkatuta daudenak batzen baditugu, hamar ikasleetatik sei edo zazpi egoera honetan daudela ikusi daiteke adin-tarte guztietan. Datu hauek Estatu mailan ematen direnekin alderatu ez gero, Euskadin etxeko-lan zama gehiegizkoa dela uste duten nerabeak gehiago direla ikusi daiteke, nahiz eta Espainia hirugarren postuan kokatzen den adierazle honekiko Europako beste herrialde batzuekin alderatuta. Estatu mailan **nesken %55k eta mutilen %53k etxeko lanek kezka pixka bat edo kezka handia sortzen dietela adierazten dute, Holandan, Frantzian edo Alemanian, adibidez, hamar nerabeetatik hiruk bakarrik hau diotelarik**.

Eskola eremuan ematen diren harremanei dagokienez, ikasle eta irakasleen artean ematen direnak eta baita ere ikasleen artean ematen direnak ere aztertuko dira. Lehenengo kasuan hiru adierazlek ahalbidetzen dute errealitate hori ezagutzea: nerabeek bere irakasleengan duten konfiantza maila, nerabeek irakasleek beraiekiko duten onarpen mailaren pertzepzioa eta haiekiko duten kezka eta arduraren pertzepzioa.

Lehenengo aldagaiari dagokionez, nabaria da adinak gora egin ahala nerabeek bere irakasleengan duten konfiantza mailak behera egiten duela. Horrela, 11 eta 12 urte duten nerabeen artean erdiak baino gehiago oso ados ageri da bere irakasleekiko konfiantza maila altu bat duela baieztapenaren aurrean (%50,9), 17 eta 18 urteko %3,5k bakarrik hori

adierazten dutelarik. Dena den, baieztapen honekin ados daudenak ere barnebiltzen baditugu 17-18 adin-tartean hamar ikasleetatik bik konfiantza handia edo oso handia dutela bere irakasleekin adierazten dute, 13 eta 14 urte duten nerabeen %41a eta 15 eta 16 urte bitarte duten %34arekin alderatuta. Horrela, datu hauek garbi adierazten dute **nerabezaroan aurrera egin ahala gazteen artean helduekiko ematen den emantzipazio prozesua, hauek geroz eta urrunago ikusita eta haiekiko konfiantza pixkanaka galtzen joanda**. Genero aldetik ez da desberdintasunik antzematen adierazle honen inguruan, ezta ere ikuspegi sozioekonomiko batetatik.

Irakasleek nerabeak nola tratatzen dituzten inguruan, pertzepzioa orokorrean ona dela erakusten dute datuek eta gure hezkuntza sisteman ikasleekiko errespetu maila altua eta tratu on bat dagoela irakasleen aldetik ikusi daiteke. Horrela, **adin-tarte guztietan kokatzen diren nerabeen gehiengo handi batek bere irakasleek diren bezala onartzen dituztela uste dute eta %10-11k adierazten dute ez direla diren bezala onartuak sentitzen**. Dena den, harreman estuagoez hitz egiterakoan, hau da, irakasleek ikasketa edo klaseko portaeratik harago nerabeekiko adierazten duten kezka edo ardurari dagokionez, alde handia dago gaztetxoen eta helduago direnen artean. 11 eta 12 urteko nerabeen artean, adibidez, lautik hiruk (%75,7) bere irakasleek haiek pertsona bezala dituzten arazoez arduratzen direla sentitzen duten bitartean – batzuk neurri batean (%32,2) beste batzuk guztiz (%43,5) –, 15 eta 16 urte dituztenen artean berriz %53,6k bakarrik sentitzen dute hori, kopurua are baxuagoa izanik 17 eta 18 urte bitarte dutenen artean. Honek, nerabezaroan zehar irakasleekiko gauzatzen den aldentze prozesua, helduen munduarekiko gertatzen denaren isla dena hein handi batean, agerian uzten du, baina aldi berean ikastetxeetan irakasle eta ikasleen arteko harremanak bultzatu eta hauek babes eta laguntasun handiagokoak izan dadin bermatzeko neurri edo espazio gehiago sortu eta bultzatu behar direla ere erakusten du.

Ikasleen arteko harremanei dagokionez, datuek orokorrean harreman eta giro ona direla nagusi gure lurraldeko ikastetxeetan erakusten dute. **Adin tarte guztietako nerabeen %80ak gutxienez bere klaseko kideak elkarrekin ondo pasatzen dutela, elkarren artean atseginak direla eta elkar laguntzen dutela diote**. Dena den, berdinen arteko tratu txarrek edo bullying-ak dituen ondorio zaurgarriak kontutan hartuta beharrezkoa da kasu gutxietan ematen diren egoerak badira ere hauek detektatzea eta horiek prebenitzeko neurriak ezartzea, bai ikastetxeetan, zein familietan eta komunitate mailan ere bai. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak ateratako azken datuen arabera, 2016-2017 ikasturtean Euskadin 86 eskola-jazarpen kasu identifikatu ziren, 443 salaketa jarri baziren ere. Hau da, hamar kasuetatik bitan (%19,4) salatutako egoera frogatutzat eman zen ikuskaritzaren aldetik espediente bat ireki eta ikerketa abiatu ostean. Dena den, hainbat ikerketek agerian uzten dutenez, arazoaren hedapena salaketena baino altuagoa da eta are gehiago egoera puntualetan bere eskola kideengandik erasoren bat jasaten duten nerabe kopurua. Horregatik, jarraian ikerketa espezifikoek gai honen inguruan jaso dituzten datuak aztertuko dira.

Euskadin 2009an gauzatutako ikerketa baten arabera (Martinez eta Ubieta, 2005), E**uskadiko ikasleen %3,7k *bullying*-a**[2] **jasango luke, DBH 1 eta 2-ko ikasleak eta errepikatzaileak izanda egoera hau sarriago jasaten dutenak**: zehazki, 1. mailako ikasleen %5,5ak eta 2. mailako %4,3ak tratu txarrak jasan dituztela adierazten dute. Generoari dagokionez ere desberdintasunak antzematen dira eta mutilak dira egoera hauen aurrean zaurgarritasun

[2] *Bullying* kontzeptuak definizio ezberdinak izan ditzake. Kasu honetan azken astean zehar behin baino gehiagotan hurrengo egoerak jasan dituen ikasle kopurua aintzat hartu da: ostikoak eman, jipoi bat emango zidatenarekin mehatxatua izatea, min egiten saiatu, nirea zen zerbait apurtzen saiatzea, jotzen saiatzea.

handiagoa erakusten dutenak: mutilen %4,6k adierazten dute beste ikasleengandik tratu txarrak jaso dituztela, nesken %2,6-arekin alderatuta. Azkenik, udalerri txikietan egoera hauek gutxiago ematen direla erakusten dute datuek: 15.000 biztanle baino gutxiago duten herrietan nerabeen %2,7k bakarrik adierazten dute *bullying* egoera bat bizi dutela, udalerri ertain edo handiagoetan bizi diren nerabeekin alderatuta, zeinetan nerabeen %4,3k eta %4k jasaten dituzten jazarpen egoerak.

Datu hauek beste iturri batzuekin kontrastatzean kopuruak nahiko antzekoak direla ikusten da. Horrela, *Health Behaviour in School Children* (HBSC) ikerketaren emaitzen arabera ere bai %3 inguru kokatzen da astean behin edo gehiagotan erasotua izan den nerabeen kopurua. Dena den, inkesta honek ere maiztasun txikiago batekin gauzatzen diren biolentzia egoerak identifikatzen ditu, azken bi hilabeteetan noizbait jazarpen egoera bat bizi izan duen nerabe kopurua zenbatuz. Honek, biktimen kopurua laukoiztu dadin eragiten du (%12,2), azken bi hilabetetan behin edo bitan erasotua izan den gazte kopurua %7,6 izanik eta hilabetean bitan edo hirutan egoera hauek jasan dituenak aldiz, %3,3. Generoa, adina eta udalerrien tamainari lotutako desberdintasunak ere berresten ditu informazio iturri honek, datuen fidagarritasuna handituz beraz.

Erasotzaileen profilari dagokionez, mutilak ere nagusi dira hemen eta orokorrean jazarpen egoerak gauzatzen dituztenak ez dira norbanakoak, taldeak baizik: biktimen %45k bere erasotzailea mutil talde bat dela adierazten du, %17k neska talde bat eta beste %17k mutil bakar bat dela dio. Hortaz, mutilak dira hamar kasuetatik seietan *bullying* egoerak sortu eta mantentzen dituztenak, neskak berriz hamar kasuetatik bitan baino gutxiagotan erasotzaile bezala inplikatuta egoten direlarik (Martinez eta Ubieta, 2005).

*Bullying* egoerak batik bat adin berdina duten nerabeen artean gauzatzen dira, datuek berresten duten errealitate bat izanda: jazarpen egoera bat sufritzen duen **nerabeen %60k bere gela berdinean dagoen norbaitek erasotzen duela adierazten du eta %16k bere gelan ez dagoen baina bere kurtso berdinekoa den norbait dela dio**. Azkenik, pertsona helduago batengandik jasotzen dituela erasoak aitortzen duen nerabe kopurua %10ekoa da (Martinez eta Ubieta, 2005). Bestalde, ikastetxeetan ematen diren biolentzia egoera puntualagoei ere garrantzia emateko asmoz, azken bi hilabetetan behin edo bitan beste ikaskide bati egindako erasoren batean parte hartu duen nerabe kopurua handiagoa dela nabarmentzea komeni da: 11 eta 12 urte duten nerabeen %15,4k eta 17 eta 18 urte dutenen %6,2k adierazten dute hori, kopuruak behera egiten duelarik adinak gora egin ahala.

Beste ikaskide bati egindako eraso baten lekuko izateari dagokionez, **nerabeen erdiak baino gehiagok beste pertsona bat nola iraintzen zuten (%55,2), ezizen laidogarri bat jartzen zioten (%49,39) edota berari buruz gaizki hitz egiten zuten beste gelakideen aurrean (%49,3) ikusi du**. Eraso mota egozgarriagoa den heinean, lekukoen kopuruak bera egiten du baina oraindik ere norbait nola jotzen zuten (%19,4), mehatxatzen zuten (%20,2) edo bere gauzak lapurtzen (%12,8) edo apurtzen zizkioten (%9,5) ikusi duen nerabe kopurua nahiko altua da. Ikerketa honen datuen arabera hauek dira *bullying* egoeretan ohikoenak diren eraso motak alegia (Martinez eta Ubieta, 2005).

Azkenik, eskolak eta irakasleek *bullying* egoeren aurrean hartu beharreko neurriei dagokienez aipatu beharrekoa da, erasoen herena baino gehiago klasean gertatzen dela (%36) eta %25ak patio garaian gertatzen direla. Honek, irakasleak orokorrean presente dauden espazioetan ematen direla horrelako egoerak eta beraz hauek prebenitu eta detektatzeko orduan irakasleak eragile klabeak direla. Zentzu honetan, **aipagarria da oso kasu gutxietan kontatzen dietela nerabeek irakasleei *bullying* egoerak bizi dituztela. Hamar nerabeetatik batek bakarrik kontatzen erabakitzen du egoera hau bere irakasleren batekin partekatzea (%10) eta gehiengoak bere lagunak (%43,1) edo bere familia (%35,3) aukeratzen ditu.** Nahiz eta gertuko dituzten pertsonak izatea nerabeek gehien jotzen dutenengana harrigarria da irakasleek egoera hauen aurrean esku-hartzeko duten gaitasunarekin horren salaketa eta laguntza eskaera gutxi jasotzea. Zentzu honetan irakasleek ikasleen arteko erasoak ikusten dituztenean hartzen duten jarrera erabakigarria izan daiteke. Ikerketa honen datuen arabera, hamar gaztetatik bik irakasleek ez dutela jazarpen egoeren aurrean ezer egiten uste du, batez ere gauzatzen ari dela jabetzen ez direlako (%20). Norbait zigortzea ere joera nahiko arrunta dela irakasleen artean antzematen dute datuek (%25) eta hamar gaztetatik hiruk irakasleek egoera horien aurrean zer egiten duten ez dakiela aitortzen du (%30). Datu hauek oso errealitate bortitza mahaigaineratzen dute eta irakasleriak eta ikastetxeek oraindik ere *bullying* egoerak prebenitzeko eta identifikatzeko orduan duten inplikazio eskasa agerian uzten dute.

### 5.3. Komunitatearekiko harremanak

Auzo eta herriek zer nolako ezaugarriak eduki behar dituzten nerabeen ongizatea bermatzeko galdetzen zaienean nerabeei beraiek emandako erantzunak horrela laburbildu daitezke (Oliva et al., 2017):

- Bizilagunen artean harreman onak dituen auzoa edo herria.
- Bizilagunen artean errespetua eta begirunea daude auzoan edo herrian.
- Norberaren askatasuna eta intimitatea, komunitateak gauzatzen duen kontrol funtzioarekiko oreka bat dauka. Hau da, bere familiakoak ez diren helduek ez dute nerabeen bizitzan gehiegizko kontrol bat.
- Herria edo auzoa segurua da eta nerabeak bakarrik ibili daitezke herri edo auzoan zehar heldu baten presentzia beharrezkoa izan gabe.
- **Aisialdirako espazio eta baliabide anitzak daude. Nerabeek batez ere parkeak eta kirol guneak identifikatzen dituzte garrantzitsu bezala, baina arropa dendak eta beste kontsumo espazioak ere aipatzen dira.**
- Auzoak edo herriak garraiobide eta komunikabide onak ditu hiriko beste zonaldeekin edota beste herri eta hiriekin konektatzeko. Nerabeentzat garrantzitsua da mugitzeko askatasuna izan eta aisialdi aukera gehiago dituzten eremuetara mugitu ahal izatea.

Zaila bada ere aurreko zerrendan aipatzen diren ezaugarri batzuen inguruko datuak biltzea eta batez ere nerabeak bizi diren testuinguru eta komunitateen xehetasun eta ñabardurak igartzea, atal honetan iturri desberdinetatik jaso diren gai honen inguruko datuak aurkezten dira.

Lehenik eta behin komunitate berdinean bizi diren pertsonen arteko harremanei dagokienez, Euskadiko **nerabeek orokorrean gertutasuna eta jendearen arteko konfiantza maila altua dela antzematen dute bere komunitateetan eta eroso sentitzen dira ere bere bizilagunei mesede bat eskatzerako orduan** (HBSC, 2014). Kasu guztietan hamar gaztetik batek edo gutxiagok adierazten dute ez daudela baieztapen hauekin ados. Dena den, adinari erreparatzen zaionean antzematen da **13 eta 14 urteko nerabeen artean badagoela komunitatearekiko urruntasun maila handiago** bat beste adinetako nerabeekin alderatuta. Horrela, 13 eta 14 urte bitarte duten nerabeen %8,2k ez du uste bere komunitatean bizi diren pertsonek normalean elkar agurtzen dutenik ezta elkarri hitz egiten diotela kalean topatzen direnean ere ez, beste adinetan kopuru hau nabarmen baxuagoa izanik: 15-16 urte duten nerabeen %1,8k eta 17 eta 18 urte bitarte dutenen %2k bakarrik adierazten dute hori.

Gauza bera antzematen da bere komunitatean bizi diren pertsonengan fido ez diren nerabeen artean. Gutxi badira ere, gehiago dira 13 eta 14 urte bitarte duten nerabeengan (%12,5) eta kopuru hau beste adin-tarteetan topatzen dugunarekin konparatuta altuagoa dela erakusten dute datuek. Zehazki, 15 eta 16 urte duten nerabeen %8k eta 17 eta 18 urte bitarte dutenen %4,2k egiten dute bat adierazpen horrekin. Azkenik, bere bizilagunei mesederik ezin liezaiokeela eskatu uste du 13 edo 14 urteko nerabeen %13,5k, 15-16 adin tartean kokatzen direnen %8-arekin alderatuta eta 17 eta 18 urte bitarte duten %5,7-arekin konparatuz.

Azkenik, badago harreman komunitarioak baloratzeko orduan garrantzitsua den beste adierazle bat: gatazka soziala, alegia. Kasu honetan ere Euskadin bizi diren nerabeen gehiengoak bere komunitateetan arrazoi kultural, etniko, razial edo erlijiosoetan oinarritutako gatazka sozialik ez dagoela adierazten du (%64,7). Dena den, lau gazteetatik batek gutxienez bere komunitatean aldagai hauekin lotuta dauden egoera deseroso eta gatazkatsuak ematen direla adierazten du eta %8,2k horrelakoak sarritan ematen direla adierazten dute. Kasu honetan ere 13 eta 14 urte duten nerabeen artean tentsio edo gatazka hauen pertzepzio maila altuagoa dela erakusten dute datuek, adin tarte honetan kokatzen den hamar gatetatik batek baino gehiagok (%11,1) adierazten baitu bere bizi den komunitatearen baitan egoera horiek sarri ematen direla, 15 eta 16 urte duten nerabeen %9,1 eta 17 eta 18 urte dutenen %5,4-arekin alderatuta.

Horrela, bere komunitatearen baitan dauden harremanen inguruko balorazioa kasu guztietan negatiboagoa dela ikus daiteke 13 eta 14 urte duten nerabeengan, pertzepzio hauek hobera egiten dutelarik nerabeen adinak gora egin ahala.

## 5.4. Gizartearekiko harremana

Nerabeek gai politikoetan duten interes mailari dagokionez, politika oso edo nahiko garrantzitsua dela uste duten 12 urteko eta gehiagoko eskola mailako populazioaren proportzioa %30 dela erakusten dute datuek, mutilen artean ehunekoa zertxobait altuagoa izanik (%35) (Ede Fundazioa, 2017).

Datu hauek Gazteen Euskal Behatokiak eskaintzen dituenekin bat datoz eta kasu honetan 15-17 urte bitarteko hamar gaztetatik batek (9%) gai hauek oso garrantzitsuak direla adierazten du eta hamarretatik bik garrantzitsuak bakarrik direla uste du (%20). Nabarmentzekoa da baina **nerabeen gehiengoak ez duela politikan inolako interesik (38%) edo interes gutxi (%29) azaltzen duela.**

Datu hauek helduagoak diren gazteenekin alderatuz gero politikarekiko interesak gora egiten duela gaztaroan zehar erakusten dute datuek. Horrela, 18 eta 21 urte dutenen artean adibidez

%37 dira gai politikoen inguruan interesa dutela adierazten dutenak eta 22 eta 25 urtekoen artean kopuru hau are handiagoa da eta adin tarte honetan kokatzen den gazteen ia erdia barnebiltzen du (%47). **Nerabeak populazio orokorrarekin alderatuz gero, hau da, 18 urte baino gehiago dituen Euskadiko populazioarekin, politikarekiko duten interes maila berdina dela erakusten dute datuek,** helduen artean ere hamarretatik hiruk besterik ez baitute politikan interes bizia erakusten (30%). Datu hauek nerabeen despolitizazioaren inguruan dagoen mito edo iritzi faltsua desegiten laguntzen dute, nerabeen artean gizarte mailan dagoen politikarekiko interes berdina aurkitzen baitugu.

Azkenik, datuen eboluzioari erreparatuz gero, nerabeek gai politikoen inguruan duten interesak nabarmen gora egin duela azken urteotan erakusten dute datuek: 2012an 15 eta 17 urte zuten gazteen %17k bakarrik adierazi zuten gai politikoetan interesa zutenik, 2016an horrela adierazi zuen %29arekin alderatuta.

**Gizartea nolabait eraldatzearen alde agertzen den 15 eta 19 urte bitarte duen gazte kopurua oso altua da, %6k bakarrik uste dutelarik dagoen moduan gelditu beharko litzatekeela.** Dena den, ñabardurak erakusten dituzte nerabeek aldaketa hauen norabide eta sakontasunaren inguruan. Horrela, nerabeen %16k gizartea guztiz eraldatu behar dela uste du, %38k aldaketa sakonak egin behar direla baina logika berdinaren baitan mantendu daitekeela uste du eta azkenik %37k erreforma txikiak egiteko beharra irudikatzen du. Datu hauek nerabeengan bere ingurua eraldatzeko gaitasun eta interes handia dagoela erakusten dute, nahiz eta gero kasu gehienetan uste hau ez den ekintzetan eta parte hartze politiko batean gauzatzen.

Zentzu honetan adierazgarria da Euskadin bizi diren 15 eta 19 urte bitarteko gazteen %44k gai publikoetan gehiago parte hartu nahiko lukeela baina aldi berean %43k ezezkoa erantzuten diote galdera honi, gai honen inguruan polarizazio handia dagoela gazteen artean antzematen delarik. Gainera intentzio hauek gizarte edo gazte mugimenduetan parte hartze erreal bat duen nerabeen kopuruarekin alderatzen denean kopuruak are baxuagoak dira. 2011ko datuek 12 urteko eta gehiagoko eskola populazioaren %14,7 gazte elkarte eta gizarte-mugimenduetan parte harten dutela hilean behin gutxienez adierazten dute eta ehuneko horrek zertxobait gora egin duela aurreko lau urterekin alderatuta erakusten dute (% 10,6)(Ede Fundazioa, 2017).

Dena den, liteke arazoa ez izatea bakarrik gazteen parte-hartzerako borondate edo nahi falta, baizik eta egun beraiek gizarte gaietan parte hartzeko dauden espazio eta bideen desegokitasuna. Horrela, 2015ean Euskadin 13 udalerriek bakarrik zutela Haur eta nerabeentzako parte-hartze foro edo kontseiluren bat erakusten dute datuek. Hau da, EAEn dauden udalerrien %5,4a bakarrik (Ede Fundazioa, 2017).

# 6. ARETXABALETA ETA ESKORIATZAN SAKONDUZ: NOLA BIZI DUTE NERABETASUNA ETA AISIALDIA?

Atal honetan landa lanean eta nerabeekin egindako saioetan jasotako emaitzak azaltzen dira. Helburu nagusia **Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeek haien nerabetasuna nola bizi duten eta aisialdiaren inguruan duten ikuspegia ulertzea** izan dira. Azalpen metodologikoaren atalean azaldu dugun moduan, nerabeekin egindako saioetatik ateratako informazioaren analisian oinarritzen dira nagusiki emaitza hauek. Alegia, nerabeek ariketa desberdinen bitartez esan, idatzi eta keinuz espresatu dutena aztertu dugu eta proiektu honen helburuetako balio duten ondorioak atera ditugu. Gainera, testuinguru zabalagoa aintzat hartzeko intentzioarekin, aurreko atalean azaltzen diren datu orokor batzuez ere baliatu gara.

**Lehendabiziko atalean, nerabezarotasunaren hurbilpen bat** egiten da: zer da nerabeentzat bizi diren fase hau? Nola sentitzen dira? Zein mugarri daude haien nagusi egite prozesuan? Gure abiapuntuko oinarrian, nerabetasuna trantsizio fase moduan ulertzen genuen, haurtzarotik heldutasunera pasatuz, nerabeak ez-leku batean kokatzen dituena. Nerabeen bizipenak eta esperientziak marko honetatik aztertu ditugu, eta hausnarketa partekatu oso aberatsak eta ondorio interesgarriak atera dira.

Bigarren atalean, **nerabeen aisialdian jarri dugu arreta. Zer egiten dute? Zer gustatuko litzaieke egitea? Non eta norekin pasatzen dute aisialdia?** Galdera guzti hauek bi herrietarako nerabeen aisialdi gogo eta ohituren inguruko informazio osotua eman digute, eta haiengan, gai honi buruz eztabaidatzeko gogoa piztu dute.

Hirugarren gai moduan, **nerabeen harreman sarearen gaiari heldu diogu, zentzu zabalean**: haien arteko harremanak, gurasoekin eta helduekin. Nerabeak bizi diren ekosistema horren berri jaso dugu, eta etorkizunera begira, gazte politikak bideratzeko orduan kontuan ateratzeko elementu interesgarriak azaldu dira.

Azkenik, drogen kontsumoaren gaia landu da. Gai garrantzitsu bezain korapilatsua da, eta atal berezitu bat egitea erabaki dugu. **Nerabeekin haien kontsumo ohiturak eta drogen inguruan duten iritzia landu ditugu**, eta atal honetan, eduki nagusiak barnebildu ditugu.

Atal bakoitzaren hasieran, atal horren inguruko kokapen bat egiten da, eta ondoren, gai hori lantzeko erabilitako metodologia konkretua azaltzen da. Azken finean, gai bakoitza oso era desberdinean landu dugu, eta horregatik, jasotako informazioa eta ateratako ondorioak era desberdinean aurkezten dira.

## 6.1. NERABEZAROA IGAROTZE PROZESU MODUAN

Nerabezaroaren kokapen teorikoa egitean, trantsizio fase moduan definitu dugu, haur eta gaztetasun-heldutasunaren artean kokatzen dena. **Nerabeak ez dira ume sentitzen, eta kategoria honi uko egiteko beharra sentitzen dute, baina aldi berean, oraindik ez dira sozialki eta legalki nagusi kontsideratzen**, ezta subjektu oso moduan ere ez.

Trantsizio fase hau prozesu bat da, eta horrela bizi dute nerabeek. Haien identitate eta espazio propioaren bilaketa batean murgiltzen dira, eta harreman, jokamolde eta ingurune berriak

aurkitu eta definitzeko beharra sentitzen dute. Prozesu honetan komunean dituzten elementu asko azaltzen dira, baina beste alderdi batzuetan, oso ibilbide pertsonal desberdinak bizi dituzte, eta erritmo desberdinetan gorpuzten dituzte aldaketak. Genero aldetik ere, desberdintasunak ageri dira nerabetasuna bizitzeko moduan, etorkizuneko emakume eta gizonak eraikitzeko egingo dituzten bideak definituz baitoaz.

**Haurtzarotik heldutasunerako igarobide honetan, mugarri klabe batzuk agertzen dira, "igarobide erituak"** deitu dizkiogunak. Erritu hauek nagusi egiteko prozesuan urrats ikusgarriak lirateke, nerabeak berak eta bere inguruneak eraldaketaren kontzientzia hartzen laguntzen dutenak. Garai eta kultura bakoitzean "igarobide erritu" desberdinak egongo dira, eta hauek identifikatzea oso lagungarria da testuinguru horretako nerabeak ulertu ahal izateko.

Igarobide erritu hauek ezagutu eta nerabeekin honen inguruan hausnartzeko, eztabaida saioan ondorengo dinamika egin genuen: **haien bizitzan "nagusi" sentitu ziren momentu bat gogoratzeko** eskatu genien, eta idatzi edo marraztu zezatela. DBH 1. ziklokoek, marrazteko joera gehiago izan zuten, eta DBH 2. ziklokoek, idatzi egin zituzten. Ondoren, pertsona bakoitzak bere bizipenak taldean konpartitu zituen eta beraien arteko antzekotasunak, zehaztasunak, desberdintasunak, azaldu zituzten. Gogoeta oso aberasgarriak piztu ziren, eta hari horietatik tiraka, Eskoriatza eta Aretxabaletako egungo nerabeengan igarotze erituak nola bizi dituzten ulertzeko aukera izan dugu.

Ondorengo lerroetan nerabetasuna nola bizi duten ulertzeko gako hauek azaltzen dira, bi ataletan bereizita. Lehendabizikoan, prozesuaren izaera deskribatu dugu, nerabetasuna era globalean ulertu ahal izateko. Eta bigarren atalean, igarotze erritu hauei lotutako gakoak azaltzen dira, era konkretuago batean nola gorpuzten den ikusteko.

### 6.1.1. Igarotzearen hiru faseak: haustura, tartea eta sarbidea

Marko teorikoan aipatu dugun moduan, gaur egun nerabetasuna lausotu eta denboran dilatatu dela esan daiteke, autore batzuek 11 urtetatik 21 urteraino kokatzen dutelarik. Diagnostiko honetarako, ordea, nerabetasuna 12 eta 16 urte bitartean kokatu dugu, eta beraz, igarotze fasean ematen diren ezaugarriak adin-tarte hauei lotuta aztertu ditugu.

Nerabetasuna, igarotze erritu moduan nola materializatzen den ulertzeko, bere baitan dauden hiru faseak bereizi ditugu, eta Aretxabaleta eta Eskoriatzako gazteekin, nola gorpuzten diren aztertu.

Lehendabiziko fasea, haustura edo urruntze fasea litzateke. **DBH 1. zikloan dauden nerabeen kasuan, haurtzaroarekiko haustura argi bat antzematen** hasten da: ume izandakoaren ukazio bat bizi dute, baina oraindik ez dira eremu sozial berri batean kokatzen. Neurri batean, fase berri baten abiapuntuan bizi dira, baina fase hori definitu eta konkretatu gabe dago haientzat: bide baten hasiera besterik ez da.

> *"13 urte eukitzea da que tengo toda la vida por delante" (DBH 1. zikloa, nesken taldea)*

Haustura honen elementu zentrala **jolasarekiko distantziamendu** bat da. Batzuek jolasteko gogo gutxiago dute, eta beste batzuek jolasteko gogoa dutela onartzen dute, baina lotsa sentitzen dute, ume ez direla sozialki erakutsi beharragatik. Jolasetik urruntzeak ez dakar zuzenean beste aktibitate batzuekiko atxikimendua, eta batzuk aspertu egiten direla onartzen

dute, ez dakitela zer egin. Argi gelditzen da, beraz, nerabetasunean murgiltzeak dakarren ez-leku izaera eta galduta egotearen sentsazioa.

Bigarren fase moduan, tarteko fasea edo **muga egoera legoke, non nerabeak argi dakiten ez daudela ez haurtzaroan ez gaztaroan**. Trantsizio fase bat da, ez-leku izaera duena. Nerabetasun osoan ematen da, eta bakoitzak bere erara bizi duen arren, ezegonkortasun eta zehazgabetasun handiko garaia izaten da.

> *"Netzako gaztea izatea da ez da txikixa baina ezta zara haundixa ta batzutan dala diferente moduan … ez dala ez naguxia ez txikia (…) gauza batzuk ahal ditugu egin eta beste batzuk ez (…)" (DBH 1. zikloa, nesken taldea)*

Fase honetan, gaztetasunerako eta mundu heldurako prestatzen ari direla sentitzen dute, pertsona moduan eraikitzen. Prozesu honetan aurreratzeko eta gaztetasunera gerturatzeko **oso garrantzitsua da haien autonomiaren garapena**; izan ere, nerabeak askatasun eta autonomia kuota gehiago lortzeko etengabeko saiakera batean murgiltzen dira. Hurrengo atalean azaltzen diren mugarriak ere norabide honetan doaz.

**DBH 2. zikloko taldeetan nerabezaroan egotearen kontzientzia argiagoa** ageri da, errazago identifikatzen dituzte garai honetako ezaugarriak, eta hortik identitate kolektiboa eraikitzeko gai dira. Badirudi mutilek errazago sortzen dituztela beraien buruak definitzeko diskurtso hauek neskek baino. Nesken kasuan, esanguratsua da beraien buruarekiko irudiak hartzen duen garrantzia, eta janzkera eta estetikak hartzen duen lekua.

> *"Ba esaten dute garela super flipauta… Beste batzuk subiditos… Gure artien ikusten dezu que batzuk van muy de subiditos " (DBH 2.zikloa, nesken taldea)*

> *"Dauket 16 urte eta neretzako da eukitzea pues una edad un poco super txunga (…) festa joan eta ikastea. (Edad txunga) ze batzutan nola hasarratzen garen azkarrau, por la edad del pavo, edo batzuek o no aguantamos a mucha gente en clase ze lelokeriak iten dabil pues no han madurado" (DBH 2.zikloa, nesken taldea)*

Azkenik, hirugarren fase moduan, sarbidea legoke. Diagnostikoan parte hartutako nerabeek **gaztetasunari sarbidea 16 urterekin identifikatzen dute** oso era argian. DBH 1. zikloko nerabeentzat, 16 urte izatea heldutasunera heltzeko urrats garrantzitsua da, eta DBH 2. ziklokoentzat, askatasun gehiagoko fase baten atarian daudela bizi dute. Izan ere, sarbide fase honetan murgiltzea izango da nerabetasun osoan markatzen duten helmuga tenporala, eta beraz, egiten dituzten jarduerak norabide honetan zuzenduko dituzte.

### 6.1.2. Igarotze fasearen mugarriak

Atal honetan azaltzen diren mugarriak **gazteek beraien biografietan identifikatutakoak dira, haien heltze prozesua ulertzeko lagungarriak egin zaizkienak**. Barne hausnarketa baten ondorio dira, baina baita talde gogoetaren bitartez aberastutakoak. Guk sailkatu, analizatu eta zentzua eman diegu, diagnostiko honen helburuetarako baliagarriak izan daitezen. Batzuk oso era orokorrean aipatzen dira, nerabeek beraiek horrela bizi dituztelako edo dokumentu honetan beranduago sakontasunez landuko diren gaiak direlako; beste batzuetan, ordea, gehiago zehaztu dugu, nerabeek honen inguruan hausnarketa sakonagoa egin zutelako edo aipagarriak diren desberdintasunak antzematen direlako adina edo generoari dagokionez.

Azkenik, aipamen berezi bat egin nahi genuke harreman afektibo-sexualen inguruan. Izan ere, nerabetasunean gai garrantzitsua den arren, tabu izaera jarraitzen du izaten, eta nerabeekin

egindako saio bakarrean, ez dugu lortu gai honi era esanguratsu batean heltzea. Horregatik ez da atal honetan aipatzen, nahiz eta haientzat mugarri garrantzitsu bat izan.

### DBHn sarrera

Nerabeekin egindako saioetan **“nagusi egite” sentsazioari lotuta gehien errepikatu den bizipena DBHn sartzea** izan da, ikastetxe bietan, eta adina zein sexu desberdinetan. Nerabe bakoitzak era desberdinean bizi izan du, baina orokorrean, fase aldaketa agerien irudikatzen duen esperientzia da.







Irudiak 2 eta 3: Nerabeek saioetan egindako marrazkiak
2018ko iraila-urria
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Eskoriatza eta Aretxabaletako nerabeak ikasketak egiteko eraikinez aldatzen dira, ikaskide berriak ezagutzen dituzte eta batzuentzat, herriz aldatzea ere dakar. Pertsona eta espazio berriak ezagutzean, haien ingurune ezagunetik ateratzen dira, harremanetarako estrategia berriak garatu behar dituzte, eta bizitzan, leku berri batean kokatzen joaten dira.

DBHn ikasketek pisu handia hartzen dute, eta zerbait zentrala bihurtzen dira haien bizitzetan. Lehen Hezkuntzan, ikasketa eta jolasa edo entretenimendua eskutik helduta zihoazen, baina DBHn ikasketak oso lotuta doaz edukiak barneratzeari, eta exijentzia maila asko igotzen da. Azterketa edo frogak eta etxeko lanak sistematikoki agertzen dira eta nerabeen egunerokotasuna baldintzatzen dute (eskolatik ateratzean, jolasteko aukera gutxiago dute). **Betebehar, errutina eta ardura berri hauek nagusi egitearekin identifikatzen dituzte, “helduen” mundura gerturatzen joatearekin**.

### Gozamena eta lagunak

Nerabeen ahotan, nerabezaroaren **elementu bereizgarri bat “ondo pasatzea” eta “bizitza bizitzea” da**. Era abstraktu batean aipatzen dute, beraien bizitzan txertatu nahi duten lelo bat bezala, ez baitute oso argi zer esan nahi duten horrekin. Badirudi nagusi egitean ardurak hartu eta serio bizitzen hasi beharko direla, eta nerabezaro-gaztaroa dela gozamenerako gelditzen zaien azken fasea.

Bizipen hau adin guztietan azaltzen da, baina DBH 1. zikloko nerabeek oraindik fase honetan ez daudela guztiz murgilduta sentitzen dute, eta nagusiago izaterakoan, askatasun gehiago izatearekin lotuta, gozamenerako aukera gehiago izango dutela pentsatzen dute.

Honi lotuta, harremanen desplazamendu bat ematen da: gurasoekiko banatze progresibo bat eta **lagun taldea bihurtzea nerabeen erreferentzialtasun nagusia, haien identitatea eraikitzen joateko espazio nagusia**. **Haiekin egindako saioetan, nerabetasuna lagunekin egoteari oso lotuta zegoela aipatzen zuten guztiek, eta bereziki DBH 2. zikloan, lagunekin egote hutsa erabat zentrala bihurtzen da.** Dena den, gai honi atal oso bat dedikatuko diogu ondoren.

*"(Gure adina eukitzea) lagunekin ondo pasatzea da" (DBH 1. zikloa, nesken taldea)*

Irudia 3: Nerabeekin burututako saioetako bat
2018ko iraila-urria
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

### Izaera eta nortasunean aldaketa

Marko teorikoan azaldu dugun moduan, pertsonaren garapenari lotutako aldaketa psikologiko eta emozional garrantzitsuak ematen dira nerabezaroan. Nerabeak hauetaz kontziente dira eta **beraien emozioak eta jokabideak aldatzen ari direla identifikatzen** dute. Hauexek dira aipatzen dituzten ezaugarri nagusiak: egonkortasun emozional falta, autoritateari desafioa, haserretzeko edo negar egiteko joera, tontakeriak egiteko gogoa…

Ezaugarri hauek adin guztietako nerabeetan agertzen dira, eta **desberdintasun handienak generoari begira aurkitzen** dira: neskek helduagotzat ikusten dute haien burua eta mutilek espazio publikoa okupatzeko eta gauza deigarriak egiteko inpultsu gehiago sentitzen dituztela aipatzen dute. Desberdintasun hauek haien artean ere esplizitatzen dituzte, genero estereotipoak indartzen dituzten argudioen bitartez.

*"Hau da momentua hasten geala gure gurasoei erantzute geixau, zirikatzen beste jende batzu, gure esaten geixau (nola sentitzen diran gehio azaltzen dituzte" (DBH 1. zikloa, mutilen taldea)*

> *"Ze batzutan nola hasarratzen garen azkarrau, por la edad del pavo, edo batzuek o no aguantamos a mucha gente en clase ze lelokeriak iten dabil pues no han madurado (…) (Pertsona bat maduragoa da) Ez dagoelako egiten txorakerik, nik ez det esaten ez ittea tontakerik ze nik tontakerik itten dut, baina ez egotia… beitu gaur klasen egon die arroza botatzen tontuen moduen ta ya jendea aspertzen zebilen eta utzi utzi utzi eta ez dauen uzten, osea ya tienes que llegar a un punto … (DBH 2.zikloa, nesken taldea)*

Nerabezaroa igarobide garaia den neurrian, krisi garaia ere bada. Haurtzaroko ereduek ez dute balio, baina berriak eraikitzea zaila izan daiteke, eta barne zein kanpo gatazkak sortzen dira. Nerabe askok beraien buruekiko lotsa sentitzen dute, eta batzuek **garai honi lotutako zailtasunak onartzen** dituzte: beraien lekua topatzea kosta egiten zaiela, berdinen arteko taldearen presioa handia dela, eta gurasoekin eta mundu helduarekin talka handiak dituztela.

### Espazio-denbora berrien konkista

Nerabezaro osoan zehar **haurtzarokoak ziren harreman, espazio, denbora eta jardueren urruntze prozesu bat ematen da. Eta aldi berean, espazio-denbora berriak konkistatzen hasten dira**, nagusitasunera heldu arteko prozesu baten baitan. Ibilbide honek alderdi komunak ditu nerabeen artean, baina erritmo desberdinetan gauzatzen dira eta nerabe bakoitzak hartutako bideetan desberdintasunak antzematen dira.

**12 urtetik aurrera lehen gurasoekin egiten zituzten gauzak lagunekin bakarrik egitea aurrerapen handia da haien autonomiaren pertzepzioan**. Honi lotuta, kalean denbora gehiago egiten dute eta gauez ateratzen hasten dira. DBH 1. zikloan, gehienetan herrian gelditzen dira, baina herritik ateratzea desiratzen hasten dira, eta lortzen dutenean, haien buruaz harro sentitzen dira, nagusi, gai eta aske izatearen sentsaziori lotuta. Pertsona nagusi gabeko lehen irtenaldiak 13 urterekin hasten dira eta ondoko herrietara izaten dira, arratsaldea pasatzera, afaltzera, edo erosketak egitera. Orokorrean, nesken kasuan erosketak arropei lotuta daude eta mutilen kasuan kirolerako konplementuei.

**14-16 urtekoen kasuan herritik ateratzea lehentasunezko zerbait bihurtzen da**, eta edozein aukera baliatzen dute herritik atera ahal izateko. Nesken kasuan, arropa erosketak egiteko Gasteizera lagunekin joatea konkista handia da, beraien autonomiari lotutako elementu asko barnebiltzen direlarik: hirian murgiltzea, lagunekin bakarrik egotea, diruaren kudeaketa, autobusa hartzea, norberarentzat arropa aukeratzea…

> *"(Nagusi egitea) Arrapaketan jolasta uztea, eta atsalde pasa lagunekin hitzeiten egotea (…) Hitzeiteko temak aldatzen dira" (DBH 2.zikloa, talde mistoa)*



Irudia 4 eta 5: Nerabeek saioetan egindako marrazkiak
2018ko iraila-urria
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Neska zein mutilei dagokienez, ondoko herrietako jaietara joatea izaten da erronka nagusia, gurasoekin negoziazio iturri bihurtzen dena, eta lortzerakoan, garaipen sentsazioa dutena. **DBH 2. zikloan hasten dira ondoko herrietako jaietara joatean eta haien biografietan mugarri garrantzitsu** bat da. Hau ere prozesu oso gradual eta progresiboa izaten da, etengabeko gora-beherak dituena.

Honi lotuta, eta bereziki DBH 2. ziklokoengan, **herri handi (Arrasate, Gasteiz…) eta hiriarekiko idealizazioa eta beraien herrien minus-balorazio** bat dagoela antzeman dugu. Herri handiagoetan, aisialdirako eskaintza eta kontsumorako espazioak bilatzen dituzte, arropa dendak eta zinemak, besteak beste. Baina aldi berean, hirian eta herri handietan askatasun pertsonal gehiago izan dezaketela sumatzen dute eta oztopo gutxiago haien garapen pertsonalerako.

> *"Hemen ezin zara edozein modutan jaztera atrebitu. Hori Gasteizen errezagoa da" (DBH 2. zikloa, nesken taldea)*

Espazioen lausotzearekin batera, denboran ere mugak gainditzeko joera ematen da, batez ere bi alderditan: **lagunekin denbora gehiago egoteko gogoa eta gauez denbora gehiago egon ahal izatekoa**. Bi elementu hauek oso garrantzitsuak dira haien autonomiaren garapenean, eta gurasoekin eztabaidagai bihurtzen dira. Dena den, ondorengo ataletan sakonduko gehiago bietan.

### Ni izateko, nik erabaki, nik egin

Nerabeak beraien indibidualtasuna garatzearekin batera, **haien kabuz gauzak egin eta erabakiak hartzeko beharra** dute. Beraien burua gero eta prestatuago sentitzen dute heldu moduan erabakiak hartzeko, eta kanpotik ere gero eta aukera gehiago zabaltzen zaizkiela uste dute. Hala ere, gurasoekin egin ahal dutena eta ezin dutenaren arteko tentsio bat mantentzen da beti.

> *"Indenpentzia gehiago, eta segurugo gaude gure buruarekin eta ahal ditugu egin gauza geixau" (DBH 1. zikloa, mutilen taldea)*

*"Nire ustez oaintxe in behar diu gauza gehio bakarrik, lehen laguntzen zizuzkuela beste gauza batzuk iten geiau" (DBH 1. zikloa, mutilen taldea)*

*"(Etxean) me ven como una niña pequeña baina gero itten dou dena eta hori oraindika txikixa garela ta tampoco es eso (…) geratzea etxian bakarrik batzutan en plan eurek jutea ez dakit noa igual aste bat edo ta esaten diate 'zu etxen bakarrik ez'… ez dakit… igual batzuk ez ze nik batzuk ikusten dut que aste bat bakarrik y la lían, baina beste batzuk nik uste dut burua daukiula egoteko aste bat bakarrik" (DBH 2. zikloa, nesken taldea)*

**DBHko 1. zikloan haien kabuz erabakiak hartzea eta gauza gehiago egitea, denbora librearen kudeaketari lotuta** dago bereziki. Hau da, asteburuetan eta haien aisialdian zer egin nahi duten erabaki dezakete, eta kasu batzuetan, baita haien kasa egin ere. Haurtzaroan, gurasoek erabaki eta bideratzen zituzten jarduera gehienak, eta beraz, eraldaketa hau haien indibidualtasunaren garapenean mugarri garrantzitsua da, ondorengo marrazkiek erakusten duten moduan.




Irudia 6 eta 7: Nerabeek saioetan egindako marrazkiak
2018ko iraila-urria
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

DBHko 2. zikloan, beraien erabaki ahalmenean mugarri garrantzitsu bat ematen da, **ikasgai desberdinen artean aukeratu behar dutelako**. Erabaki hau garrantzizkoa da haientzat, beraien ibilbide akademikoan izango duen eraginagatik: nerabe askok etorkizunean zer ikasi eta zein ofizio nahi duten galdetzen diote beraien buruari, batzuek serioski lehen aldiz. Honekin batera, ikasketekiko presioa hazten da eta **emaitza onak lortzearen ardura gurasoen presio izatetik maila pertsonalean lortu nahi duten erronka bihurtzen** da. Ingelesa ikastea ere, esate baterako, "beraientzat garrantzitsua delako" egiten dutela aitortzen dute askok, eta ez gurasoen presioagatik.

Ibilbide akademiko eta profesionalak leku handia hartzen duen arren, ez da beraien erabaki ahalmena gauzatzeko duten esparru bakarra. Gustuko duten afizioak edo aisialdiaren kudeaketa propioan erabaki ahalmen gaitasuna igotzen joatea etengabeko erronka bihurtzen da. Hemen adibidez, **haien arroparako edo musikarako aukeraketek, beraien identitatearen eraikitzean eragiten** dute. Lagun taldeak eragin esparru handia du honetan, baina aldi berean,

haien bakardaderako eta intimitaterako espazioak ere bilatzen dituzte, musika entzuteko, edo serieak ikusteko, batez ere.

Kanpo begiradak ere barne-prozesu hau indartzen duela esango genuke. Izan ere, **gero eta onartuago sentitzen dira familiako edo gizarteko kide moduan**, ardurak eta erabakiak hartzeko pertsona moduan. Orain beraien hitza kontutan hartzen dela sentitzen dute, eta kasu batzuetan, txikiagoentzat eredu bihurtzen hasten direla, eta horrek, jarrera egokiak izatea dakarrela.

> *"Niretzat 13 urte eukitzea da errespetua ta (…) ba aldozula ya gauzak esan edo (DBH 1. zikloa, mutilen taldea)"*

Nerabeek bide hau progresiboki egiten dute, eta ez ibilbide zuzen eta lineal batean. Batzuetan, haien autonomian aurrerapen sentsazioa dute, eta beste batzuetan, gurasoek edo gizarteak jarritako mugak inposatzen direla sentitzen dute. Kasu batzuetan, haien erabakiak hartzeko segurtasun falta eta "askatasunari beldurra" ere sentitzen dute. Horrelakoetan, gurasoen rola ezinbestekoa bihurtzen da, egunerokotasunean gertu sentitzen ez dituzten arren, zutabe egonkorra baitira. **Haien bidea askatasunez garatzen joan nahi dute, baina aldi berean, gurasoen rola muga batzuk jartzea eta gaizki daudenean babesa ematea dela onartzen dute.**

### Ardurak hartzea

Heldu egitea inguratzen zaituen errealitateaz kontziente egitea ere bada, eta honekin batera, ardura hartzea. Nerabeak beraien familia, ingurune hurbila, herria, gizartearen parte dira eta poliki-poliki horrek zer inplikatzen duen ulertzen hasten dira eta ingurune horietan rol desberdinak hartzen dituzte. Askok aipatu dute **beraientzat nagusi egitea ingurunean gertatzen dena ulertzea eta horrekiko ardurak asumitzea ere badela.**

Honek inplikazio desberdinak ditu adin tarteen arabera eta faktore sozial eta generoaren arabera ere. DBHko lehen ziklotik aurrera, guztiei eskatzen zaie **etxeko lanetan gurasoei laguntzea**, eta horrek aldaketa handia suposatzen du haientzat ume ziren garaiekin konparatzen badute. Neska eta mutilak kexatzen dira aldaketa honetaz, baina neskek orokorrean, naturalago bizi dute, eta ez dute sentitzen kanpotik inposatzen zaien zerbait denik, baizik eta momentu honetan dagokien zerbait dela. Horren adibide dugu neska batzuek lehengusu txikiagoak zaintzen laguntzea edo gurasoekin janaria erostera joatea eskolatik ateratakoan.

Era berean, DBH 2. zikloko neska batzuek aipatu dute familiako ekosisteman heldu moduan tratatuak sentitzen hasten direla, gurasoek arazoak beraiekin partekatzen dituztelako eta haiengan ulerkortasuna eta babes emozionala bilatzen dutelako. **Familian ahots propioa duen subjektu izaera irabazten dute, eta honek errekonozimendua eta ardura maila altua dakar** aldi berean. Mutilen kasuan familia barnean funtzio emozionala betetzea ez dela maila berean ematen dirudi, ez baitute horrelakorik aipatu elkarrizketetan zehar. Genero ikuspegi batetik, neskak zaintzarako, laguntza emozionalerako eta familia barnean ardurak asumitzeko heziagoak direla dirudi oraindik ere.

Aurretik aipatu dugun moduan, arduratsua izatea haien etorkizunaren jabe izatearekin lotuta ere badago, eta honetan **ikasketekiko eta haien etorkizun profesionalarekiko ardura ere askok aipatzen dute,** 12 urtetik aurrera, baina bereziki, DBHko 2. zikloan. Hemen, lan merkatuaren ziurgabetasuna eta exijentzia maila aipatu dute batzuek, eta horregatik, ikasketei garrantzia ematearekin batera, etorkizunean lana aurkituko duten ala ez zalantza erakusten dute, eta honek segurtasun falta eta ezinegona sortzen die.

*"Ardurtxuagoa eta gehiago ikasi behar da eta lehen zinenean txikia ez zenuten ezer ez eta iten zenun nahizuna (…) oain (ardurak gehiago dauzkagu) bizitzena, nota onak ateratzea, ez errepikatzea, ondo portatzea, …'" (DBH 1. zikloa, mutilen taldea)*

**Kontzientzia piztea**

Nerabe batzuek, haien iritzi propioak eta subjektutasuna garatu ahala, haien ingurunean gertatzen denaren inguruko kontzientzia ere hartzen doaz, eta gai sozialei buruzko interesa eta ardura erakusten dute. Sarritan, helduen mundutik datozen diskurtsoak erreproduzitzen dituzte, baina haien errealitatera ekartzen dituzte, eta batzuek ikuspegi kritikoz aipatzen dituzte.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeekin **euskararen egoerarekiko ardura** izan da gai nagusietako bat. Hemen eragin handia du ingurune euskaldunean jaio eta hezi diren nerabeek DBHra heltzean eta herritik gehiago ateratzean, ingurune erdaldunago batekin topo egiten dutela. Euskararen egoera ardura iturri da herri hauetako nerabe batzuentzat, eta haiek euskaraz egiteko konpromisoan berresten dira. Interesgarria da, 12-13 urteko gazte batzuek gaztelaniaz hitz egitea "nagusiek" egiten duten horrekin lotzen dutela, era negatibo batean, eta beraz, haien umetasun euskaldunarekiko nostalgia erakusten dute.




Irudia 8: Nerabe baten saioan egindako marrazkia: "helduak direnak gazteleraz hitz egiten eta denbora guztian mugikorrarekin" irudikatzen du.
2018ko iraila-urria
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

DBH 2. zikloko nerabe batzuek ikuspegi kritikoagoa erakutsi dute, baina ez da joera orokortua izan. Bik LOMCE legearekiko kezka adierazi dute, eta beste batzuek ingurune sozialari lotutako gaiak: pobrezia, politikarien usteltasuna eta diru publikoaren xahutzea, besteak beste. Dena den, nerabeek haien errealitate soziala nola bizi duten azken gaian landuko dugu sakonago.

**Mugen pertzepzioa eta kudeaketa**

Nerabetasunak, igarotze fase moduan ulertuta, haurtzaroko mugak (fisiko eta sinbolikoak) gainditzea dakar, honekin batera baitator norberaren autonomiaren eta identitatearen

eraikuntza. Batzuetan berez eta era natural batean ematen da, eta beste batzuetan, inguru helduarekin negoziazio, gatazka eta transgresioei lotuta, batez ere gurasoekin.

**DBH 1.ziklokoek haien mugak definituago eta onartuago dituzte, eta haien artean homogeneoagoa da egin ahal duten eta ezin duten hori**: ez dira desberdintasun handiak antzematen gurasoek jartzen dizkien ordutegietan edo ematen dizkieten aukeretan, eta haientzat ere, ez da aldarrikapen nagusi bat. Orokorrean, gurasoen mugak gainditzea haien rola dela onartzen duten moduan, gurasoek muga horiek mantentzea dagokiela uste dute. Badirudi 16 urte izateko eta bertan askatasun kota handiagoa lortzeko prestatzen ari direla.

> *"Bizitza bizitzea baina limitekin (…) ezin dogula egin nahi doun (adibidez) gaupa, tampoco es necesario baina, que andas muy justo, ze esante dotzue 2:00tan (etxera) y te quedas justo (…) ni normalen me quedo con ganas de gehiago egoteko. Herriko jaixetan gehixau (geratzen gera)" (DBH 1. zikloa, nesken taldea)*

Adin honetan ere arriskuekiko pertzepzio handiagoa dute, drogen kontsumoari lotuta batez ere. **Gehienek ez dute alkohola eta tabakoa kontsumitzen eta hauekiko jarrera anbiguoa dute: erakargarria da batetik, nagusiago direnean egitekoa; eta arriskutsua bestetik,** osasunerako eta beraien garunaren garapenerako kaltegarria delako eta alkoholaren efektupean kontrola galtzen delako. Dena den, aurrerago sakonduko dugu drogen kontsumoaren gaian.

**DBH 2. Zikloan, 14 urterekin hasi eta 16rekin orokortzen da mugekiko pertzepzio aldaketa. Erabateko esperimentazio fasean sartzen, aukera berriak zabaltzen zaizkiela** sentitzen dute eta zer egin ahal duten eta zer ez probatzeko gogoa dute. Mugak gainditzea gauza berriak egitea da, baina batez ere, denbora-espazio-harreman marko berri batean egitea. Orokorrean, lagunekin gehiago egotea, gauez ateratzea, beste herrietara joatea eta drogen kontsumoarekin hastea lirateke mugarri nagusiak. Guzti hau hoberen kontzentratzen den jarduera jaiak lirateke, eta horregatik bihurtzen da zentrala haien bizitzetan. Emozio handiz bizi dituzte beraien herrietako zein inguruetako jaiak.

Mugak gainditze honetan, norbere buruaren mugak ere aipatu beharko genituzke, nagusitzearekin batera datozenak: azterketak gainditzea edo mendi bat bakarrik igotzea, adibidez. Norbere kabuz helburu pertsonalak lortzea eta ume garaiko mugak gainditzea satisfazio iturri handia dira.







Irudia 9 eta 10: Nerabeek saioetan egindako marrazkiak: nagusi egitea arriskuak asumitzea (sua egitearena) eta mugak gainditzea dakar (Gasteizera joatea).

2018ko iraila-urria
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

## 6.2. AISIALDIRAKO DENBORAK ETA ESPAZIOAK

Nerabeek aisialdian egiten dutena aztertzen da atal honetan. **Zenbat denbora dute aisialdirako? Zer egiten dute denbora horretan? Zer gustatuko litzaieke egitea baina ezin dute? Nondik ateratzen dira? Nola aldatzen da aisialdiarekiko ikuspegia hazi ahala?** Nerabeekin gai hauei buruz hausnartu dugu eta haien aisialdi erreala eta nahiko luketenaren inguruan sakondu dugu.

Aisialdiaren inguruko datu jasotzea eta hausnarketa egiteko, nerabeekin egindako bi dinamikez baliatu gara:

- Batetik, nerabeek atzo arratsaldean ikastetxetik irtetean egin zituzten ekintzak zerrendatu behar zituzten, eta ondoren, hauen inguruko hausnarketa partekatua bideratu zen. Hemen, aste barruko aisialdiaren inguruko gogoeta egin zuten eta aisialdi arautuaren barruan egiten dituzten ekintzak jorratu zituzten. Tamalez, dinamika hau ez zegoen hasierako planteamendu metodologikoan, beranduago txertatu genuen, eta horregatik, Arizmendi ikastetxeko datuak bakarrik ditugu.
- Bestetik, nerabeei beraien aisialdian egitea gustatzen zaien jarduerak eta gustatuko litzaiekeenak baina ezin dutenak identifikatu behar zituzten, eta post-iten bidez, herrietako mapetan adierazi. Dinamika honen informazio oso baliagarria eman zigun nerabeen aisialdi ohituren inguruan, erabiltzen dituzten espazioetan lokalizatuta. Gainera gai hauetatik tiraka, hausnarketa sakonagoetan barneratu ginen, egiten dutenaren inguruan hausnartu zezaten.

Adinari eta generoari dagokion analisi bereiztua ere gauzatu dugu, nahiz eta azken hau ez den guztiz zehatza izango, egin ditugun talde batzuk mistoak izan direlako eta ondorioz, talde horietan ateratako emaitzak neska edo mutilek idatzi dituzten bereizi ezin dugulako. Dena den, hurbilpen analisi bat egite aldera, neska eta mutilen taldeetan ateratako datuak aztertu ditugu.

Bestalde, kontuan izan behar da partaidetzazko dinamiken bitartez helburua ez dela errealitatearen jakintza zehatza lortzea, baizik eta partaideek beraiek, beraien errealitateren inguruko hausnarketa partekatua egitea. Horregatik, ateratzen diren emaitzak hurbilpen moduan ulertu behar dira.

Emaitzak azaltzerako orduan, nerabeen aisialdia bi esparru nagusitan aurkeztuko dugu, aste barrukoa, batetik, eta asteburukoa, bestetik. Nerabeekin lanketa egitean haien denbora interkonektatuta dauden hiru esparruetan banatzen dutela antzeman dugu: arduraz eta halabeharrez egin beharrekoa (eskolara asistentzia batik bat), jarduera arautuak edo eskolaz kanpoko ekintzak, eta denbora librea edo aisialdi ez arautua. Azken bi kategoriak aisialdiari lotuta daude, eta lehendabizikoa aste barnean kontzentratzen denez, eta bigarrena asteburuetan, bereizketa honen arabera jasoko ditugu atal honetan.

### 6.2.1. Aste barruko aisialdia

**Astelehenetik ostiralerako jarduerak nahiko arautuak eta errutinazkoak direla antzeman daiteke, egunerokotasuneko ardurei eta eginkizunei oso lotuta.** Nerabeek beraiek, errutina bat izatea "nagusi" izatearekin eta ardurak betetzearekin lotzen dute, eta beraz, haien garapen pertsonalerako garrantzitsua da.

Orokorrean, i**kasketek pisu handia hartzen dute, eskolako orduez gain, etxeko lanak egin eta azterketetarako ikasten denbora asko pasatzen baitute.** Gainera, eskolaz kanpoko ekintzak ere haien egunerokotasunean oso txertatuta daude, eta azkenik, aisialdi librerako aukerak gelditzen zaizkie, egunaren amaieran eta etxean kontzentratzen direnak. Ondorengo lerroetan arlo hauen nolakotasunak azalduko dira.

#### Ardurak edo halabeharrez egin beharreko ekintzak

Kategoria honen baitan kokatu ditugun ekintza konkretuak eskolako lanak, frogetarako ikastea eta enkarguak eta zaintza lanak izan dira. Hauen artean, dinamikan erabilitako fitxetan jaso dituzten **ekintza guztien %67a frogetarako ikastea** ziren. Kontuan izan behar da frogetarako ikastea ikastaroan zehar momentu puntualetan ematen dela, eta nerabeekin landa lana egin genuenean, epealdi honetan zeudela. Ondoren legoke eskolako lanak egitea, ekintza guztien %23a bilduko lukeena. Geldituko liratekeen ekintzen %10, berriz, entsegu, enkargu eta zaintza lanek osatuko lukete.

Adinaren araberako bereizketa eginez gero, DBH 1. zikloan ematen diren kopuruetan, ikastearen edo eskolako lanak egitearen ekintzen arteko aldea ez da horren handia. Adin tarte honetan, ekintza guztien %54a daude frogetarako ikasteari lotuta, eta %35a eskolako lanak egiteari. **DBH 2. zikloan, berriz, ikasteari lotutako ekintzak dira kategoria honen barruan burutzen dituzten ekintza ia guztiak (ekintzen %84a),** eskolako lanak egiteari lotutakoak oso gutxi izanik (%8a soilik). Beraz, ikusten da, adinean gora egin ahala, ikasketen presioa handiagoa dela.

**Nesken artean, ardurei dagokienez frogetarako ikasten pasatzen dute denbora gehien**, hau baita ekintzen %63a biltzen duena. Ondoren legoke eskolako lanak egitea %26 batekin. Azkenik, **%10a enkarguei, zaintza-lanei eta sendagilearenganako bisitei** lotua dago. Oro har, ikusten da neskei gehiago sozializatzen zaiela "bizitzari eusteko lanak" edo lan erreproduktiboak deiturikoetan aritzeko. Izan ere, mutilen artean, zerrendatu diren ekintza guztiak ikasteari (%75) eta eskolako lanei (%25) soilik daude lotuta. Dena den, aipatu behar da mutilen artean ere ikasten pasatzen duten denbora asko dela.

Datu hauek oinarri hartuta, eta nerabeekin egindako hausnarketarekin bat eginez, **ikasketen presioa handia dela sumatzen dute ia guztiek**. Eskola orduez gain, etxeko lanak egiten eta azterketa eta frogetarako prestatzen denbora asko dedikatzen dute, batez ere, DBHko 2. zikloan. Neska batzuek presio hau estresaz bizi dutela adierazi dute. Orokorrean, norbere buruari jarritako auto-exijentzia da, baina gizarte presioa agerikoa da, etorkizunean lan on bat izateko ikasketetan emaitza onak lortu behar dituztela sentitzen baitute. Nerabeen inguruan egin diren ikerketa ezberdinetan ere jaso da 13 urtetik gorako lau nerabetatik batek gaizki bizi duela eskolak exijitzen dion lan-karga (marko teorikoan "eskolarekiko harremana" atalean azaldu den bezala).

### Jarduera arautuak edo eskolaz kanpoko ekintzak

Ingelesa edo frantsesa, partikularrak, musika klaseak eta kirol ezberdinetako entrenamenduak (futbola, saskibaloia, igeriketa, eskalada, pilota, arte martzialak, yoga eta konba) bildu ditugu kategoria honetan. Bertan **gehien ematen diren ekintzak ingelesari (ekintza guztien %46a, jasotako 62 ekintzetatik 29) lotuta daude.** Arizmendi ikastetxekoek bertan egiten dituzte, eta Kurtzebarrikoak, Eskoriatza eta Aretxabaletako akademietan. **Ia maila berean, kirol ezberdinetako entrenamenduak (ekintzen %40a, jasotako 62 ekintzetatik 25) daude,** kiroldegietan, Ibarra futbol zelaian edo Arrasaten egiten dituztenak. Gelditzen diren ekintzen %14a partikularrek, musikako klaseek eta frantsesekoek osatuko lukete.

DBH 1. zikloan kirolari lotutako entrenamenduek pisu handiagoa dute, edo denbora gehiago hartzen dute (ekintzen %45a izanik) ingeleseko klaseek baino (ekintzen %39a). DBH 2. zikloan kontrakoa gertatzen da: izan ere, adin tarte honetan ingelesko klaseek ekintzen %55a hartzen dute, kirolari lotutako entrenamenduak %34a bakarrik direnean.

Generoari dagokionez, nesken artean ingelesa nagusitzen da (%46), kirol entrenamenduei (%38) jarraiki. Mutiletan ordena alderantzizkoa da: kirol entrenamenduek hartzen dute denboraren edo ekintzen zati nagusia (%50 direlarik), ingelesaren aurrean (%27).

Ondorioz, esan genezake ingelesaren ikasketak garrantzi handia duela eskolaz kanpoko ekintza moduan. Nerabeekin honen inguruan sakontzean, lan-merkatuan posizionamendu on bat lortzeari lotuta dagoela antzeman daiteke, eta batez ere helduagoengan (DBH 2. zikloa) eta neskengan ematen den ardura dela.

Kirolari dagokionez, Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeengan presentzia handia duen esparrua dela ondorioztatu dezakegu. Mutilen kasuan, futbola nagusitzen da, eta nesken kasuan aniztasun gehiago ageri da: bizikleta, igeriketa, saskibaloia… Hauek taldean eta astean zehar egiten dituzte gehienetan. **Kirolari dagozkion ekintzak batez ere gazteagoengan (DBH 1.zikloa) eta mutilengan emango lirateke.**

Azkenik, aipagarria da oso nerabe gutxik egiten dituztela kultura, artea, dantza, marrazketa edo musikarekin lotutako eskolaz kanpoko ekintzak, eta badirudi ez daudela haien lehentasunezko jardueren artean.

### Denbora libreko eta aisialdi ez arautuko ekintzak

Azken kategoria honetan ekintza hauek aipatu dituzte: pelikula edo telesailak ikusi, mugikorrarekin ibili edo txateatu, ordenagailuan edo play station-ean ibili, irakurri, jolastu, korrika egin edo bizikletaz ibili, mendira joan edo txakurra atera, lagunekin egon, sukaldatu, edo etxean lasai egon.

Orokorrean, asko nagusitzen dira aisialdi pasiboarekin eta teknologia berriei lotutako ekintzak. Izan ere, **gehien ematen diren ekintzak pelikula edo telesailak ikusteari lotuak** daude (ekintza guztien %34 osatuaz), eta jarraian, mugikorrarekin ibili edo txateatzeatzeari; eta ordenagailuan edo play station-ean ibiltzeari (ekintzen %11 osatzen du bakoitzak). Bigarren maila batean azaltzen dira jolastu, korrika egin edo bizikletan ibili zein lagunekin egotea. Azkenik eta hurrenez hurren, mendira joan edo txakurra atera, irakurri, sukaldatu edo etxean lasai egoteari lotutako ekintzak leudeke.

DBH 1. zikloan ere, denbora librean gehien ematen den ekintza nagusia pelikula edo telesailak ikusten egotea da (ekintzen %40) eta ondoren, mugikorrarekin egotea (ekintzen %20). **DBH 2. zikloan, berriz, ekintza nagusiak pelikula eta telesailak ikustea izaten jarraitzen badu ere (%33), pisua hartzen du lagunekin egotearen ekintzak berak ere, ekintzen %16a osatuaz** (eta hau ez da DBH 1. zikloan ematen).

Generoaren arabera, nesken artean ere pelikula eta telesailek (%42a) eta mugikorrarekin egoteak (%21a) dute nagusitasuna, baina badaude irakurri, ordenagailuan ibili, sukaldatu, txakurra atera edo korrika egiteari lotutako ekintzak ere. Mutilen artean, ordenagailuak eta play station-ean ibiltzeak hartzen du pisu gehien ekintzen %37arekin, pelikula eta telesailak ikustearen aurrean (%25). Kopuru berarekin daude ere (%25) lagunekin egote hutsari lotutako ekintzak.

Datu hauek bere testuinguruan ulertzeko, kontuan izan behar dugu aste barnean eskolaz gain eskolaz kanpoko ekintza asko dituztela, eta aisialdi librerako gelditzen zaien tartea gutxi dela eta egunaren amaieran kontzentratzen dela. **Nerabe askok iluntze-gauean etxera nekatuta heltzen direla adierazi dute, eta afaldu aurretik edo ondoren dituztela lasai egoteko dituzten momentu bakarrak.** DBH 3-4 taldeetan egunean zehar egin dutena azaldu ondoren zein den gusturen egon diren momentua galdetzean, “etxean lasai telesail bat ikusten” aipatu dute askok.

Momentu hauetan, gainera, beste bi elementu gurutzatzen dira: batetik, bakardadean egoteko gogoa, eta bestetik, gailu teknologikoen zentraltasuna. Nerabe askok aipatu dute **etxera heltzean bakarrik egoteko gogoa dutela**, eta orokorrean aisialdi pasibo hau ez dutela gurasoekin partekatzen. Sare sozialen bitartez, neskak batez ere, lagunekin konektatua egoten dira, eta beraz, lagunen presentzia era birtual batean mantentzen dute egun osoan zehar.

Gailu teknologikoei dagokionez, ia nerabe guztiek dute telefono mugikorra, eta aipatu berri dugun moduan, aisialdiaren parte handi bat honen bitartez kanalizatzen dute. Beste askok telebista eta ordenagailuak ere dituzte, sarritan haien geletan edo erabilera esklusiboa egiteko aukeran. Gailu hauek beraz, haiek nahi duten momentuan eta nahi dutenean erabiltzeko aukera dute, gurasoekin ia konpartitu gabe eta haien kontroletik at.

*“(Eta zertan egon zinen gustoren?) Telebista ikusten nire etxien (DBH 1. zikloa, talde mixtoa)*

*“Dauket 15 urte eta nahi dugu egin gauza asko eta ez dugu denbora” (DBH 2. zikloa, nesken taldea)*

### 6.2.2. Asteburuko aisialdia

Astean zehar duten erritmo arautu eta errutinazkoarekin kontrastean, **asteburuak plazer, askatasun eta erlaxazio momentuak dira nerabeentzat**. Aste barneko eta asteburuko dinamiken bereizketa hau adinean igo ahala indartu egiten da: hau da, 16 urtera gerturatu ahala, asteburua da aisialdi librerako eta gogoko duten hori egiteko duten momentua.

**Nerabeei aisialdiaz galdetzean, zuzenean asteburuan egiten dutena etortzen zaie burura, hau baita beraientzat aisialdia**. Atal honetan, beraz, aisialdian zer egiten duten eta zer gustatuko litzaiekeen egitearen inguruko hausnarketaren emaitzak jasotzen dira. Hasiera batean, zer egiten duten eta zer egin nahiko luketen erakusten dugu, galdera honi lotutako dinamikaren emaitzez baliatuz. Bigarren atal batean, gai konkretuei heltzen diegu: nerabeekin hausnarketa partekatua egitean azaleratu diren gaiak dira, haiekin landu ditugunak.

**Zer egiten dute eta zer nahiko lukete egin?**

Aisialdian egiten dutenaren inguruan, **kirolari eta jolasei lotutako ekintzak nabarmentzen dira gehien (ekintza guztien %35 osatuaz), baina aipatu beharra dago hauetatik ia guztiak lagunekin eta denbora librean praktikatzen dituztenak direla** (eta ez modu arautuan entrenamenduetan). Hurrengo postuan, lagunekin hitz egiten egotearen ekintza legoke, ekintza guztien %30a osatzen duena. Hauen ondoren, pelikula zein serieak ikusten edo musika entzuten egotea (ekintzen %8,5), bideo-jokoetan ibiltzea (%3,5) eta jaietan atera edo afaltzera joatea leudeke (%3). Asteburuetan, beraz, aisialdi pasiborako tendentzia asko jaisten da eta nerabeek beraien artean egoteko eta jarduerak praktikatzeko gogo gehiago dute.

**Egin nahi lituzketen eta ezin duten ekintzei dagokionez, gehien aipatzen diren ekintzak batez ere lagunekin bidaiatzeari edo irteerak egiteari lotutakoak** dira (ekintzen %28a). Jarraian leudeke bestelako kirol establezimenduak izateari (kanpoko igerilekuak, izotz pistak…) edo praktikatu ezin dituzten kirol ezberdinak (beisbola…) praktikatzeari lotuak (%23), denbora libre eta askatasun gehiago izatearen eskaerak (%11), gidatzeari lotuak (%10), zinema hobeak eta dendak (%6), eta euren adinekoei zuzendutako espazio propioak (%6) eskatzen dituztenak.

Aurretik aipatu dugun moduan, asteburuetan, lagunekin egoten diren momentu hauetan egiten dutena adina eta generoaren arabera baldintzatuta egongo da. **DBH 1. zikloan aisialdi denboran gustukoen dituzten ekintzak kirol eta jolasei lotuak** direla ikus dezakegu (ekintzen %44), eta ondoren, lagunekin egoteari lotutakoak (%27). Jarraian, pelikula edo telesailak ikustea (%4), Gaztelekura joatea edo musika instrumentuak jotzea (biak %3arekin) leudeke, hurrenez hurren.

Adin honetan egin nahiko lituzketen ekintzen artean, kirolari eta jolasei lotutakoak ere azaltzen dira (ekintzen %32). Hauen artean, lehen aipatu bezala, **orain herrian praktikatu ezin dituzten ekintzak eta herriko kirol establezimenduak hobetu edo berriak sortzeko eskaerak** leudeke. Ondoren, bidaiatu edo irteerak egitea legoke ekintzen %21arekin. Jarraian, zinema hobe bat (gustuko pelikulekin) edo denda gehiago, zein euren kabuz egoteko espazio propioak eskatzen dituzte nerabeek (biak %7arekin).

**DBH 2. zikloan, berriz, kopuruak antzekoak dira, baina lagunekin egotea maizago ematen da gustuko ekintzen artean (%32)**, kirolari eta jolasei lotutako ekintzak baino (%26). Pelikula edo telesailak ikusten egotearen ekintza ere maizago agertzen da (%11arekin), jaietan irten edo lagunekin afaltzera joatearen ekintzekin zein zinemara edo dendetara joatearekin batera (biak %4arekin). Egin nahi dituztenen artean, bidaiatzeari edo irteerak egiteari buruzko ekintzak dira pisu gehien hartzen dutenak (%39a), eta baita gidatzeari lotutakoak ere (%23). Jarraian, %13arekin, zinemak hobetu edo denda gehiago egoteari loturikoak daude.

Generoan erreparatuz gero, eta neskei dagokienez, gustukoen dituzten ekintzak lagunekin hitz egiten egoteari lotutakoak dira (ekintzen %46), kirol eta jolasei lotutakoek jarraitzen dielarik (%35). Pelikula edo telesailak ikusteak ere badu pisua gustuko ekintzen artean (%15arekin). Egin nahi dituzten ekintzen artean nagusia berriz, aldearekin, bidaiatzea eta irteerak egitea da %42arekin.

**Mutilen kasuan, lagunekin egotea baino, lagunekin kirol edo jolas ezberdinetan aritzea nagusitzen da %43arekin**, nahiz lagunekin egotearen ekintzak jarraitzen dion (%20arekin). Bideo-jokoekin aritzearen ekintzak ere badu bere pisua gustuko dituzten ekintzen artean %10 batekin. Batzuk besteekiko kexati ere azaltzen dira, play stationean gehiegi jolasten dutelako, bestelako jolas mugituagoak atzera utziz. Egin nahiko lituzketen ekintzen artean ere, kirolari

eta jolasei lotutakoak leudeke (%35), lehenago aipatu den moduan, momentuan herrian praktikatu ezin dituzten kirolak eta kirol establezimenduak hobetu zein ugaritzeari buruzko eskaerekin. Bidaiatu eta irteerak egiteari buruzkoak lirateke hurrengoak %22arekin.

Datu hauek ikuspegi orokor bat eman digute, eta ondorengo lerroetan, hortik eta nerabeekin egindako hausnarketa partekatutik ateratako analisia egingo dugu, gai konkretuen bitartez.

### Haien kasara egoteko espazio propioak

Nerabeek egiten dutena pentsatu, eta bereziki, egin nahiko luketena amestean, lagun taldearen inguruan egituratzen da. Koadrila bakoitzak bere izaera propioa eraikitzen du eta talde identitate hori indartzeko, nerabeek haientzat propio diren lekuak bilatzeko beharra dute. Koadrila askok "haien lekua" sentitzen duten leku fisiko bat aukeratzen dute eta hor sentitzen dira erosoen.

Aretxabaleta eta Eskoriatzan horrelako leku kuttun batzuk aipatu dituzte koadrilek. Batzuetan, plazak dira (Eskoriatzako Luis Ezeiza eta Aretxabaletako herriko plaza zein Hirusta edo Ilargi plaza, batez ere), edo kaleko leku jakin batzuetan dauden bankuak: gozoki dendatik gertu dauden batzuk, paseo batean daudenak, "monjeetako kaleko" eskailerak arkupean… Castañares, Las Torres parkea edo "Txakon" ere aipatu dituzte.

Irudia 11: Nerabeekin burututako saioetan herrietako mapekin egindako ariketa espazioak identifikatzeko. 2018ko iraila-urria
Egilea: Farapi Koo. Elkartea

Herri bakoitzeko nerabeak espazio antzekotan mugitzen diren arren, generoaren arabera espazioen erabilera desberdina egingo dute. **Nesken kasuan lagunekin egote hutsa garrantzitsua da, eta normalean haien artean hitz egin edo elkarrekin musika entzuteko leku aproposak bilatzen dituzte.** Orokorrean, leku intimo eta lasaietan gelditzen dira, non

konfiantzaz hitz egin ahal duten, baina aldi berean, herrien zentroan kokatzen direnak, inguruan gertatzen dena aztertu eta horretaz ere hitz egin ahal izateko. Neguan batez ere, leku itxi eta goxoen falta sumatzen dute. Inguruko pertsonez hitz egiteko joera hau mutil batzuengandik, batez ere adinez gazteagoak direnengandik mespretxatua izaten da, aspergarria delakoan:

*"Las chicas van a su rollo (…) dire Koti-Koti eta gu ez". (DBH 1. zikloa, mutilen taldea)*

**Mutilen kasuan, nerabezaroan zehar eboluzio argiago bat ematen dela dirudi: DBH 1. zikloan, jolasteko edo kirola egiteko espazioak bilatzen dituzte, baina nagusitu ahala, haien artean hitz egiteko edota musika entzun edo bideo-jolasetan aritzeko espazioak nahiago dituzte**. Batzuetan, tendentzia desberdin hauen arteko tentsioak sortzen dira, batzuek jolasten jarraitu nahi dutelako eta beste batzuentzat jolasa dagoeneko aspergarria bihurtzen hasia delako.

Edozein kasutan, neska zein mutilentzat **DBHko 2. zikloan espazio propioaren beharra lehentasunezkoa bihurtzen da**. Leku hau idealki nolakoa izango litzatekeen galdetzean, horrela definituko lukete: beroa, aulki eta silloi erosoekin, sukalde batekin eta kobertura onarekin mugikorrarekin egoteko.

Gaztelekuetan ere koadrila bakoitzak bere lekua aldarrikatu eta baloratzen du, eta jarduera arautu eta antolatuak egin ordez, haien nahi eta gustu kolektiboak aurrera eramateko markoa ahalbidetzea eskatzen dute. Aretxabaletako Gaztelekuan definitu duten moduko leku erosorik ez dutela kexatzen dira.

Nerabe gutxi batzuek, eta DBH 2. zikloan, lokala alokatzearen bidea hartzen dute. Hauentzat, **lokala oso espazio zentrala bihurtzen da haien bizitzetan, eta harrotasunez adierazten dute haiek erabat libre diren espazio bat dutela.** Lokalaren inguruan egituratzen dira koadrilako kideen arteko harremanak: bertan gelditzen dira, bertan afaldu, bertan musika entzun, jolastu, eta kasu batzuetan, alkohola kontsumitu eta erre ere. Alderdi negatiboak ere aipatzen dituzte batzuek: lokalaren inguruan hartu behar diren erabakietatik sortutako koadrila barneko gatazkak eta ordaindu behar izatea, besteak beste.

Nerabeen inguruan egin diren ikerketetan ere aipatzen da, batez ere neskek eta adinez gazteagoak direnen artean, lokal bat hartzeko hautua kalean ez egoteko egiten dutela, neurri handi batean. Hortaz aparte, helduen kontroletik at dagoen leku bat izatea eta nahi duzun guztietan joateko aukera izatea lirateke beste bi arrazoi nagusiak.

Dena den, Aretxabaleta eta Eskoriatzako herrietan lokalen intzidentzia ez da altua, gazte gehienek ez baitute horrelako espaziorik alokatzen. **Lokala ez duten nerabeek, ez dute lokal propioa bera faltan botatzen, baizik eta elkarrekin lasai egoteko leku bat.** Beraz, planteagarria litzake udalak, nerabeekin elkar-kudeaketa sistema baten bitartez, bitartekoak eskaintzea espazio hauek lortzeko edo Eskoriatzan egiten ari diren moduan, Gaztelekuan espazio bat uzteko.

Azkenik, aipatzekoa da nerabe batzuek taberna eta kafetegiak ere aipatu dituztela lasai hitz egiteko espazio moduan. Batzuek, kiroldegiko kafetegian egotea atsegin dutela aipatzen dute, hitz egiten edo eskolako lanak egiten egoteko (neskek bereziki). Beste batzuek, "Dagda" taberna ere aipatzen dute (mutilek bereziki), batez ere bertan "wifi-ra" konektatuta egon eta bideo-jokoetan aritzeko aukera dutelako. Talde batean, euren adinekoak bakarrik egon daitezkeen kafetegi edo taberna bat ere eskatu dute.

### Kirola eta jolasa

Nerabeak, batez ere mutilak eta DBH 1. zikloan, kirol edo jolas ezberdinak lagunartean praktikatzeko gelditzen dira. Horretarako, herrian dauden hainbat plaza baliatzen dituzte. Gehien jaso direnak Eskoriatzako Luis Ezeiza plaza, ikastetxearen eta Gaztelekuaren ondoan dagoena, Aretxabaletan Herriko plaza, Hirusta edo Ilargi plaza, zein Iralabarri plaza eta Gorosarri dira. Bertan praktikatzen dituzten kirol eta jolasen artean futbola nagusitzen da. Bestetik, askok dute bizikletaz ibiltzera joateko ohitura ere, DBH 1. zein 2. zikloan, eta ohitura hau neska batzuen artean ere ematen da. Horretarako, bi herrien inguruko mendiak zeharkatzen dituzte: “Muru gain” mendia, “Asensio” eta halakoak aipatu dira.

Irudia 12: Nerabeekin burututako saioetan herrietako mapekin egindako ariketa espazioak identifikatzeko. 2018ko iraila-urria

Egilea: Farapi Koo. Elkartea

Azkenik, kirol instalazioen inguruko gogoeta bat plazaratu nahi dugu. Izan ere, **Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeak kirolzaleak direla esango genuke, eta haien aisialdiaren parte handi batean kirol jarduerak egiten dituzte, era arautuan zein erabat librean.** Orokorrean, haien denbora librean, mutilek egiten dute kirol gehiago eta lagun taldea ere, kirolaren inguruan egituratzen dela dirudi. Horregatik, kirol zerbitzu eta instalakuntzen hobekuntzak haien aisialdia osasuntsuagoa izan dadin eragin dezakeela uste dugu. Hauek dira jaso diren kirol-instalazioei buruzko hobekuntza proposamenak: patinatzeko lekuak sortzea, bizikletan ibiltzeko zirkuituak egitea, skate park (Eskoriatzakoan patinekin ibiltzea arriskutsua da eta Aretxabaletakoa hobeto egon arren, gazte helduagoak egoten dira porroak erretzen), futbolerako leku gehiago egokitzea, bolatoki bat…

Azkenik, neska talde desberdinetan aipatutako proposamena dugu, udarako igerileku irekia egitea, alegia. Kirola egiteaz gain, egunean zehar lagunekin egoteko eta ingurunearekin harremantzeko espazio egokia izan daiteke, eta haien herrietan gelditzeko aukera oso erakargarria.

### Herritik ateratzea

Asteburuetako plan hauetan, nerabeak normalean herrian gelditzen direla esan dezakegu, baina DBH 2. zikoan, herriko mugak gainditu eta ondoko herrietara joateko gogo handia izaten dute. Adin honetan, **herria txiki gelditzen zaiela dirudi, eta hiriak eta bertan egin daitezkeen jarduerak gehiago baloratzen hasten dituzte**. Horretarako, kotxe edo motorreko gidabaimena lortzean pentsatzen hasten dira. Oro har, alboko herri handiagoek duten eskaintza zabalagoa baliatzeko mugitzen dira beste herrietara eta aisialdi kontsumistari lotutako jarduerak egitera: dendak, zinemak, tabernak, kiroldegiak…

Batik bat, Arrasate edo Gasteizko Boulevard-era mugitzen hasten dira, eta zinemara edo dendetara joateko egiten dutela ikusi dugu. Zinemara neska zein mutilak joaten dira, eta dendei dagokionez, neskak gehiago doaz arropa saltzen den lekuetara eta mutilak kirolari lotutako dendetara. Eskaera modura, askok aipatzen dute herriko zineman pelikula hobeak edo euren gustukoagoak direnak jarriz gero, ez luketela beste herrietako zinemetara joan beharrik izango. Herrian denda gehiago egotea ere ondo legokela aipatzen dute.

Dena den, eskaintza hori baino gehiago, leku eta gauza berriak probatzeko gogoa, zein orain arteko mugak gainditzekoa lirateke benetan beste herrietara edo bidaiatzera mugiarazten dituztenak.

### Gaua eta jaiak

Aurretiaz azaldu dugun moduan, gauez ateratzea nerabeen autonomian mugarri nagusienetako bat da. **Prozesu progresiboa izaten da, eta oso patroi anitzak daude nerabeen artean**: gurasoek jartzen dituzten mugak eta nerabeen eta koadrilen gogo eta joeren arabera, ezberdintasun handiak daudela esan genezake.

DBH 1. zikloko talde batzuetan badaude jada gauez sarritan ateratzen direnak, baina nahiko salbuespena direla esango genuke, eta beste taldekide batzuek ez zuten begi onez ikusten, gazteegiak zirela antzematen zutelako. **DBH 2. ziklora heltzean, eta 15 urterekin, gauez ateratzeko joera egonkortzen hasten da**, eta beraz, adin honetan litzake, gaueko ohituren eta dinamiken inguruko hausnarketa pertsonal eta kolektiboa egiteko momentu aproposa. Adin honetan salbuespena kontrakoa da: gauez ateratzen ez direnak, edo besteak baino denbora gutxiago gelditzen direnak. Taldeen artean gauez ateratzea estatus kontua ere bada, eta kalean denbora asko egoten direnak, “guay”agoak kontsideratuak izango dira adin honetan.

**Gauez ateratzen direnentzat, gaua bera erakargarria da, eta helburua egote hutsa da, ez dago zuzenean egiten duten jarduera konkretuei lotuta**. Hau da, gauez kalean lagunekin egon nahi dute, haientzat transgresorea delako, eta haien espazio propioa sortzea dakarrelako. Hasieran, kalean egoten dira, baina gero eta gehiago leku itxiak bilatzen dituzte (neguan batez ere), lokala dutenak lokala, eta besteak tabernetan ibiltzen hasten dira. Drogen kontsumoarekin ere lotzen dute, baina drogak ez dira gauez ateratzeko helburua, baizik eta testuinguru konkretu batzuetan ematen diren dinamikak erreproduzitzeko era. Hau da, txosnetan badaude, eta bertan denek edaten badute, haiek ere egiteko tentazioa edukiko dute. Dena den, ondorengo atalean sakonduko dugu gai honetan.

**Herrietako jaietan ateratzea oso garrantzitsua da koadrilaren beraren izaera indartu eta beste koadriletako nerabeekin harremanak egiteko**. Dena den, haien herrietako jaietan ere, lekurik aurkitzen ez dutela kexatzen dira batzuk. Nerabetasunaren ez-leku egoera hau jaien testuinguruan irudikatuko litzake hoberen: jaiak teorian herritar guztiei zuzentzen dira, umeek

badituzte haien jolasak, gazteentzat txosnak egoten dira, jubilatuen afariak antolatzen dira, baina zer dago jaietako programetan eta egokitutako espazioetan 12-16 urtekoentzat?

Herrietako jaietan, DBH 1. ziklokoak barraketara joaten dira, eta Eskoriatzakoak Aretxabaletakoak baino hobeak direla diote. Dena den, ez da erabat asetzen dien jarduera, baizik eta ondo pasatzeko haien tokia topatu dezaketen leku bat. DBH 2. zikloan, txosnetan ibiltzen hasten dira, baina oraindik nahiko arrotza sentitzen duten espazioa da eta bertara joaten direnak "helduegi" eta "mozkorregi" moduan definitzen dituzte. Kontzertuak ere erakargarriak dira adin hauetan, eta eskaintza zabalagoa eskatzen dute. Orokorrean, nerabeentzako hutsune honetaz kontziente, haien gogoak eta eskakizunak aintzakotzat hartuko dituen festa eredu bat eta jarduerak aldarrikatzen dituzte.

> *"Guretzako ez daude hain beste gauzak (…) gazteak 16 urtetik gora egoten dira txosnetan, txikintzat daude gauza pilabat, baina gero gure edadetaz ez da iten ezer (…) (Txosnata) ez gara juten ez daukegulako edadea (…) jende mozkorra dau (…) ta ezin zara sartu … dau jente pilabat" (DBH 1. Zikloa, nesken taldea)*

Honekin batera, bereziki jaietan adin bereko **beste nerabe-gazte batzuekin sozializatzeko espazioak ere bilatzen dituzte, neska eta mutilen arteko gerturatzeak ere errazten dituztenak.** DBH 2. zikloan ondoko herrietako jaietara joaten ere hasten dira: Arrasate, Gasteiz, Oñati… Ondorioz, beste herrietako nerabeekin harreman sareak sortzen ere hasten dira.

## 6.3. HARREMANAK

Haurtzaroan zaintzaile eta erreferente nagusiak gurasoak izan dira, umeek lotura afektibo oso estua izan dute haiekin eta jarduera gehienak familia testuinguruan egiten ziren, baita aisialdiari lotutako aktibitateak ere. **Nerabetasunean murgiltzeak, gurasoekiko distantziamendu fisiko eta emozionala ere dakar, eta berdinen arteko taldea (lagunak) erreferente nagusi** bihurtzea.

Nerabeekin egindako saioetan ez dugu zuzenean landu gai hau, baizik eta zeharka, haien aisialdian egiten dutena eta egin nahiko luketenari buruz hitz egitean. **Harremanen gaia era naturalean azaldu da, haien nerabetasunaren inguruko ikuspegia, haien egunerokotasuna eta identitatea erabat gurutzatzen** duelarik.

Gainera, nerabeekin kontaktuan dauden beste eragile batzuekin egindako elkarrizketetatik (UDA taldea, kale hezitzaileak eta Gaztelekuko begiraleak) ateratako informazio aberasgarria ere baliatu dugu atal honetan. Izan ere, haiek nerabeekiko duten ikuspegia zein nerabeek haiekiko dutena esanguratsua da diagnostiko honen helburuetarako.

Ondorengo lerroetan, nerabeen harreman mundua hiru esparrutan berezitu dugu: lagun taldeak, gurasoekin harremanak eta helduen mundua. Nerabezaroan hiru esparru hauek transformazio prozesuan daudela esan genezake, eta prozesu honen gakoak identifikatzen saiatu gara.

### 6.3.1. Lagun taldeak

Diagnostiko honetan errepikatu den moduan, nerabezaroan lagun taldea bihurtzen da erreferentziazko esparru nagusia, beraien identitatea eraikitzeko nukleoa. Izan ere, nerabeen hitzetan, **haurtzaroarekin haustura irudikatzen duen oinarrizko elementuetako bat lagunekin gero eta gehiago egoteko gogoa** da. 12 urterekin laguntasuna garrantzitsua da haien bizitzetan, baina sarritan beste jarduera batzuei lotuta azaltzen da, kirola egitea edo eskolatik ateratzean elkarrekin egotea adibidez. Baina **16 urtera edo DBH 2.ziklora gerturatu ahala, lagunekin egotea bera helburu bihurtzen da**, eta lagun taldeak zentralitatea hartzen du progresiboki.

Lagun taldearen indarra esperientzia eta bizi prozesu berdinak konpartitzean oinarritzen da; alegia, nerabe baten desirak, ezinegonak eta beldurrak beste nerabe batzuen antzerakoak dira, eta haiekin lortzen duten identifikazio eta ulermen maila ezin dute beste batzuekin lortu.

> *"Guraso batekin berba itea eta lagun batekin hitz egitea ez da berdina, ze gurasoak ez daude zure leku berdinean eta lagunak bai (…) Gurasoek igual ulertu ahal zaitue baina igual ezin dau egin ezer ez eta zure lagun taldeak bai". (DBH 1. zikloa, nesken taldea)*

Koadrilak eskolan sortzen dira normalean, baina aisialdiari lotuta egituratu eta indartzen dira. Askotan, eskolaz kanpoko ekintzak partekatzen dituzte, baina haientzat **garrantzitsuena asteburuetan elkarrekin egotea da, hor eraikitzen baitu koadrila bakoitzak bere identitate propioa eta hor partekatzen dituztelako esanguratsuak diren esperientziak**.

Lagun taldearen eraketan, koadrilaren autoidentifikazioa oso garrantzitsua da; alegia, beraiek beste nerabeengandik banandutako nukleo bat dutela sentitzea. Honek "gu"a definitzeko eta beste taldeetatik bereizteko beharra dakar, beraien taldetik kanpo eta barne sentitzen duten elementuen bitartez. Era honetan, talde bakoitzak bere **koadrila kultura propioa sortzen eta**

**elikatzen du**. Haientzat nahiko luketen espazioen inguruan hausnartzean ere, haien koadrilarentzako lekuak aldarrikatzen dituzte, haien adinakoentzat baino gehiago.

Adina elementu zentrala da honetan, **urte bat gehiago edo gutxiago dutenak dagoeneko oso desberdin pertzibitzen** dituztelako, eta haiekin harremanak izateko gogorik ez dutelako. Salbuespen moduan, DBH 2. zikloko nerabe batzuek aipatu zuten jaietan helduagoak direnekin egotea gustuko dutela.

Beste bereizgarritasun nabarmen bat generoa litzake. Neska eta mutilen sozializazio prozesuan nerabetasuna bereizketa momentu gakoa izaten da, hemen sortzen baitira etorkizunean mantenduko diren koadrilak, gehienetan, ez mistoak direnak. **DBH 1. zikloko nerabeek neska eta mutilak bereizten dituzten ezaugarriak eta gustuei garrantzi handia ematen diete, eta neska eta mutilen arteko oposiziotik eraikitzen dute neurri handi batean haien "gutasuna"**. Mutilek futbolean edo play stationean jolasten dutela eta neskak hitz egiteko denbora gehiago nahi dutela da izaten da elementu bereizgarri nagusia, eta zailtasun handiak dituzte zurruntasun binario hau apurtzen den momentuak eta jarduerak antzemateko.

> *"Las chicas van a su rollo (…) dire Koti-Koti eta gu ez". (DBH 1. zikloa, mutilen taldea)*
>
> *"Mutilak danak futbolean, ez dute egiten beste edozer gauza. (…) Bakarrik daudenean majoak dira, baina piñan daudenean harrotu egiten dira." (DBH 1. zikloa, nesken taldea).*

Irudia 13: Nerabeak burututako saio batean
2018ko iraila-urria
Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Adinean hazi ahala, neska eta mutilek gustuko duten jarduerak antzerakoagoak bihurtzen hasten dira, eta mutil askok haien artean hitz egiteko eta aisialdi pasiborako gero eta gogo gehiago dutela aipatzen dute. **DBH 2. zikloan, jai giroan ateratzen hasten dira, eta testuinguru honetan neska eta mutilak elkartzen hasten dira**. Jaietan ateratzea oso maiz egiten ez duten arren, garrantzitsua da haien biografietan.

Agerikoa da, beraz, marko teorikoan aipatu dugun moduan, neska eta mutil izatearekin lotzen dituzten ezaugarriak genero estereotipoetan oinarritzen direla, eta neska eta mutilen arteko bereizketa oso argia mantentzen dela, jaiak eta gaua salbuespen izanik.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako kasuetan beste elementu bereizgarri bat bi herrien arteko harremanak litzake. Koadrila batzuk bi herrietako nerabeez osatuta daude, eta gelditzeko lekuak txandakatzen dira, baina orokorrean, koadrila bakoitza herri horretako kideez osatuta egoten da. Honek taldeen identitatea indartzen du, Eskoriatzakoa edo Aretxabaletakoa izatea elementu bereizgarri bihurtuz. Honi lotuta, euskalduntasunaren inguruko mailaketa bat ere azaltzen da: Aretxabaletakoak euskaldunagoak dira, orokorrean horretaz harro daude eta negatiboki baloratzen dute Eskoriatza "erdaldunagoa" izatea.

Diagnostiko honetan zehar aipatzen joan garen moduan, nerabetasunak izaeraren ezaugarri berri batzuk garatzea dakar, eta haurtzaroarekin haustura progresibo bat egitea. Prozesu honetan lagunen arteko birkokapenak ematen dira, eta txikitako lagun taldeak mantendu edo eraldatu daitezke. Landa lanean parte hartu duten nerabe batzuk lagunen aldaketa prozesu hau era mingarrian bizi izan dute eta ez dira eroso sentitzen beraien talde egitura berrian. Norberaren identitatea eraikitzerako orduan lagun taldea hain garrantzitsua den adina honetan, esparru honetan gustura ez egoteak barne-krisiak eta bizipen gogorrak eragin litzake. Nerabe batzuek haurtzaroarekiko begirunea eta heldutasun osora heltzeko gogoa erakutsi dute, baina trantsizioko fase honetan baztertuta eta mespretxatuta sentitzen dira. Horregatik, ahalik eta arinen beste herri batera joatea eta lagunez aldatzea desiratzen dute.

> *"Yo me siento como si no fuera de aquí, como si fuera de Marte. (…) Bizitzaz aldatu nahi dut. Como empezar de cero, pero con 15" (DBH 2. zikloa, talde mistoa)*

Honi lotuta, aipatzekoa da *bullyng* egoeren gaia ere hor dagoela. Dena den, guk burututako saioetan eta nerabeekin izandako hartu-emanean ez zaigu gai honen inguruko aipamenik edo gai honekin lotura duen zantzurik topatu. Hala ere, eta aurrerago aipatu dugun moduan ("nerabeen ingurunea" eta "eskolarekiko harremana" ataletan), ikerketa ezberdinek erakusten dute kasu hauek egon badauden arren, hauen detekzioa oso zaila dela.

Azkenik, lagun artean sare sozialen erabilerak duen intzidentziaren inguruko hurbilpen bat egin nahiko genuke. Lagunak elkarrekin fisikoki ez egoteak ez du esan nahi lagunen presentzia ez dutenik, mugikorraren bitartez etengabe konektatuta baitaude. DBH 2. ziklotik urtetik aurrera eta neskek bereziki, gauetan etxera heltzerakoan lagunekin sare sozialen bitartez hitz egiteko momentuak hartzen dituzte. Gainera, **bakardadean egiten dituzten aktibitate asko (musika entzun, serieak ikusi…) taldeko beste kideekin konpartitzen dituzte eta beraz, fisikoki bananduta egin arren, talde izaera duten jarduerak direla** esango genuke. Harreman birtualak izaera eta kodigo propioak ditu, baina aldi berean, egunerokotasunean egiten dutenaren luzapen edo hedapen bat ere ematen da. Nahiz eta nerabeek komunikazio eredu honetan arriskurik identifikatzen ez duten, arreta jarri beharreko gaia da, sortu dezakeen menpekotasunagatik eta kontrola eta jazarpenerako tresna izan daitezkeen neurrian. Gainera, marko teorikoan aipatu dugun moduan, eremu birtualean neskak mutilak baino zaurgarriagoak dira, haien bizitza pertsonaleko erreferentzia gehiago egiten dutelako.

### 6.3.2. Gurasoak

Gurasoekiko urruntasuna nerabetasuna ezaugarritzen duen elementuetako bat da. Nerabeek beraien autonomia aldarrikatzen dute eta lagunek betetzen dute pertsona erreferentzialen

lekua era progresibo batean. Gurasoak babesleku emozional nagusia izateari uzten diote, eta **haien rola funtzionalagoa eta mugak ezartzeari lotuagoa** gelditzen da. Nerabeek gurasoekin tira-birak izatea garai honetako ezaugarri naturala dela pentsatzen dute.

DBH 1. zikloko taldeetan, gurasoekiko urruntze horretan **lehen urratsa gurasoekiko sekretuak izaten hastea** da. Batetik ez direlako erabat haietaz fidatzen, eta bestetik, beraien bizipen eta sentimenduez lotsatzen hasten direnez, nahiago dutelako gurasoek haiei buruzko dena ez jakitea.

Aurretik aipatu bezala, **lagunen artean, esperientzia berdinak bizitzeak konplizitate eta ulerkortasun maila altuagoa sortzen** du, eta beraz, progresiboki lagunek hartzen dute konfidente papera. Gainera, lagun taldearen baitan onartua eta baloratua izateko exijentzia hain altua den neurrian, lagunen iritzi eta aholkuak pisu gehiago izango dute helduenak baino: garrantzitsuena beste nerabeek uste dutena eta baloratzen dutena izango da.

Gainera, adina honetan autonomiarako gogoa pizten hazi ahala, **gurasoek haiekiko dituzten ardurak presio eta agobio moduan** bizi dituzte batzuek: oso gainean sentitzen dituzte, ikasketekiko eta arriskutsutzat jotzen dituzten jarrerekiko bereziki. Nesken kasuan, drogak eta sexualitatea izan ohi dira, eta mutilen kasuan, drogak eta ikasketak. Gurasoen ardura hauek nerabe batzuk ezeroso eta kontrolatuta sentitzea dakar:

> *"Es incómodo porque no sabes lo que te van a preguntar. (…) Gurasoek dana jakin nahi dute eta ezin dute dena jakin. Azkenean gurasok danaz enteratzen dira" (DBH 1. zikloa, nesken taldea)*

Marko teorikoan aipatu dugun moduan, nerabeentzat gurasoekin komunikazio irekia izatea asko baloratzen duten ezaugarria da, baina aldi berean, nerabeen %30-40ak adierazi duela beren gurasoek gutxi edo oso gutxi dakitela denbora librean egiten dutenaren inguruan. Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeek ere, gurasoekin duten komunikazioa ondo baloratzen dute, baina **haien esparru pribatua kontsideratzen dutena ez dute gurasoekin partekatzen**, **eta aisialdia, progresiboki, gero eta pribatuagoa kontsideratzen hasten dira.** Gainera, nerabeek aipatu duten moduan, badaude gai batzuk ez dituztela gurasoekin hitz egin nahi: gehiegi arduratuko direlako, lotsa ematen dietelako edo badakitelako gurasoen arbuioa izango dutela.

DBH 1. zikloan, gurasoekin jarduera batzuk egiten jarraitzen dituzte. Adibidez, batek baino gehiagok aipatu du gurasoekin kirola egitea gustuko duela (korrika egitea, bizikletan ibiltzea edo skia, besteak beste). Nesken kasuan, amekin arropa erosketak egitea ohiko jarduera da, batez ere, beste herri batera joan behar badira, Arrasate edo Gasteiz kasu. **Bidaiak familian egitea ere gustukoa da adina honetan**, herrialde atzerritarretara batez ere. Harreman hauek, lagunen harremanekin konparatuta, utilitaristagoak dira, helburua egiten den hori baita, eta ez konpainia bera. Gainera, batek baino gehiagok aipatzen dute, ahalko balute, lagunekin egingo luketela jarduera guzti hauek.

DBH 2. zikloan, gurasoekin gero eta jarduera gutxiago egiten dituzte. Nerabeentzat beraien ohikoa den testuinguruetan nahiago dute gurasoekin ez egon, eta batzuek lotsa ere sentitzen dute herritik gurasoekin egoteaz edo topatzeaz. Beraien harreman publikoak lagunekin esklusiboki izatea nahiko lukete. Hala ere, interesgarria da **haien testuinguru sozialetik kanpo, gurasoekin gustura egiten dituzten jarduera batzuk mantentzen dituztela,** bidaiatzea edo egun pasako planak egitea, adibidez.

Adina honetan, gurasoez espero dena anbiguoa bihurtzen da: batetik, askatasun eta konfiantza gehiago aldarrikatzen dute, eta gurasoekiko urruntzea beharrezkoa da beraien identitatea

eratzeko prozesuan. Dagoeneko ez dute behar beraien ongizateaz erabat arduratuko den figura heldua, baizik eta progresiboki, beraientzat ona eta desiragarria dena identifikatzen hasten dira eta horrekiko erantzule egiten eta beraien erabaki propioak hartzen.

Baina, aldi berean, **gurasoek muga batzuk jarri behar dizkietela ere onartzen dute**, batez ere arriskutsuak izan daitezkeela kontsideratzen duten gaietan: drogen kontsumoa eta gaueko ordutegiak. Gai hauekin tentsioak eta tabuak egon arren, gurasoen rola beraiez arduratzea dela onartzen dute gehienek. Ikuspegi honek bat egiten du lanketa bibliografikoan atera diren ondorioekin, nerabeei gurasoez zer espero duten galdetzean "gainbegiratze eta kontrol funtzioak" ere aipatzen dira eta (Oliva et al., 2017).

Azkenik, gurasoekin pasatzen duten denbora eta harremanen inguruko aipamen batzuk egingo ditugu; izan ere, nerabeen garapen orekatu eta osasuntsurako gurasoekiko distantziamendua ohikoa eta garrantzitsua den bezala, haiekiko konfiantza eta sostengu emozionala mantentzea ere beharrezkoa da.

Gurasoekin duten **harremana ere oso desberdina da astean zehar ematen den errutina eta asteburuetako planen artean**. Astean zehar, DBH 1.ziklokoak oraindik pasatzen dituzte tarte batzuk gurasoekin, kirola egiteko (bizikleta edo igeriketa, adibidez) edo erosketak egiteko, adibidez, baina orokorrean, gutxi dira gurasoekin jarduera propioak egiten dituztenak. Aipatu dugun moduan, astean zehar aktibitatez jositako errutina izaten dute nerabeek, eta ez dute denbora libre asko izaten. **Gurasoak nerabeek beraien jarduerak egin ditzaten laguntzaile edo losgistika arduradun dira, kotxez ingeleseko klaseetara eraman edo merienda eman**, adibidez. Ondoren, etxe barnean egoten diren denboran, ez dituzte ia jarduera konpartiturik egiten, momentu hauetan nerabeak nekatuta egoten direlako sarritan, eta bakardadea bilatu edo haien gustuko musika entzun edo serieak ikusi nahi dituzte. DBH 1.zikloan, batzuek oraindik gurasoekin partekatzen dituzte ekintza edo momentu hauek, baina gero eta gehiago dira, gailu propioak dituzten nerabeak (telebista haien gelan edo mugikorra) eta gaualdeko aisialdi hau bakarrik edo mugikor bidez lagunekin on-line konektatuta bizi nahi dutenak. Hau, batez ere, adinez nagusiagoak direnen artean edo DBH 2. ziklokoengan ematen da: hauek iluntze-gauean gurasoekin egoteko eta hitz egiteko gogo gutxiago izaten dute.

Asteburuetan, denbora libre gehiago izaten dute, eta gustuko duten jarduerak egiteko aukera izaten dute. Hemen, lagunak zentralitatea irabazten doazen arren, batzuek gurasoekin planak egiteko joera dute. DBH 1. zikloan gurasoekin eguna etxetik kanpo pasatzea plan erakargarria da, kirola egitea edo leku desberdinak ezagutzea, adibidez. DBH 2. ziklotik aurrera, plan hauek lagunekin egitea lehenesten dute, eta gurasoekin gustura egiten duten bakarra bidaiatzea da.

### 6.3.3. Helduen mundua

Nerabetasuna trantsizio fase den neurrian, haurtzaroarekiko eta mundu helduarekiko erdigune batean kokatzen da. Ume izatetik urrundu direla argi dute, baina oraindik ez dakite nolako pertsona helduak izan nahi duten. Gurasoak eredu izan ziren haurtzaroan zehar, eta horren oinarriak gelditzen diren arren, gurasoekiko haustura fase honetan erreferentzialtasuna galtzen dute. **Nerabeen garapen prozesuan beharrezkoak dira heldu eredu positibo eta anitzak izatea, haiengan proiektatzeko eta etorkizunean izan nahi duten horri arduraz eta askatasunez heldu ahal izateko.**

Irakasleek rol funtsezkoa izan dezakete honetan, baina orokorrean, salbuespenak egon arren, **ez dute ikasleen partetik begirunerik sortzen: eskolaren marko hertsian eta honi lotutako ardura eta betebehar sisteman dauden figurak** dira. HBSCk egindako ikerketaren emaitzetan

oinarrituta, nerabezaroan igo ahala nerabeek irakasleengan duten konfiantza maila jaisten da: DBH 1. zikloan daudenen artean %41ak du konfiantza handia edo oso handia irakasleengan, eta DBH 2. zikloan %34ak soilik.

**Gaztelekuko begiraleak, kale hezitzaileak edo kirol eta aisialdi taldeetako begiraleak, ordea, nerabeen aisialdi denborak egoten dira, eta nerabeentzat gustuzkoak eta aukerazkoak diren jardueren** bueltan. Hauekin harreman atseginagoak eraikitzeko aukera dute, eta batzuen kasuan, jarduera konkretuaren testuingurua gainditzen duten gaiez ere hitz egiteko parada dute.

Kiroleko hezitzaile eta entrenatzaileekin, diziplina eta arauen markoan kokatzen dira, eta errespetu handiko figurak dira haientzat. Haiek esaten dutena garrantzitsua eta baliogarria da, eta batzuetan hausnarketa aberatsak ematen dira kirol entrenamenduen denboran. **UDAko entrenatzaileek esan digutenez, haiengan konfiantza duten gazteekin hezitzaile funtzioa ere** betetzen saiatzen dira: batzuek haiengana jotzen dute gai konkretuekin (gurasoekin harremana, ikasketetan zailtasunak…), eta beste batzuetan, entrenatzaileak saiatzen dira gai konplexuagoen inguruan hitz egiteko espazioak sortzen (lehen sexu harremanak, parrandak…). Horretarako, umoreaz baliatzen dira, tresna oso egokia nerabe eta helduen arteko harremanean konfiantza sortu eta gai zailei heltzerako orduan.

Kirol elkarte honen ikuspegiaren baitan, kirola eta osasun integrala oso lotuta daude, eta horregatik, ikuspegi hezitzaile batetik, **gazteengan ohitura osasuntsuak sustatzen saiatzen dira.** Azken epealdian boluntariozkoak diren entrenamendu ordu batzuk ere gehitu dituzte, adin desberdinetako gazteak bildu, aisialdi librean zeregin osasuntsua izan dezaten eta gazteenei helduagoak diren erreferente positiboak emateko helburuekin.

Mutil nerabe askok futbolari denbora eta interes asko dedikatzen diote (praktikatzean, futbol partidak ikustean eta ereduak bilatu eta imitatzean) eta asko miresten duten esparrua da. Horregatik, ohitura osasuntsuak sustatu eta erreferente positiboak lantzeko eremu pribilegiatua da. Dena den, kontuan izan behar dugu, futbolak maskulinotasun hegemonikoaren baloreak indartzen dituela, eta eredu honekin bat egiten ez duten mutilek hemendik baztertuta gelditzen direla. Gainera, neska gehienek ez dute futbolarekiko zaletasun berdina, eta dutenetan, beste balore batzuei atxikita egiten dute sarritan.

> *Entrenadore moduan bai, euki nauen mutiko bat, les cogi con 10 años eta les he tenido hasta los 16 mas o menos, ta ordun horrek ha dejau con la novia y me lo cuenta, he discutido con el padre, me lo cuenta, he pencau no se qué (…) eta ordun hoiekin bai da (…). No sé el caso que te hacen, baina behintzat les escuchas un poco, hablas con ellos eta… (UDA Kirol Elkartea)*

Gaztelekuko eragileei dagokionez, kirolekoak baino gertuago sentitzen dituzte, eta harremana ez da beti egituratzen jarduera konkretuen inguruan. Sarritan **begiraleekin hitz egitea bera bilatzen dute nerabeek, haien ikuspegia aintzakotzat hartzen dutelako eta erreferentziazko pertsonak direlako**. Begiraleak honetaz kontziente dira, eta nerabeekin egiten dituzten jardueretan eta izaten dituzten elkarrizketa informaletan ikuspegi hezitzailea txertatzen dute.

Orokorrean, begirale gazteak nahiago izaten dituzte, haien errealitatetik gertuago sentitzen dituztelako. Hala ere, DBH 2. zikloko batzuek, begiraleenganako konfiantza galdu dutela aipatu dute: txantxaren bitartez mingarriak egin zaizkien gauzak esan dizkiete, eta beste kasu batzuetan, ez dute konfidentzialtasuna bete eta nerabeek haiei esandakoa beste norbaiti kontatu diote. Nerabe batzuk honetaz kontziente dira, eta mugak jarri dituzte begiraleekin duten harremanean eta gai intimoi buruz hitz egiteari uko egin diote.

Gaztelekuari buruzko atalean sakonduko dugu espazio honen inguruan, baina bai aipatu nahi genukeela begiraleak nerabeak eta mundu helduaren artean zubi eragileak diren neurrian, oso garrantzitsua dela haiekin konfiantza eta elkar errespetuzko harremanak eraikitzea eta erreferente positiboak izatea. Horretarako, **jarduera formal eta arautuak zein informal eta espontaneoak lantzea ezinbestekoa** da. Herritik kanpora egiten diren txangoak izan dira nerabeek gehien baloratu dutena.

## 6.4. SUSTANTZIEN KONTSUMOA ETA AISIALDIA

Sustantzien kontsumoa nerabeen aisialdiaz hitz egiten denean ardura gehien pizten duen gaietako bat da, batez ere gurasoen partetik. Aretxabaleta eta Eskoriatzako kasuetan, gainera, berriki egindako ikerketa baten emaitzek alarma piztu eta mota guztietako erreakzioak eragin ditu. Diagnostiko honetarako, ez dugu gaia zuzenean landu nerabeekin, ikerketaren helburua ez zelako, eta gure ikuspegiaren baitan, **aisialdiaren inguruan hausnarketa kritiko partekatua egitea aberasgarriagoa** delako. Gainera, drogen gaiarekin zuzenean sartzeak nerabeen partetik defentsa erreakzioa sortzen du, eta ez dute haien errez konpartituko haien bizipen eta iritziak. Hala ere, nerabeekin egindako saioetan aisialdiari buruz hitz egiteaz, eta bereziki, gauari lotutako jardueretan, gai hau azaltzen da, eta honi buruz hausnarketa partekatua egiteko baliatu dugu.

Ondorengo lerroetan, nerabeekin izandako elkarrizketatik ateratako gai nagusiak eta ondorioak azaltzen dira: droga desberdinen inguruan duten ikuspegia, haien kontsumo ereduaren inguruko hurbilpena eta gai honi buruz kanpotik jasotzen duten ikuspegia jaso nahi izan dugu.

Drogen kontsumoaz hitz egitean, **bereizketa argia egin behar da droga "normalizatu" eta "ez-normalizatu"en artean**. Lehendabizikoak, alkohola eta tabakoa litzateke, eta ondorengo ezaugarriak konpartitzen dituzte: kontsumoa legala da 18 urtetik aurrera, ohiko saltokietan lortzen dira (dendak, supermerkatuak, tabernak…), gizartean presentzia handia dute, eta testuinguru batzuetan erabat zentralak dira (jaiak, ospakizunak, gaueko planak…).

Nerabeak gizarte honetan daude, testuinguru honetan murgilduta daude eta haiek ere honen parte izan nahi dute. Izan ere, **nerabeek leku askotatik jasotzen dute droga hauen normalizazioaren aldeko mezua, eta haiek ere, adina heltzean, egingo duten zerbait dela asumitzen dute**. Adin hau, DBH 2. zikloan kokatzen da, eta hemen, beraien ingurunearen parte handi batek alkohol eta tabako kontsumoa normalizatu eta legitimatzen du: gurasoek, tabernetan edo txosnetan zerbitzen ditenek, gazte helduagoek… Horrela, haien lekuak bilatzen hasten dira drogen kontsumoa normalizatzen den espazioetan, tabernetan edo txosnetan adibidez.

> *Aunque de pequeño digas que no vas a beber, al final todo el mundo acaba bebiendo alcohol (DBH 2. Zikloa, mutilen taldea)*

Bestalde, orokorrean, droga "ez-normalizatuak" egongo litzake. Sustantzia gogorragoak dira, ilegalak eta gizartean legitimazio sozialik ez dutenak. Nerabeen artean hauek aipatu dira: kokaina eta speeda. Hauek espazio eta testuinguru oso konkretu batzuetan bakarrik legitimatzen dira (gauetako parranda konkretu batzuetan), eta nerabeen portzentaje baxuago batek egiten du hauetara salto. Hauen kontsumoak gizartearen eta lagunen parte baten eta gurasoen arbuioa ekarriko luke, eta ondorioz, nerabe talde batzuk banatzea ondorioztatu lezake: ingurune honetan murgiltzen hasten direnak eta ez.

**Cannabisaren kasua** bi esparru hauen artean kokatzen da: kontsumoa nahiko normalizatuta egon daiteke testuinguru batzuetan, eta nerabeek honekiko mezu anbiguoak jasotzen dituzte: **batzuek badakite kalteak eragin litzakeela burmuinean, baina beste batzuentzat, "landare" bat besterik ez da, eta ez dute ingurunearen arbuiorik sentitzen kontsumitzerakoan.** Menpekotasunaren inguruko kontzientzia gutxi adierazi dute.

> *"Ikusten dezu marihuana eta ya da como algo normal, pero también es un delito… la marihuana es un herbajo! Que vale mucho dinero… Es como si te fumas una planta de rosas (DBH 2. Zikloa, mutilen taldea)*

Diagnostiko honetan zehar azaltzen joan garen elementu gako batzuk azaltzen dira sustantzien kontsumoaren inguruan hitz egiten dugunean ere: **nerabetasuna heldutasunerako trantsizio moduan, autonomia eta askatasunaren konkista eta arriskuen ardura hartzea**, besteak beste. Izan ere, droga "normalizatuen" kontsumoa, gure gizartean nagusi eta heldu izatearen ezaugarri bat baldin bada, nerabeek ere patroi hau barneratzea beraiek ere nagusi egite prozesuan ari direla esan nahiko luke. Gainera, haien buruen eta erabakien jabe direla sentitu nahi dute, eta horrek espazio betatuak esperimentatzea eta mugak gainditzeko ahalegina egitea dakar. Esperimentazioa eta arriskua txanpon berdinaren bi aldeak lirateke.

Analisi honek testuingurua ulertzeko aukera ematen digu, baina ondoren, nerabe bakoitzak bere autu propioak hartuko ditu, elementu desberdinen arabera: drogen arriskuen inguruan jasotako mezuak, gurasoen erreferentzia eta eragina, koadrilako joera, egoera emozionala… Horregatik, **drogen kontsumoaren inguruan aniztasun handia** dagoela antzeman dugu, koadrila batzuetan kontsumoa erabat orokortuta dagoen bitartean, beste batzuek ez dute haien aisialdia drogen kontsumoarekin lotu nahi. Drogen kontsumoa eta gauez ateratzeko ohiturek taldeen arteko distantziamendua areagotzen du, nerabeen artean bereizketa argia markatzen duen ezaugarria baita.

Orokorrean, diagnostiko honetan parte hartu duten nerabeen artean adinaren araberako hiru joera azaldu direla esan dezakegu. **DBH 1. ziklokoentzat, sustantzien kontsumoak anbiguotasuna sortzen du**: batetik, erakargarria eta desiragarria egiten zaie, nagusiagoak direnean egin nahiko luketen zerbait; baina beste alde batetik, errespetua eta beldurra ere diete. Gutxiengo bat hasten da alkohola eta tabakoa kontsumitzen, eta adina bereko beste batzuentzat, jarduera arriskutsuak dira, "nagusiagoak" izatearen itxura emateko egiten den zerbait.

Adina honetan, Kilometroak, Euskal Jaiak, Euskararen Eguna eta egunez egiten diren horrelako festa handietan parte hartzen hasten dira, eta hemen alkoholaren presentzia oso altua, ia zentrala, eta kontsumo abusiboa oso agerikoa egiten da. Hemen lehen kontaktua izan dezakete gazte batzuek drogen kontsumoarekin, beldurra eta erakargarritasunaren artean, haien ikuspegi propioa landu gabe dutelarik. DBH 1. zikloan kontsumoa hasten dutenak gutxiengoa badira ere, aitzindariak bezala kontsideratu ahal dira, eta besteengan "normalizazio" efektua eragin lezake.

> *"Ez (dugu alkohola edaten), oraindik ez daukagu edadea (edateko), berez 18kin baina jendea 16kin hasten da, beste batzuk gure adinekin hasi die, eta txikitxo batzuk ere (…) mutiko bat erre iten zola 10 urtekin (…) (Jendeak alkohola edaten du) para hacerse el chulo, para creerse (algo) igual baso batekjn dabil ya lurretikan para llamar la atención" (DBH 1. zikloa, nesken taldea)*

Marko teorikoan aipatu dugun Health Behaviour in School Children ikerketan, **Euskadin alkohola edateko batez besteko adina 13,6 urtetan kokatzen da** (kontuan izanda gutxi batzuk 12rekin hasten direla, eta gehienak 14 betetakoan). Baina hasiera honetan kontsumoa oso baxua da eta 13 eta 14 urte bitartekoek probatu badute ere, %72ak bizitzan hiru aldiz baino gutxiago edan du (HBSC, 2014). Aretxabaleta eta Eskoriatzan ere patroi hau erreproduzitzen dela ondorioztatu dugu.

**14 urtetik aurrera eta orokorrean, DBH 2. zikloan, denbora eta espazioen malgutze eta zabalpena lortu** dutela esan daiteke, denbora gehiago egin ahal dute lagunekin, ordutegi eta leku berrietara helduz. Honek askatasun zentzazioa dakar, eta gero eta gehiago, haien buruen eta erabakien jabe direla sentitzen dute. **Arriskuen aurrean kontrol zentzazio gehiago** dute, eta "gaztetasuna" gerturatu ahala, gozatu eta bizitza topera bizitzearen premia sentitzen dute.

Gizartetik eta beraien ingurunetik ere, mezu hau jasotzen dute, eta aurretik esan bezala, 15-16 urtetik aurrera alkohola eta tabakoaren kontsumoa "normaltzat", ia "egin beharrekotzat" hartzen dute. Izan ere, **alkoholik edaten ez dutenak, "arraroak" eta haien adinetik kanpo egotearen zentzazioa dute**, eta batzuetan, beste nerabe batzuengandik baztertuta sentitzen dira.

**Alkohola edateko adierazten duten arrozoi nagusiak hauek dira: lotsa kentzea, normalean ausartzen direna egitea eta gehiago harremantzea.** Gehienetan graduazio altuko alkohola kontsumitzen dute (konbinatuak). Alkohola edateko maiztasunaren inguruan aniztasun handia dago: batzuk jaietan puntualki eta beste batzuk ia astebururo. Lokala izateak maiztasuna areagotzen duen faktore bat dela dirudi, larunbat gauetako plana bertan egotea bihurtzen baita, espazio pribatu eta ezkutuan, non drogen kontsumoa orokortu egiten den.

DBH 2. zikloan, lehen zuten arriskuaren beldurra asko murrizten da, eta orokorrean, muga bakarra "gehiegi ez edatea" litzake (koma etiliko bat ez izateko). Orokorrean, **ez dute alkohola edateko maiztasunaren, edariaren graduazioaren edo kontrola galtzearen arriskuen inguruko hausnarketarik** egiten.

Drogei buruz hitz egitean, **tabakoa eta cannabisaren inguruan ez dute aipamen askorik egiten, badirudi ez dela guztiz sartzen haien "drogen" imaginarioan.** Honen atzean egon ahal diren arrazoiak kontsumorako patroi desberdinak dituela izan daiteke. Cannabisa ez da asteburuetara mugatzen, ez da festa giroarekin zuzenean lotzen den zerbait, eta egunerokotasunean askoz errazago integratu daiteke. Gainera, erretzeko eran aniztasun gehiago agertzen da: erretzeko maiztasunean eta koadrila berean batzuek erretzea eta beste batzuek ez. **Talde guztietan ezagutzen dute eta ikusten dute cannabisa erretzen dutenik, baina oso gutxi dira beraien burua erretzailetzat dutenak**. DBH 1. zikloan oso pertsona gutxik aitortu dute erre izana, eta denak mutilak izan dira. DBH 2. zikloan, nerabe gehiagok adierazi dute probatu dutela, baina ez dute haien burua cannabis erretzailetzat ikusten. Honek erakusten digu substantzia honen atzean dagoen anbiguotasuna eta kontzientzia falta.

> *"Las tias van de formal. Son tias, al final a estas edades las tias no fuman porros ni hacen cosas así. Alguna fuma tabaco pero en plan postureo" (DBH 2.zikloa, mutilen taldea).*

Aurretiaz aipatutako HBSC ikerketan, Euskadi mailan cannabisa 15 urtetik aurrera hedatzen dela adierazten da, eta 15 eta 16 urte bitarteko nerabeen %15ak erre duela aitortzen du. Ikuspegi historiko batetik, gorakada bat eman dela adierazten da, eta gaur egun tabakoa eta cannabisaren kontsumoak berdintzen ari direla (HBSC, 2014). Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeak, beraz, badirudi kontsumo patroi orokorrago honen baitan kokatzen direla, baina **lehen kontsumitzaileak goiztiarragoak direla (DBH 1. zikloa)**.

Bestalde, sustantzia ilegal eta gogorrak egongo lirateke (speeda eta kokaina). Nerabeak kontziente dira gizartean eta haien inguruan gaitzesten diren drogak direla, haientzat ere tabu dira, eta ez dute era irekian kontsumitzen dituztela esaten. Dena den, 15 urtetik aurrerako batzuek probatu dituztela edo probatu dituzten jendea ezagutzen dutela onartu dute. Badirudi, droga hauek maila indibidualean eta banguardia moduan kontsumitzen dituzte oso gutxi batzuek; hau da, ez da koadrila osoak hartzen duen joera edo haien inguruan orokortzen den patroia. Baina kontuan hartu behar da, minorizatua izanda ere, hedatu daitekeen tendentzian bihurtu daitekeela adinean igo ahala, eta gutxiengo honengan arrisku nabarmenak eragin litekeela.

Azkenik, drogen prebentzioaren inguruko kanpainen inguruko hausnarketa bat egin nahiko genuke. Orokorrean, **kanpaina hauetan gizartearen estamentu desberdinetatik jasotzen duten mezu berdina helarazten zaietela uste dute, eta ez zaizkie baliagarria egiten.** Ez ditugu kanpaina hauen ikuspegiak landu, baina nerabeengan gelditzen den mezua hauxe da: drogak txarrak direla esan nahi digute, eta hori badakigu.

Dena den, drogen inguruan informazio falta dutela esaten dute askok: kontsumitzea erabakitzen badute, zein ondorio izan litzakeen jakin nahiko lukete, eta droga ezezagunen inguruko informazio gehiago ere botatzen dute faltan.

> *"Nos tendrían que dar cursillos, nos tendrían que enseñar sobre las drogas. Solo nos dicen que es malo pero no nos dicen los efectos ni nada (…) Siempre 'ez in hau, ez in hau' pero no sabes lo que hay hasta que lo experimentas" (DBH 2. zikloa, mutilen taldea)*

# 7. GAZTELEKUAK

Gaztelekuak Aretxabaleta eta Eskoriatzako udaletako gazteria politikak aurrera eramateko oinarrizko zerbitzuak dira, eta **nerabeek aisialdian egiten dutenarekin erabat lotuta** daude. Bi herrietako nerabe portzentaje oso altu batera heltzen dira eta saioetan parte hartu duten nerabe askok parte hartzen dute edo hartu izan dute Gaztelekuan edo hemendik antolatutako jardueretan.

Atal honetan saioetan parte hartutako nerabeek Gaztelekuaren inguruan duten ikuspegi eta bizipenak jaso ditugu, baina ikuspegi globalagoa izateko, Gaztelekuko hezitzaileekin eta gazteria teknikariarekin egindako elkarrizketetatik ateratako ondorioak ere bildu dira. Helburua ez da zerbitzuaren balorazio konpartitu bat egitea (hau Gaztelekuak berak egiten baitu), baizik eta ikuspegi anitzetako hurbilpen bat egitea eta prozesu honi lotuta egon daitezken erronkak identifikatzen lagundu dezaketen analisia egitea.

## 7.1. ABIAPUNTUA: ZER DIRA GAZTELEKUAK?

Gaztelekuak nerabeei (hau da, batez ere 13-16 urte artekoei) eskaintzen zaizkien **aisialdi zerbitzuak dira, nahiz eta izan duten bilakaerari erreparatuz, jadanik proiektu hezitzaile gisara hartu** behar ditugun. Gazteen aisialdirako erreferentziazko gune bilakatu dira eta Gipuzkoa mailan, sare indartsu bat osatzen dute. Aretxabaleta eta Eskoriatzako Gaztelekuei dagokionez, "Txatxilipurdi" proiektuaren eta "Gaztematika" Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako sistemaren baitan kokatzen dira.

> *"Zerbitzu finko bezela Gaztelekuak ireki dira bi herrixetan, eta zerbitzu houetan ere sekulako ibilaldia ein dou, ibilbide super politxe izen da, aisi-eskeintza abtetik proiekto hezitzaile batera salto ein dou (…) eta nik uste dot hor elkarlan bat eon dala, elkartiak edo kudeatu dittuzten elkartiak eta nire artian elkarlan bat eon da, marko bat eskaintzen digu oin Gaztematikak, Gaztematikak ere ikastaro mordo bat eskeini digu, hezkidetza nola sustatu…" (Gazteria teknikaria).*

Txatxilipurdi elkartea AED-tik, Arrasate Euskaldun Dezagun proiektutik sortu zen 1988an, nahiz eta 1994tik elkarte propio gisara funtzionatzen duen. Gizarteko beste hainbat gai sozialekin hartu-emana badu ere, sorreratik, batez ere euskarari eta honen transmisiorako proiektuei dago lotua. Agente ezberdinekin egon da elkarlanean (administrazioa, ikastetxeak…), baina batik bat, herrigintzari zuzendutako elkartea da eta lan-harreman sendoak ditu herrietako eragile ezberdinekin. Euren hitzetan *"herritar autoeratuen lanean sinesten dute eta horren aldeko apustua egiten[3]"*.

Gipuzkoako Foru Aldunditik eskaintzen den Gaztematika sistemak ere, antzeko helburua luke: *Gipuzkoako haur, nerabe eta gazteei haien haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, etapa horiek dituzten bi zentzuetan: berezko balioa eta esanahia duen bizi-etapa gisa, eta bizi-proiektu pertsonal*

[3] Iturria: http://www.txatxilipurdi.com/

*batean gauzatzeko autonomia-maila lortzeko pixkanakako emantzipazio-prozesua bizitzeko etapa gisa*[4].

## 7.2. ARETXABALETA ETA ESKORIATZAKO GAZTELEKUEN EGUNEROKOTASUNEKO JARDUNA

Gaztelekuek oro har dituzten **proiektu hezitzaileek**, besteak beste, honako edukiak lantzen dituzte: partaidetzaren sustapena, euskara, arriskuen kudeaketa, hezkidetza eta genero berdintasuna, kulturartekotasuna, inklusibotasuna desberdintasun funtzionala duten pertsonekin, gizarte arazoak dituztenekin, etorkinekin, etab.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako Gaztelekuetan ere eduki hauek jarraitzen dituzte, nahiz euren helburuen artean beste batzuk ere agertzen diren: sormena eta produkzioa, hiritartasun digitala lantzea… Bertako begiraleek eduki eta helburu hauek gauzatzeko ekintza ezberdinak planteatzen dituzte, Gaztelekua irekia dagoen egunetan: ostegunetik igandera bitartean, alegia. Antolatzen dituzten ekintzen artean mendi irteerak, egun pasak, "Gazte konkisa", sukaldaritzari lotutako ekintzak, pelikula eta dokumentalak, mahai-jolas eta torneoak leudeke, besteak beste. **Ekintza hauetako batzuk, hezitzaileek proposatzen dituzte, eta beste batzuk, nerabeek zuzenean proposatuak dira**. Nerabeen partaidetza ere sustatu nahi da honela, beren aisialdiaren antolaketan.

> *"Nerabeak asko ezagutzen ez dabenen partetik, pentsatzen dabe ondiokan ume diala, eta umeei zer jakoe? Umeei gustatzen jakoe jolastia eta ekintzak egitea, ez? Baina nerabe direnean horrekin aspertu dira. Nerabe diranean ditue beste behar batzuk, ditue arrisku batzuk, euren bueltan, ditue erantzukizun batzuk, ya norberatikan salto kolektibora egiteko garaia, eta hor parte hartzeko sustapena ere asko laguntzen dogu" (Gazteria teknikaria).*

Hala ere, garrantzia ematen diote ere ekintza jakinik gabeko denbora librea egoteari, **gazteek euren artean hitz egiteko edo lasai egoteko denbora eta espazioa ere izan dezaten**, eta momentu horietan begiraleekin hitz egin eta konfiantzazko harreman bat eraikitzeko giroa ere sortu dadin.

> *Nik uste dot ailegaten garela gaztiena eta ematen dioutziela bihar dauien askatasun puntu hori, bai saiatzen garela aholkulari lanak eitxen eta baliabideak eta eskeintzen (…), batzukin gauz atzalde dana berbetan, esan nahi dot, ez dogula be ezta exijituten… (…) (Gaztelekuko koordinatzailea)*

Oro har, **begiraleentzat garrantzitsuena nerabe hauekin egotea eta entzutea litzateke, eta elkarrekin partekatzen duten jardun guztian, helburu hau zeharkakotasunez lantzen saiatzen dira.** Uste dute nerabeek, nerabe izateagatik badituztela berezko behar batzuk eta horiek identifikatu eta ulertzea dela funtsezkoena.

> *Gu bai fijetan gare euren biharretan diela primarioxauak edo, ba edadia nerabezaro horrek eskatzen ditxun biharrak, eta nik uste dot hori klabia dala be bai ze, (…), gaztiak bihar batzuk daukie, eta onartu behar jakie be bai euren izaera hori ez? Nerabezaro izaera hori. Ta nik uste dot ez dauela ulertzen orokorrian gizartiak (…) haurtzarua igual definituau dau baina nerabezarua… (Gaztelekuko koordinatzailea)*

---

4 Iturria: http://www.gipuzkoangazte.eus/documents/74494/99171/Sistema_behin_betikoa_EU.pdf/f0a37433-751c-401e-befb-2bd773353a56

Behar horiek identifikatu, ulertu eta ahal den ondoen erantzuten saiatzeko, beharrezkoa da nerabeei hitza emateko zein hauek kontuan hartzeko espazioak sortzea eta sustatzea. Euren jardunean horretan saiatzen dira. Dena den, beharrezkotzat ikusten dute lanketa hau sustatzea gizartetik bertatik ere.

## 7.3. ERABILTZAILEAK ETA HAUEN MOTIBAZIOAK

Begiraleen arabera, oro har, **bi herrietako gazteen erdia hurbilduko litzateke bai Aretxabaleta eta bai Eskoriatzako Gaztelekuetara**, gutxi gora behera. Jaso ditugun azken datuen arabera, Aretxabaletako Gaztelekuan 2017-2018 ikasturteko 3. Hiruhilekoan, 11 koadrila zituzten guztira erabiltzaile gisara. Hauetatik gehienak DBH 1. ziklokoak badira ere, badaude DBH 2. zikloko koadrila batzuk. Parte hartze hau genero ikuspegitik aztertzen badugu, nahiko orekatua dela esan behar dugu, nahiz eta badirudien oro har nesken kopurua ugarixeagoa dela. Azkenik, Gaztelekua Aretxabaletakoa izanik, hurbiltzen diren nerabe gehienek Kurtzebarri BHI ikastetxean ikasten dutenak dira (Arizmendiko batzuk baldin badaude ere).

Data bereko Eskoriatzako Gaztelekuko datuak erreparatzen baditugu, guztira 13 koadrila erabiltzaile dituzte, baina koadrila hauetako nerabe kopurua Aretxabaletako Gaztelekuan aurkitzen direnena baino baxuagoa da. Adinari dagokionez, koadrila gehienak edo behintzat, gehien parte hartzen dutenak, DBH 1. ziklokoak dira, nahiz eta DBH 2. zikloko koadrilen kopurua ere ez den baxua. Genero aldetik, partaidetza nahiko orekatua da, nahiz eta Gaztelekura joaten diren DBH 2. zikloko koadrilen artean neskak ugariagoak diren. Bestetik, Eskoriatzako Gaztelekura joaten diren nerabeen gehiengoa Arizmendikoak badira ere, Kurtzebarri BHIn ikasten dutenak ere dezente dira.

Landa lanaren bidez ikusi ahal izan dugu, **erabiltzaile hauen artean, batez ere "euskal eremuan" mugitzen diren gazteak leudekeela**. Begiraleak ere ohartzen dira honetaz, Gaztelekuan euskara erabiltzea derrigorra ez dela argi uzten saiatzen badira ere, euskararen erabilera beste modu batzuetara sustatzen saiatuz. Era berean, jatorri anitzeko nerabeak ere ez dira ia hurbiltzen Gaztelekura, nahiz eta kasuak egon badauden: Aretxabaletako Gaztelekuan badaude batzuk erabiltzaileen artean eta Eskoriatzan ere badaude beste jatorri batzuetako nerabeez osatutako koadrilak. Dena den, begiraleek landu beharreko aspektu gisara ikusten dute, eta batik bat, **jatorri anitzeko nesken partaidetza sustatzeko beharra** azpimarratzen dute, "kaleetan ere ez direla ikusten" azalduaz.

Gaztelekura hurbiltzeko motibazioen artean, **nerabeak batez ere "egoteko leku" bat bilatzen** dutelako hurbiltzen direla jaso da landa lanean: koadrilan egotea ahalbidetzen dien leku bat bilatzen dute, guraso edo irakasleen begiradatik at. Aldi berean, batzuek **begiraleekin duten tratu ona ere aipatzen dute, Gaztelekura hurbiltzeko motibo gisa**. Bestetik, kontraesanak ere nabaritzen dira euren diskurtsoetan: tarteka Gaztelekuan aspertu egiten direla aipatzen dute, hitz egin besterik ez dutela egiten esanaz. Aldi berean ordea, Gaztelekuak batez ere koadrilan lasai egoteko leku egokiak direlako baloratzen dituzte ongi. Dena den, sentsazio hau batez ere Gaztelekura noizbehinka soilik hurbiltzen direnek azaldu dute, eta Gaztelekura modu ohikoan hurbiltzen direnek ez dute sentsazio hori.

*"Asteburuetan ta ostiraletan zabaltzen dauie Gaztelekua, dauela hor bertan, ta juten gare ba jolasten futbolinien edo pin-ponien, ta be bai dau txutxe-denda bat onduen ta ondo dau" (DBH 2. zikloa, talde mistoa).*

*"Zerbait antolatien badauie juten gara, baina bestela ez" (DBH 2. zikloa, talde mistoa).*

*"(Nerabeekin zerk funtzionatzen du) Gertuko harremanak eta egoteko leku bat eukitzea. Ez da ekintzitis garai bat". Ekintza puntual batzuk funtzionatuko dute, break dance… baina aisialdi osoa da gakoa" (Gazteria teknikaria).*

Burutzen diren ekintzen artean, **arrakasta gehien dutenak Gaztelekuko espaziotik kanpo egiten direnak** dira. Ekintzetan parte hartzen duten nerabeen profila ere aldatzen da ekintzaren arabera, baina oro har, Gaztelekuan aktiboen parte hartzen dutenak izan ohi dira (hau da, DBH 1. ziklokoak).

## 7.4. HARREMANAK

Gaztelekuak eskaintzen dituen egoteko leku hauetan, **gehienbat koadrilaka antolatzen dira, eta honela banatzen dituzte espazioak ere**. Txosten honetan aurrerago aipatu den moduan, lagun-taldeak zentralitatea hartzen du adin hauetan eta lagun-talde bakoitzak bere burua edo "gu"-a definitu eta eraikitzeko beharra du. Honen harira, logikoa litzateke beraz, talde bakoitzak bere espazio propioa bilatzeko joera izatea.

Oro har, **beste adinetako koadrilekin dituzte zailtasunak espazio hauek konpartitzeko**. Orokorrean, DBH 2. ziklokoei gertatzen zaie hau, DBH 1. ziklokoei bereizitako espazio propioak bilatzen baitituzte. Honi begira, Aretxabaletako Gaztelekuan gela bati erabilera berri bat eman diote, "saltxeo gela" izena jarriaz eta adin honetako koadrilak biltzeko bideratuaz.

*Hasten dia 1.go mailakuak etortzen y te molestan (…), se nos va la tranqulidad (DBH 2. zikloa, nesken taldea)*

Gaztelekuan beste generoko nerabeekin ere topatu ahal diren arren, koadrilaka biltzeko joera dutenez, ez da hartu-eman handirik ematen. Ondorioz, badirudi **Gaztelekuek lagun taldea indartzeko diruditela baliagarriagoak, beste taldeei irekitzekoak baino**. Beste adinetakoak oztopo gisa bizi dituztela dirudi: txikiegiak edo nagusiegiak iruditzen zaizkie, batera egon ahal izateko. Genero aldetik ere, beste generokoak oso ezberdintzat ikusten dituzte, gauza ezberdinetan daudela eta beraz, banantzeko joera dute.

**Hezitzaileekin duten harremana ona da oro har, eta harreman on hau batez ere Gaztelekura modu ohikoan joaten direnek azaltzen dute**. Gaztelekura hainbeste hurbiltzen ez direnek berriz, hezitzaile "enrollatuagoak" eskatzen dituzte. Honen atzean egon daitekeen arrazoietako bat, hezitzaile hauek eurengandik ezberdinak ikusten dituztela izan daiteke: hizkuntza aldetik, gustuak, hizketarako gaiak… Bestetik, hezitzaile gazteagoak ere izan nahiko lituzketela diote batzuek (berriz ere gogoratu behar da, nerabeentzat adin-tarteak oso handiak direla).

*"20-19 urte igual hobeto (…) askoz be hobeto, nos entienden mejor" (DBH 1. zikloa, talde mistoa)*

## 7.5. ESPAZIOAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA

Bi herrietako Gaztelekuetako espazioari dagokionez, erabiltzaileengandik zein begiraleengandik landa lanean jasotako ekarpenak gurutzatuko ditugu ondoren, memorietan jasotzen diren datuekin batera.

### Aretxabaletako Gaztelekua

Oro har, espazio handiko eraikina da, bi pisutan banatua, eta erabiltzaile zein begiraleek ondo baloratzen dute. Sukalde bat ere badago goiko pisuan, oso ondo baloratua dena eta hainbat ekintza egiteko aukera ematen duena. **Erabiltzaileek denbora gehiagoan irekita egotea edo bertara modu librean sartu ahal izatea ere eskatzen dute.** Beheko solairuko zine gelari, lehen aipatu bezala, **"saltxeo gela" izaera ematea ere oso ondo ikusi da DBH 2. zikloko nerabeengandik, eta hauek berriz ere Gaztelekura etortzen hastea eragin du.** Espazioa handia eta egokia dela dioten arren, erabiltzaileek bertan dauden altzari eta materialak erosoagoak eta anitzagoak izatea ere eskatzen dute.

### Eskoriatzako Gaztelekua

Eskoriatzako Gaztelekuaren kasuan, **barne-espazioa txikiegia dela azpimarratzen dute erabiltzaile zein begiraleek**:

*"Eskoriatzako Gaztelekua eitxia haundixaua (…) dalako super txikitxua" (DBH 1. zikloa, talde mistoa)*

Gaztelekuaren **kanpoaldeko espazioa, berriz, oso ondo baloratzen** dute. Eguraldi onak lagunduz gero, hainbat ekintza egin ahal izatea ahalbidetzen dietela azpimarratzen dute erabiltzaile zein begiraleek, eta gainera, kalean dabiltzan beste nerabe batzuetara (esaterako, LH 6koetara) gerturatzea ere ahalbidetzen diete euren jarduna kanpora ateratzeak.

Bi kasuetan, beraz, Gaztelekuek nerabeen espektatibak betetzen ditu eta bertan eroso egoteko edo joan edo ez joateko orduan, beste faktore batzuk izango lirateke garrantzitsuagoak: antolatzen diren jarduerak, norbere koadrilarekin lasai egoteko aukera, edo hezitzaileekin harremanak, besteak beste.

# 8. PARTAIDETZA ETA INSTITUZIOEKIN HARREMANA

Atal honetan **nerabeen subjektu politiko izaeraren inguruko gakoak** aurkezten dira. Batetik, partaidetzaren ikuspegia lantzen dugu, nerabeek noraino ikusten duten bere burua partaidetza sozialerako eragile moduan, eta bestetik, erakunde publikoekiko ikuspegia eta harremana azaltzen dira. Azken honetan udalari egiten zaio bereziki erreferentzia.

Gai hauek nerabeekin lantzea ez da erraza izan, ohituta ez daudelako eta gizartean, orokorrean, partaidetza kulturarik ez dagoelako. Horregatik, saio osoan zehar haien burua nola ikusten duten aztertu dugu, eta era berean, saioen amaieran, gai honi lotutako dinamika bat ere egin dugu nerabeekin. Dinamika honek bi norabide izan ditu: batetik, elkarrizketa formatuan, guk bideratutako galderen bitartez. Adibidez, "Nor da zure herriko alkatea?" edo "Zer egiten du udaletxeak?". Eta bestetik, herria hobetzeko ekarpenak egiteko eskatu genien (haiek alkateak balira zer egingo lukete galdetuz).

Nerabeekin landutako eduki guzti hauek oso esanguratsuak izan dira **partaidetzaren inguruan duten ikuspegia ulertzeko eta partaidetza prozesuari begira, estrategia eraginkorrak landu ahal izateko**. Era beran, agerian utzi dute, proiektu honek sustatzen dituen helburuak lortzeko bide luzea eta sistemikoa behar dugula, eta nerabeekin elkarrizketarako eta partaidetza kultura sustatzeko etengabeko harremana landu behar dela.

Emaitzak hiru azpi ataletan banatzen dira: lehendabizi, partaidetzarako aukera eta mugak aurkezten dira, nerabeekin egindako hausnarketetan oinarrituta; ondoren, erakunde publikoak eta bereziki, udalarekiko duten ikuspegia lantzen da; eta azkenik, nerabeek herritar moduan, herriak dituen gabeziak eta hauek hobetzeko proposamenak aurkezten dituzte.

## 8.1. PARTAIDETZA SOZIALERAKO AUKERA ETA MUGAK

Partaidetza soziala tresna eta helburu moduan ulertzen dugu, herritartasun aktibo eta kontziente baterako bidean. Gure egungo gizartean, ordea, partaidetza sozialaren inguruko ikuspegia oso mugatua da, eta **herritarrek erakunde publikoekin harremanerako oso espazio eta aukera gutxi dituzte.** Herritar askoren pertzepzioan parte hartzea lau urterik behin bozkatzea da, eta ez dute haien burua herrian eragin dezakeen subjektu politikotzat hartzen. Ikuspegi honek eragina du nerabeengan, eta haiek ere herritartasun aktiboa eta partaidetza soziala modu zabalean ulertzeko zailtasunak dituzte.

Nerabeak ume eta helduen artean definitu gabeko espazio batean kokatzen dira eta, ondorioz, **partaidetzarako izan dezaketen rola ere oso anbiguoa** da. Gure gizartean, umeak ez dira kontsideratzen herriko gaien inguruan beraien ikuspegia eman eta erabakiak hartu dezaketen eragileak, eta nerabeak, umeen jarraipena diren neurrian, oraindik ez dira herritar oso kontsideratzen. **Badirudi 18 urtetik aurrera hasten dela norberaren errealitatearen eta gai publikoen inguruan hausnarketak egiteko garaia**, eta arinago, ume zein nerabeak, ez daudela horretarako gaituak. Nerabeek ikuspegi hau barneratuta dute, eta oso arrotza eta abstraktua egiten zaie haien burua subjektu politikotzat hartzea.

Nerabeekin egindako dinamiketan oso agerikoa zen ez daudela ohituta gai publikoetan haien iritzia ematera, eta are gutxiago, proposamenak egitera. Haien herria eta aisialdiaren inguruko duten ikuspegiari buruz galdetzea oso arrotza egin zitzaien. **"Baina benetan norbaiti inporta**

**zaio guk pentsatzen duguna?" edo "Baina hau eskatu ahalko genioke udalari?**" moduko galderek agerian uzten dute haien buruekiko pertzepzio hau.

Ahalduntze falta honen ondorioz, eragile publikoekin, eta konkretuago, **udalarekin interlokuziorako kanalak izatearen ideia bera ulertzeko zailtasunak dituzte, abstraktuegia eta zentzurik gabea ikusten dute**: Gizartean ematen den partaidetzarako kultura faltaren ondorioz, haien errealitatean ez dute ikusten horrelako harremanik ematen denik, eta gainera, haiek ez dira oraindik prest sentitzen ardura hori hartzeko.

Gazteria sailetik nerabeekin elkarrizketarako espazioak sortzeko saiakerak egin dira, gazte politikak haien behar eta gogoetara hobeto egokitu ahal izateko, eta nerabeak erabaki ahalmena duten subjektu moduan kontsideratzeko. Baina, aurretik azaldutako testuingurua kontuan hartuz, nerabeen ahalduntzea eta kultura politikoa landu aurretik, oso zaila izango da horrelako espazioek arrakasta izatea.

Neurri batean, Eskoriatza eta Aretxabaletan **nerabeen gogo eta proposamenak Gaztelekuen bitartez kanalizatzen direla esan genezake**. Espazio hauek aisialdirako zerbitzu izatetik proiektu hezitzaile bihurtzeko prozesuan, partaidetzaren ikuspegia sartu dute zehar-lerro moduan, eta Gaztelekuaren inguruan, nerabeek beraien iritzia eman eta proposamenak egiteko aukera zabala dutela esan genezake. Partaidetza hau ondorengo lerroetan gauzatzen da.

- Programazioa: Nerabeek asanblada bitartez ekintza bereziak (irtenaldiak, Gabonak edo Aste Santuetako jarduerak) aukeratu ahal dituzte.
- Zerbitzuarekiko ebaluazioa: Nerabeek materiala, harremanak, espazioa edo ardurak moduko gaien inguruan haien iritzia eman eta proposamenak egiteko aukera dute.
- Herriko dinamiketan partaidetza: Euskararen eguna edo herriko beste jarduera batzuetan parte hartzeko proposamen konkretuak bideratu ditzakete.
- Gatazken kudeaketa: Gaztelekuan gatazkak ematen direnean (apurketak, harreman arazoak…) asanblada bidez bideratzen eta konpontzen saiatzen dira.

Honek argi uzten du **gazteria teknikaria eta Gaztelekuko arduradunek nerabeak subjektu moduan kontuan hartzeko ikuspegia barneratu dutela**, eta alor honetan saiakerak proposatu eta sistematizatzen dituztela. Dena den, lanketa eredu hau Gaztelekuko zerbitzura mugatzen da, nerabeak bertako erabiltzaile diren neurrian, espazioa eta jarduerekiko duten ardura eta eskubideen markoan. Nerabeak haien aisialdiaren inguruan hausnarketa kontzientea egin eta udalarekin interlokuziorako marko zabalago bat sortzeak beste urrats bat eskatuko luke, eta horretarako, aurretiazko baldintza batzuk landu beharko lirateke.

Gainera, kontuan izan behar dugu Gaztelekuko dinamika parte-hartzailea nahiko salbuespena dela nerabeen eguneroko dinamiketan, eta bereziki, haien aisialdi arautuan. Diagnostikoan ondorioztatu dugun moduan, astean zehar **nerabeek ez dute aisialdi ez-arauturako ia tarterik eta eskolaz kanpoko ekintzez lepo** dute haien agendak. Jarduera hauetan **nerabeak "ezagutza jasotzaile" hutsak dira**, gogoeta eta erabaki ahalmen mugatuarekin. Kirolaren kasuan, partida eta entrenamendu erritmoak ere irmoak dira eta ez dute nerabeen ekarpenerako marjenik izaten. Egitura guzti hauek nerabeek haien aisialdian partaidetza aktiborako dituzten aukerak asko mugatzen dituzte.

Azkenik, nerabeen subjektu izaera garatzeko ezinbestekoa den beste alderdi bati erreparatu nahi diogu, nerabeen ahalduntzeari, alegia. Nerabeekin lanean ikusi dugunaren arabera, prozesu honek nerabeek beraien gogo, kezka eta bizipenez hitz egiteko espazioak sortzea

eskatuko luke, non norberaren subjetibotasunetik, talde izaera baten kontzientzia lantzen den. Horretarako, denbora behar dute, eta nerabeen hitzetan, ez dute sentitzen denbora nahikoa dutenik haien artean egon eta eztabaidatzeko. Gainera, nerabeek beraien hitza entzuna eta kontuan hartuta izango dela sentitu behar dute, eta horretarako, haien inguruan aukera eta marko egokiak sortu beharko lirateke.

## 8.2. UDALAREKIKO PERTZEPZIOA

Erakunde publiko guztien artean, **udala da herritarrengandik gertukoena eta herritarren eguneroko bizitzan eta herrigintzan eragin gehien duena**. Udalaren lehentasuna herritarren ongizatea izan beharko luke, eta horretarako, beharrezkoak diren esku-hartzea eta egitasmoak martxan jarri beharko lituzke.

Nerabeek, ordea, ez dute udalarekiko ikuspegi hau. Orokorrean, **udala zerbait urrutikoa eta abstraktua** iruditzen zaie, eta ez dituzte udalaren funtzioak ezagutzen. Ez dakite esaten zer egiten den udalean eta zertarako diren udal erakunde edo sail desberdinak. Ezjakintasun honek erakunde publikoekiko urruti sentiaraztea eragiten du, eta ez jakitea haiek ere, subjektu politiko diren neurrian, udal politiketan eragiteko gaitasuna izan dezaketela.

DBH 3-4ko mailan, nerabe batzuek Eskola 21 Agenda aipatu zuten, zeinetan eskola orduetan ingurumenaren inguruko lanketa egin ondoren, udal-arduradunei haien proposamenak helarazten dizkieten. Orokorrean, dinamika gustukoa dute, baina haien sentsazioa da ez dutela intzidentzia errealik; alegia, ez dakitela zein punturaino aintzat hartzen den haiek eskatutakoa. Gainera, eskolatik bideratutakoa da, eta gai konkretu bati bakarrik lotuta. Ondorioz, ez dute haien egunerokotasunaren parte sentitzen. **Aisialdia, ordea, haien egunerokotasunarekin eta identitatearekin erabat konektatua dago, gehiena eskolaz kanpo egiten dute, eta hemen ez dute udalaren presentzia edo haien eragiteko gaitasuna inon antzematen.**

Hala ere, nerabe askok udal zerbitzuen erabiltzaileak dira: Gaztelekua, kiroldegiak, liburutegiak… Espazio hauetan aktiboki eta maiztasunez parte hartzen dute, eta oso garrantzitsuak dira haien aisialdian. **Zerbitzu guzti hauek ez dituzte udalarekin lotzen, haientzat gune solte eta isolatuak dira, ez daudenak herri mailako ikuspegi eta egitura baten baitan.**

Politikagintzaren inguruan, ordea, iritzi emaile dira nerabeak. Orokorrean, helduen mundutik jasotzen diren mezu hegemonikoen oihartzuna nabaritzen da, eta nahiko ikuspegi ezkorra da. “Politikariek ez dute ezer egiten” edo “dirua tontokerietan gastatzen dute” moduko esaldien atzean, udal politikagintzarekiko mespretxua ere antzematen da.

> *“En eskoriatza se han gastado 6.000 euros en luces de navidad”,*
>
> *“Pues en Aretxabaleta se han gastado un monton den pasta en unas macetas de colorines” (DBH 2. zikloa, talde mistoa)*

Hala ere, alkateak izan beharko lukeen funtzioez galdetzean, herria “bideratzea” eta “herriak behar duenari erantzutea” azaltzen dira. Orokorrean, **adostasuna dago alkatea herriaren beharrei erantzuteko dagoela, baina kostatzen zaie behar hauek zeintzuk liratekeen azaltzea;** bai maila orokorrean, eta baita haien behar espezifikoak zeintzuk izango liratekeen identifikatzea. Nabaritzen da ez daudela ohituta interpelatuak izatera.

## 8.3. NERABEAK HERRIKO ALKATEAK BALIRA

Nerabeekin subjektu aktibo izaera lantzeko bidean, lehen urratsa haiek ere herriari begira haien iritzi propioa garatu, konpartitu eta proposamenak egin ahal dituztela jabetzea da. Ondoren, haien ideiak kolektiboki landu, eta ikuspegi sozial eta komun batetik aztertu beharko lituzkete. Partaidetza prozesuan erronka honi ekingo diogu, baina ikerketa fasean, dagoeneko hasi gara nerabeen aldarriak jasotzen eta sistematizatzen.

Nerabeei haien herriko alkate balira zer egingo luketen galdetu genien, eta galdera abstraktuegi iruditzen zitzaien taldeetan, haiek herrian zer hobetuko luketen galdetu genien. Erantzunetan aniztasun handia azaleratu zen: proposamen batzuk herritarrei orokorrean zuzentzen ziren (errepideak konpondu edo auzoak apaindu, adibidez), baina beste kasu batzuetan haien errealitatean identifikatzen dituzten hutsuneak betetzeari lotutako proposamenak egin zituzten (skate parka konpondu edo Gaztelekua handitu, adibidez).

Abiapuntu moduan, herriari eta herritarrei orokorrean zuzendutako proposamenak azalduko ditugu:

- Kuatzuenerako bidean iturri bat jartzea.
- Parkeak konpondu.
- Eskailera mekanikoak jartzea.
- Autobus gehiago egotea.
- Erreka garbitzea bertan bainatzeko.
- Eraikitzen hasi diren etxeak bukatu: Zubiurdinean daudenak…
- Margotu kolunpioak.
- Bidegorriko etxe bat bota.
- Kaleko espaloiak hobetu.
- Bide bat ondo ez badago, konpondu.
- Zaborrontzi gehiago jarri.
- Txakurrentzat zelai edo parke bat egin.
- Pobreentzat leku bat jarri.
- Jubilatuentzat irteera gehiago egin.
- Eguzki plakak jartzea eguzkiaren energia aprobetxatzeko.
- Aorran txarto dauden gauzak konpondu.
- Hasitako obrak amaitu.
- Herria politagoa jarri.
- Auzoak apaindu Gabonetan.
- Belorrietako bi iturriak konpondu.

Ikusten denez, proposamen hauek haien herrietan gertatzen denarekiko interesa eta konpromisoa adierazten dute. Talde batzuetan ez da lortu nerabeak logika honen baitan

sartzea eta hausnarketa aberatsa egitea, baina beste batzuetan, **haien herritar izaeratik abiatuz, herriaren beharrak identifikatzeko eta azaltzeko gai izan dira**. Honi lotuta, haien kontzientzia sozial maila erakusten duten beste proposamen batzuk ere jaso dira, askoz era abstraktoagoan, baina oso baliotsuak hala ere:

- Bakea munduan.
- Gaixotasunik ez egotea.
- Errespetua.
- Herritarrekin hitz egitea jakiteko zer nahi duten.
- Euskera.
- Lomce ez!
- Dirua ez gastatzea tontokeritan.
- Marihuana legeztatzea.
- Laguntza behar dutenei laguntzea.

Beste alde batetik, haien aisialdiari lotutako proposamenak egiterakoan hiru norabidetan egin dituzte proposamenak, eta ez da desberdintasun handirik antzematen bi zikloko ikasleen artean. Batetik, **herriko kirol instalazioei lotutako proposamen ugari jaso** dira. Proposamen hauek oso anitzak dira, bakoitzak bere proposamen konkretuak ditu eta ez dago kontsentsu handirik jasotako emaitzen inguruan. Salbuespen bakarra, **kanpoko igerilekua da, bereziki nesken artean, ia talde guztietan agertu** baita. Hementxe barnebiltzen ditugu denak.

- Kiroldegiko parkeko zelaia gehiago aprobetxatu.
- Kanpoko igerilekuak jartzea.
- Frontoi berri bat egitea.
- Izotz pista bat egitea.
- Futbol zelaia hobetu edo berri bat egin.
- Aretxabaletako Skatepark hobetu, eta Eskoriatzan egin.
- Bizikletentzako “Bike park” egitea eta montanbaikeko pista egitea.
- Eskoriatzako kiroldegiko gimnasioa hobetzea.
- Teniseko pista bat egitea.
- Padel pista bat egitea.
- Atletismo pista egitea.
- Saskibaloi kanasta gehiago jartzea.

Bestetik, nerabeek beraien espazio propioa izateko beharra azpimarratzen duten proposamenak azaldu dira. Era desberdinetan formulatzen dituzte, baina **oinarrian haien lekua izateko gogoa antzematen da eta adostasun maila altua duen eskakizuna da.** Hementxe honen inguruko proposamen konkretuak:

- Lokala izatea.
- Taberna bat 12-16 urteko gazteentzat.
- Guretzat espazio gehiago izatea herrian.
- DBH1 mailakoentzat jolas-saloi bat.
- 13-17 urtekoentzat leku propio bat jartzea, asteburuetan aukera gehiago izateko.
- Abandonatuta dauden lokalak gazteentzako jartzea.
- Gazteentzat lokalak alokatzea.
- Gaztetxe bat.

Azkenik, aisialdi denboran haien gustuko jardueren inguruko proposamenak azaldu nahi ditugu. Nerabeek aisialdian zer egin nahiko luketen eta horretarako zer beharko luketen aipatu dute, eta interesgarria da antzematea **asko kostatu zaiela jarduera konkretuetan pentsatzea, eta askoz gehiago bururatzen zaizkiela haien kabuz egoteko, jolasteko, kirola egiteko, edo hitz egiteko espazio egokietan pentsatzea.** Honek agerian uzten du nerabeek ez dituztela jarduera itxiak behar, baizik eta haiek gustura egoteko marko egokiak.

**Jaiei lotutako proposamenak talde askotan azaldu dira, batez ere DBH 3-4 mailetan.** Hemen, haiei zuzendutako aktibitateak egitea, musika kontzertu gehiago egotea eta jaiak maiztasun gehiagorekin egitea aipatzen dira. Era berean, aisialdi kontsumista eta pasiboari lotutako jarduera asko ere aipatzen dira, zinea edota erosketak egiteko lekuak izatea, besteak beste. Haien aisialdiari lotutako proposamen hauek hiru multzotan barnebiltzen ditugu: aisialdirako aktibitateak, instalazioen hobekuntzak eta espazio proposamenak.

Aisialdirako aktibitateak:

- Ekintza gehiago antolatu gure adinakoentzat.
- Jai gehiago izatea eta denbora gehiago irautea.
- Jaietan jarduera gehiago gure adinakoentzat.
- Kontzertu eta DJ gehiago.
- Gaztelekuarekin bidai bat egin.
- Pelikula gehiago, hobeak eta gure adinerako.
- Antzerki gehiago eta hobeak.
- Dendak jarri: arropa dendak, txino edo bazarra.
- Sala de juegos.

Instalazioen hobekuntzak:

- Aretxabaletako Gaztelekuko erosotasuna hobetu eta handitzea.
- Parke gehiago eta daudenak hobetu.

Espazio proposamenak:

- Skatepark, olatu pistina edo toboganak pistinan, izotz pista, tirolina parkea.
- Leku bat kontzertuak jartzeko guretzat (Arrasaten bezala)
- Burger King moduko jatetxeak.

Aipatutako proposamen guzti hauek nerabeen hasiera bateko burutazio diren neurrian, oso baliagarriak dira beraien aisialdiaren inguruko ikuspegia ulertzeko. Hurrengo fase batean oso interesgarria litzake gai hauen inguruko lanketa konpartitua haiekin egitea, "Olentzerori gutuna" ideiatik kontzientziaz adostutako proposamenetara salto egiteko. Era honetan, nerabeak ez lirateke eskatzaile-hartzaile figuran gelditukо, baizik eta herriko eragile aktibo izaera landuko lukete poliki poliki.

# 9. ONDORIOAK

Azken atal honetan, burututako ikerketa prozesutik eratorritako ideia edo ondorio nagusiak biltzen dira. Diagnostiko honetan gai asko eta oso desberdinak landu dira, eta ondorioetan ez ditugu gai hauek banaka jaso; baizik eta egindako lanketaren analisitik eratorritako gai garrantzitsuenen inguruko hausnarketa aurkezten dugu.

Diagnostiko hau aldi berean helburu eta tresna dela azaldu dugu hasieran: Aretxabaleta eta Eskoriatzako nerabeak, beraien errealitatea eta aisialdia ezagutu eta ulertzeko hurbilpena da, nerabetasunaren marko orokorrago baten baitan. Eta aldi berean, diagnostikoaren ondoren egingo den partaidetza prozesurako elementuak definitzen lagundu digun bitartekoa ere bada. Ondorio hauek bigarren norabide honetan kokatzen dira: nerabeekin egindako lanketatik abiatuz, partaidetza prozesua, eta etorkizuneko Gazteria politiketan kontuan hartzeko gako batzuk azaltzeko moduan aurkezten dira.

**Gaien aniztasuna:** nerabeekin aisialdiari buruz hausnartzean, gai eta esparru asko azaltzen dira: harremanak, kirolak, drogen kontsumoa, mugak, helduekin gatazkak… diagnostiko hau ekosistema guzti honen hurbilpen bat izan da, ahalik eta osotuen izateko bokazioarekin. Baina gai bakoitzaren inguruko xehetasunak lortzeak lanketa espezifikoa beharko luke, eta konplexuagoak izan daitezkeen gaiek intimitate eta segurtasun giroa beharko lukete (drogak, sexualitatea, sare sozialen erabilera…), non haien gogoeta eta praktiketatik abiatuz, hausnarketa partekatua egin daitekeen ikuspegi hezitzailea barneratuz.

**Autonomiaren garrantzia:** nerabetasuna haurtzarotik heldutasunerako prozesu graduala da, non progresiboki mugak gainditzen eta aukera berriak irekitzen diren. Mugak gainditzea esparru guztietan ematen da: denbora gehiago lagunekin egoteko eta ordutegi malguagoak, espazioan urruntzea eta beste herrietara joateko aukera irekitzea, eta harremanetan gurasoekiko distantziamendua eta lagunen etengabeko zentralitatea.

Nerabeak gero eta gai eta arduratsuago ikusten dute beraien burua gauzak haien kabuz egin eta erabakitzeko, eta autonomia hori aldarrikatzen dute. Aisialdia esparru pribilegiatua da nerabeak beraien autonomia esperimentatzen joateko, eta aldi berean, egiten duten horren inguruan hausnartu eta kontzientzia kritikoa garatzeko. Horregatik, garrantzitsua da haien aisialdian beraien burua subjektutzat hartzea, eta denbora hau modu autonomoan kudeatu, erabaki eta bizitzea.

**Denbora falta:** nerabeek adierazi digute euren aisialdi denboran egin nahiko lituzketen ekintza guztiak egiteko denborarik ez dutela. Oro har, euren aisialdi denbora oso egituratua eta arautua dago, eta asteburuak lirateke “benetako denbora librea” duten eta aisialdia modu librean antolatu zein bizi ahal duten momentu bakanak. Asteburuak intentsitate handiarekin bizi dituzte, astean zehar egiten dutenaren oposizioan, eta hemen, haien adina izateari lotzen duten gozamena eta askatasuna esperimentatzen saiatzen dira.

Era berean, beraien burua subjektu gisara definitzea eta beraien identitatea eraikitzea ahalbidetzen dien praktika eta desioak ere asteburuetan kontzentratzen dira. Izan ere, astean zehar eginkizunak eta errutinak jarraitzen dituzte, eta egunaren amaieran, gelditzen zaien aisialdia, bakartia eta pasiboa da. Horregatik, haien bizitzetan garrantzitsuak diren jarduerak

eta haien identitatea eraikitzen laguntzen dutenak asteburuetan egiten dituztela sentitzen dute, denbora nahiko mugatuan.

**Espazio propioa:** nerabeek koadrilan biltzea ahalbidetuko dien espazio propioak eskatzen dituzte, baina ez dute zuzenean espazio hauek lokal edo lonja batzuk izatearen beharra ikusten. Gaztelekuan haiek baino txikiagoak edo nagusiagoak direnak oztopo moduan ikusten dituzte, eta haien koadrila gustura eta lasai egoteko espazioa propioak izatea asko eskertzen dute. Espazio hauetan haien autonomia eta askatasuna aldarrikatzen dute, haien talde izaera indartzeko aukera emanez, baina espazioaren kudeaketak izan ditzakeen marko eta arauak onartzeko prest daude. Beraz, aukera interesgarria irekitzen dira udalarekin elkarlanean koadrilak txandaka erabili ahal dituzten espazioak proposatzeko.

Gainera, agerian gelditu da haientzat garrantzitsuena lagun artean egotea eta haien zaletasunak modu autonomoan aurrera eramatea dela. Horregatik, ez dute behar ekintza itxiak edo arautuak, baizik eta haien artean egoteko eta haien gustuko gauzak egiteko marko egokiak ahalbidetzea (kirol instalazio onak, musika kontzertuak…).

**Erreferente estrategikoen garrantzia:** Nerabetasuna ezaugarritzen duen elementuetako bat gurasoekiko distantziamendua da, baina aldi berean, beraien identitatea eraikitzeko pertsona heldu berrien erreferenteak behar dituzte. Eskolako irakasleek ez dute rol hau betetzen, nerabe gehienak haiekiko urruti sentitzen direlako eta kontrola eta ardurarekin lotzen duten esparrua delako. Aisialdiari lotutako begirale, entrenatzaile eta kale hezitzaileak, ordea, nerabeak eta mundu helduaren arteko zubi figurak dira, zeinek sarritan, nerabeen konplizitatea eta konfiantza lortzen duten. Eragile hauekin elkarlanean jarraitzea ezinbestekoa da, eta lanketan sakontze aldera, nerabeekin subjektu politiko izaera lantzeko aukerak baloratu beharko lirateke.

**Jaiak, eragiteko esparru pribilegiatua:** jaien espazio eta denboran nerabeen adin-tarteari zuzendutako ekintza eta elementuen hutsune bat dago. Hala ere, jaien inguruko bizipenak mugarri garrantzitsua dira nerabeen biografietan. Gainera, nerabeen koadrilak biltzen eta nahasten diren momentuak izaten dira: batez ere, bi generoen arteko harremanen hurbilpen bat ematen da. Hargatik, jaietan nerabeei zuzendutako zer egon litekeen eta egun hauetako sustantzien kontsumoaren inguruan hausnartzeko interlokuzio espazio bat etorkizunera begira landu daitekeen egitasmo bat izan liteke.

**Ez dira gizarte eragile sentitzen:** nerabeekin burututako dinamika eta hausnarketetan ikusi dugu, oro har, kosta egiten zaiela gizarte eragile bezala euren burua kokatzea. Batetik, gizartean dagoen partaidetzarako kultura eskasiagatik eta bestetik, adin-tarte anbiguo batean kokatzeagatik. Nerabeei arrotza egiten zaie beraz rol horretan kokatzea, eta lekuz kanpo sentitzen dira. Hargatik, beharrezkoa da ahalduntze bat ematea, nerabeei subjektu modura beren buruak eraikitzen lagunduko diena.

**Udalarekiko urruntasuna:** nerabeek Udalaren figura oso urruneko zerbait bezala sentitzen dute. Batetik, ez dituzte instituzio honen zein alkatearen figuraren benetako funtzioak zeintzuk diren ezagutzen, eta bestetik, egiazki Udalarenak diren eta eurak aktiboki erabiltzen dituzten

zenbait zerbitzu (Gaztelekuak eta hezitzaileak, kiroldegiak…) ere ez dituzte Udalarekin lotzen. Ondorioz, deskonexio handi bat antzeman daiteke, alde batetik ezagutza gehiago eta bestetik, zerbitzu solte guzti hauek herriaren eta udalaren marko orokorragoan kokatuko dituen ikuspegi globalagoa. Erakunde publikoak eta haien funtzioak ezagutu eta ulertzea oso urrats garrantzitsua da nerabeen artean herrigintza aktiborako kultura sustatzeko, eta haiek ere, herrian subjektu politiko direla sinesteko eta norabide honetan ekarpenak egin ahal izateko.

# 10. BIBLIOGRAFIA

Corcuera Bilbao, N.; Bilbao Gaztañaga, M. eta Longo Imatz, O. (2013). Gazteen lonjak eta lokalak EAEn. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Díez Mintegui, C. (2002). Estudio de las causas del abandono de la práctica deportiva en las jóvenes de doce a dieciocho años y propuestas de intervención. Área de gestión de clubes y federaciones deportivas. Gipuzkoako Foru Aldundia.

EDE Fundazioa (2017). Euskadiko haurren eta nerabeen errealitatea kopurutan. Txosten diagnostikoa 2016. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

EDE Fundazioa (2010) Aproximación a las necesidades y demandas de la infancia y la adolescencia en la CAPV. Servicio de Investigación Social- EDE Fundazioa.

Esteban Galarza, M.L. Bullen, M. Díez Mintegui, C. Hernández García, J. eta Imaz Martínez, E. (2016) "Continuidades, conflictos y rupturas frente a la desigualdad: jóvenes y relaciones de género en el País Vasco". Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer. Vitoria-Gasteiz.

Estébanez, I. eta Vázquez, N. (2013) Genero-desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan. EAEko gazteen sare sozialen erabilpenerako hurbilketa kualitatiboa. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Gaztematika (2015) Haur, nerabe eta gazteen ekimenak eta parte hartzea sustatzeko zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. <http://gaztematika.gipuzkoangazte.eus/documents/74494/0/A4+REVISTA+EUSKERA_CASTELLANObaja.pdf/4ef8c6c3-462b-48b3-b002-8ff169315451>

Gómez Zapiain, J.; Ortiz Barón, M.J.; Eceiza Camarero, A. (2013) Nerabeen sexualitatea Euskal Autonomi Erkidegoan. Nerabeen sexu-portaera eta sexu-hezkuntzaren egoera Euskadiko derrigorrezko bigarren hezkuntzan. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Identitate Kolektiboen Ikertegia. (VV.AA.) (2005) Identitatearen eta politikaren kultura berri baterantz : euskal gazteen joerak Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. . 1. argit. – Vitoria-Gasteiz.

Iglesias Diz, J.L. (2013) Desarrollo del adolescente: aspectos físicos, psicológicos y sociales. Pediatria Integral, nº 17, Vol.2, 88-93 pp.

Longo Imatz, O.; Bilbao Gaztañaga, M. eta Corcuera Bilbao, N. (2017) Euskadiko gazteak 2016. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.

Martinez, P., Ubieta, E. (2005) Tratu txarra berdinen artean. "Bullying-a" Euskadi. ISEI-IVEI.

Moreno C, Ramos P, Rivera F et al. (2016) Informe técnico de los resultados obtenidos por el Estudio Health Behaviour in School-aged Children (HBSC) 2014 en el País Vasco. Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad.

Oliva Delgado, A., Antolin-Suarez, L., Povedano Diaz, A. et al. (2017) Bienestar y desarrollo positivo adolescente desde una perspectiva de género: Un estudio cualitativo. Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud.

Serapio Costa, A. (2006) *Realidad psicosocial: La adolescencia actual y su temprano comienzo* en Adolescencia y comportamientos de género. Revista de Estudios de Juventud, nº 73, 11-23 pp.

SIIS (2018) Encuesta sobre adicciones en la CAPV 2017. Avance de datos. Eusko Jaurlaritza- Gobierno Vasco, Departamento de Salud.